

14986  
7820  
A.T.V.: 6084  
Jaungoiko - Zale'ren idaztijak  
II - 2



# Andra Maria'ren Coretako Tia

Eguzkitza 'tar Jon'ek  
IDATZI DAU



(Biañ dan baimenaz)

1919

JAUNGOIKO - ZALE'REN IRARKOLEAN  
Zofnotza. — (Bizkaya)









## Auregunerako irakurkizuna

---

*Negua igazi da, ekaiztea be joan eta uñindu da, gure luñ onetan lorak erne ta agertu dira.* FLORES APPARUERUNT IN TERRA NOSTRA. (CANT. II, 12). Udabariagaz izate guztia berbiztu doa; mendi ta zelayak, landa ta latziñak, aran eta ibañak, lili ta lora edereñ jantzi ta apaintzen dira; baña lorarik edeñ, lirain eta zoragañiena idoro (aurkitu) nai ba - dozu, zelai ta ibañetara ez zaite joan bere bila: zeure gogoko begi oñeik gora jaso egizuz eta iñoiz luñean jayo dan lorarik apain, edeñ eta bikañena, an zeru-goyan ikusiko dozu. Zelayetako lora bikain au, aranetako lili edeñ au, Andra Maria da: EGO FLOS CAMPI ET LILIUM CONVALLIUM. (CANT. II; 1). Luñean bizi zala, zikinkeriak ez eban iñoz ezaindu, zañgori-

ak ez eban iñoz zimeldu, goñiak ez eban iñoz marguldu: beti leñden eta garbi, beti lirain eta eder iraun zan, eta Jaunak gogota soin (gorputz eta arima) luñetik zerura aldatu eban.

Lorategirik apain eta orniduenan, lilitategirik ugari, jori ta ederenan, Ama samur onen biotz garbia da. Geure gogoagaz an, bere biotz baruan, sartuko ba'gñan, lora mueta guztiak eta gorputzeko begiak dakusguzanak baño askozaz be eder-zoragarri ta usaintsuagoak idoroko geunkez. Lora onein edertasuna bein bakarrik ondo ikusi ta ezagutuko ba'gendu, atseginaren indarrik biñloratu (zoratu) eragingo leuskigu, ta euren usain gozoa bein bakarrik artuko ba'gendu, luñeko lorarik ederenaren usainik gozoena be, ats naskagarri irudituko litzakegu. Begiz ikusi ta eskuz ikutu daikuzan zelayetako lorak lakorik, gure biotzetan ez dala jayoten edonok daki; baña gure gogoaren onomenak (biotzeko ekandu onak) udabariko loraen antz andia dauke: lora bakotzak berari dagokion arnari, ale edo garaua dakanen lez, gure

onoimenak be eurai dagokioen arnaria (egitada ona) dakaŕe, ta augaitik, Eleizako irakasleak biotzeko ekandu on oŕei loraen izena guztiz egokiro imiñi dautse.

Onoimena zer dan jakin nai ba-dozu, deun Austin irakasle jakitunagaz erantzungo dautzut: *gauza onetara itzuli ta gaiztoetatik aldenduten gaituan, geure gogoaren oitura eragikoŕ eta ona dala*; bere zirkin eta bultzadea daŕayana, zuzen bizitzen da ta oitura ori txaŕera iñok be ezin okeŕtu daike: BONA QUALITAS MENTIS QUA RECTE VIVITUR, QUA NULLUS MALE UTITUR. Gauza bat saŕi egiten dogunean, egiñen oŕen oiturea lasteŕ aŕtzen dogu, ta ekanduta gagozarian, gauza ori egiteko, berarizko jas eta eŕeztasuna eukiten doguzala bai-dakizu. Onelan ba, onoimena irakuŕi, nai entzun dagizun bakotxean, oitura ala ekandu onak gauza onetarako emoten dauskun berarizko indaŕ, jas eta eŕeztasun ori aitu egizu.

Onoimen oneik gure izatearen utsuneak bete ta ornidu daroez; gure gogoaren apaindurarik edeŕenak dira; gauza onak

egiteko adore, indar eta ezeztasuna emoten dauskuez, betiko zorionaren duin, Jesu-Kristo'ren irudi ta Jainkoaren antzarle egiten gaitue. Guztiak enda batekoak be ez dira ta inarkun (zeregin) bardina be ez dauke. Batzuk gure adimena, beste batzuk gure naimena ornidu ta apainduten dabe: batzuk, euren elburutzat Jainkoa dauke; beste batzuk, gure egitadak neurira ekartzen dabez. Jainkoa euren elburutzat daukelako, jainkozkoak deritxegunak, iru dira: *ziñesmen, itxaropen eta Jaun-maitasuna*. Gizonaren egitade ta ekanduak neurira dakahezanen artean nagosi ta garayenak, lau dira: *zuritasun, zuzentasun, sendotasun eta neuritasuna*. Gure ekanduai dagokiozan onoimen oneik be, geuk geure alegiñez loituak ala Jaunak, bere eskahez, gure biotzetan bañenduak izan daitekez. Geure indar eta alegiñez geuganduten doguzanak, gauza onetarako ezeztasuna bakarrik izaten dira: Jaunak bere eskahez, geure biotzetan bañenduten dauskuzanak, benetako almenak izaten dirala Eleizako irakasleak diñoskue: lenengo aei izatez-



koak, bigarren onei izatez-goitikoak, deritxoegu.

Ziñez, geure buruko argiagaz ezagutu geinkezan gauza onetarako almena, geugan daukagu, geure izateari dagokion gauzea da - ta: baña ekinak oiturea, ta oitureak éreztasuna dakaizku: augaitik geure adimeneko argiagaz ezagutu daikeguzan gauza onetarako jas eta éreztasun ori, geure indar utsez eta ekinagaz bakarik be geugandu ta geuretu geinke; baña geure ziñeskintza maitagarriak agindu ta eskintzen daukun zeruko zoriona, izatez-goitik dago, ta zorion ori irabazteko gai ta duin izan daiteken egitaderik, geure indar utsez ezelan be ezin egin geinke; augaitik, gure betiko zoriona zintzoro nai daun Jaun onak, izatez-goitiko egitadak be egin daikeguzan, eta onein bidez, zeruko zorion eder ori eskuratu daikegun, benetako almenak diran izatez - goitiko onoi-menak be, bere eskaragaz batera, gure gogo-biotzetan ezari ta bañenduten daukuz. Geure aleginagaz loitu ta geuretu doguzan onoi-menak, geure ekinagaz gei-

tu, indartu ta sendoagotu geinkez: Jaunak bañendu dauskuzanak, ez; baña onoi-men oñeik zuzen erabili dabezalako, duin egiten diranai; emon eutsezan Jaunak berak geitu ta sendoago egiten dautsez.

Izatezko - onoiemenen eño ta zustraya, geure izate au da; augaitik ziñeste bako gizonak be iñoz\* baño sañiago onelako jas eta eñeztasunen jabe egiten dira, ta euren kaltezko egitada asko egin ezkerro bai; baña egipen bat-edo-beste egin añen, bein-goan ez dira galtzen. Izatez-goitikoen jatoñi eta zustraya Jaunaren eskañ eta aizkitasuna da; augaitik eñu ta oben astun edo eriozkiña egin ezkerro, Jaunaren aizkitasunaz batera, Jaunak biotzean bañendu euskuzan onoiemen oñeik be galtzen doguz. Egiz, damutasun eta autoñkintzaren bidez, geure Jaun eñukioñak bañero be emoten dauskuz; baña bien bitañtean, gure betiko zoriona irabazteko gai izango dan gauzarik, ezin egin geinke.

Onexek dira Andra Maria'ren biotzean gozoro erne ta mardo azi ziran liliak; oneik dira gure Ama samuñ oñi aintza,

omen eta garbitasunezko ale, arnari (frutu) eder; gozo ta usaintsuenak emon eutsezan lora bikain-zoragaĭiak; FLORES MEI, FRUCTUS HONORIS ET HONESTATIS. (ECCL. XXIV, 23). Loretako il onetan, Ama garbi ta laztan oĕren biotzetik aĭtu-ta, onetariko loraen bat-edo-bat egunoro azalduko yatzu: zuk lenengo ondo ezagutu ta gero zeure biotz oĕretara biĭaldatau egizu. Onelan zeure otoitz eta eskariak zeruko Ama maite oĕri zuzenduko dautsazuzan bakotxean, zeure biotzeko loraen usain gozoa be eskiĭi ta opaldu al-izango dautsazu, ta zeure Ama laztantsu oĕren biotza ezin geyagoan poztu ta atseginduĕko dozu.

LOREA: FLORETE FLORES... ET DATE ODOREM. (ECLI. XXXIX, 19). Lora zoragaĭiok garatu zaiteze ta usain gozoz usaindu nagizue.

ERABAGIA: MEMENTO... MATRIS TUÆ. (ECCLI. XXIII, 18). *Zeruko zeure Amagaz gomutau zaite;* ta zeure eskaĕona berari erakusteko, loretako il au, egunik itxi barik, egiteko asmua aĭtu egizu.

## EGUNEROKO ESKARIA

Azken barik maitagañi zarean neure Jaun erukioñ ori, neure buru ta bizia baño maiteago zaitut eta neure gaiztakerietzaz damaturik, eskañgaiztoko aonek egin dautzudazan irain guztien parkamena, biotz-biotzez, eskatzen dautzut. Zeure Ama guñgañi ta neure Ama samuñ ospatu ta goretsi nai neuke; baña zuk, ene Jaun maite orñek, lagundu ezik, zure gogoko dan gauzarik ezertxu be ezin egin neinke-la bai-dakit. Zeure laguntza orñen bila natoñkizu, ba, neure Jaun on eta erukioña, ta zeure Ama laztan orñi neure biotzeko maitasun eta eskañona erakutsi nai dautsadan ezkerro, orñetarako beañ dodan laguntasuna, esku-zabalez emongo daustazula uste dot.

Eta zu, goretsi nai zaitudan ene Ama maite, bigun eta samuñ ori, neure Jaunaren auñean lagun zakidaz eta zeure seme zintzo izateko beañ dodazan eskañak, loñtu egidazuz. Zure biotz ori apaintzen daben onoimen edeñak neugandu nai neukez.

Irakasle andi oġek, zeure Loretako il aone-  
tan, aġen, irakatsi egidazuz, eta nik gaizo  
onek, egunero eskiġniko dautzudazan lora-  
txuak be, abegi onez aġtu egizuz.

## AZKEN - OTOITZA

Osoro garbi, eder eta zoragaġi zarean  
geure Ama kutun oġi, gorputz eta gogo  
geure gauza guztiakin eskintzen gayatzuz.  
Umeak amarenak diran lez, gu be zeure-  
zeureak gara ta beti zeureak izan nai do-  
gu; baġa umien ardurea amari dagokion  
lez, gu zure seme-alaba eġukaġi onein ar-  
durea zuri, Ama samuġ eta laztantsu oġi  
dagokizu. Zure ogasunak gure beaġizenak  
baġo geyago dirala: zure ontasuna gure  
eskaġgaiztoa baġo andiago dala: zure be-  
saġte maitakoġ eta laztantsu oġetan guzti-  
oentzat zokotxu bana bai - daukazula go-  
mutau egizu ta Ama maite - laztan oġek,  
guztiok zeure egape gozoan aġtu gagizuz.  
Gaur auġkezten dautzuguzan loratxuak  
eta emoten dautzugun laztana, aġen onetsi  
egizuz. Beti maite ta laztan izango zaitu-


gu; zeuk be, Ama on-ona, maitatu ta onetsi gagizuz eta emen zeure aúfean batzandu garean lez, goiko zorionean be batzandu gaitezán, orain geure biderakusle ta gero zeruko ate izan zakiguz.

### MEMORARE

## BERNARDO DEUNAREN OTOITZA

Gomutau egizu, o Maria guztiz garbi, érukiof eta samuía, iñoz be ez dala entzun zure magalpean saftu danik, zuri deitu ta laguntasuna eskatu dautzunik zuk, Ama laztantsu ofek, jaramon barik bertanbera laga ta itxi dozula. Uste ta itxaropen onegaz azkoftu ta sendaturik, o Maria, gizarbien Ama garbia, ni obendi érukaí au be zugana natoí arin-aringa ta zeure aúfean auzpaturik, negaí-zotiñez aúnga nagokizu. Seme-Jainkoaren Ama samuí ori, aúen adi egon zakidaz, eta neure eskariak érukiz entzun eta abegi onez aútu egidazuz.





# Lenengo egunerako irokurkizuna

## Gizonaren elburua

### I

Edozein gizasemek bere buruari lenen egin beaŕ leuskiozan itaunak onexek dira: ¿Nondik ete-natoŕ? Ludi onetan ¿zetarako ete - nago? ¿Norako izango ete - naz? Iru itaun oŕei erantzuten ez dakian gizasemea, beste jakintza batzuetan zuŕ eta bizkoŕena ba'litz be, berari geyen yoakona ez daki-ta, itsu eŕukaŕia da ta ezertxu be ez daki-ala ziñetsi daike. ¿Nondik ete-natoŕ, ba? Nire begiak dakusezan gauza guztiak eta gauza oŕeik dakustazan au, beste norbai-tek egiñak gara. Au argiro dakust eta ezin ukatu neinke; baña, egile barik, gauza egiñik ez legoke: au be ezin ukatu neinke, neure zentzuna lenago ukatu ezik. ¿Nok egin ete-nau, ba? Ausaz nire auŕetikoak izan ete - dira? Baña nire auŕetikoak eta luŕean izan diran gizon guztiak, neuk la-

koxe izate ziztrin eta mengela euki dabe. Gizon bakotxa lez, gizadi osoa be, azken-engoan asi ta lenengoraño, beste norbait tek egiña da, eta onelan, gizadi osoaren Egile ori, gizon bakotxaren Egile be baida. Nondik ete-nator, ba? Érez erantzun daiket: nire Egile, Ugazaba ta Jabe Jainkoa da ta beste iñor ezin izan daiteke. *Zure eskuak, ene Jaun altsua, zure esku oñeik irazan, egin eta eraldu nabe ta ni, nazan guzti au zeure-zeurea naz.* (JOB. X, 8).

Ludi onetan ¿zetarako ete - nago? Jainkoak egin nindun, eta neure izatean badiraut, Jaunak berak iraunazoten daust: augaitik neure biztaldi labur onetako une guztietan, neure gauza guztiakin Jaunarena naz eta Jaunarentzat nago. Zugatzaren arnariak bere jabearentzat izan oi dira - ta, nire gogamen, gurari, asmo, ibilte ta egite guztiak nire Ugazaba ta Jabe dan Goiko-Jaunarentzat izan bea leukie.

Luřeko ogasun, aukera, atsegin eta zorionak nire biotz au ezin ase, ezin bete dabe; gauza andiagoren baterako egiña dirudi. ¿Nok ase daike? Nire zorion-



egañi au, neure Egileak, ontasun, edertasun, aberastasun eta zorion guztien jabe ta iturri dan Jainkoak bakañik ase daike. Aonelan, nire Egile dan Jainkoa, nire elburu ta azken be bai-da. ¡Egile guñgañi ori, nire maitasun guztiaren dain benetan zara! Nire adiñak zeu ezagutu, nire biotzak zeu maitatu, nire miñak zeu, Jaun ori, beti goretsi beañ zindukiez. Maitasun utsa zarean Jaun oñek, nire biotz au artu egizu ta zeurea izan nai dodan ezkeru, maitasun indiñez zeugandu ta zeuretu nagizu.

Norako izango ete - naz? Au ziuñ ez dazaut: baña neuk zintzoro nai izan ezkeru, nire elburua dan Jainko ori, nire sari ta betiko zorion be izango dala ta neure biotzeko gose - egañi guztia ase ta beteko daustala ondo dakit. Jainkoak esan eikedan: Nire menpeko zintzoa izaten bazara; nire agintzak eta zeure eginbeañak ondo ta zeatz betetan ba-dozuz, nire asañerik ez dazaukezu ta nire zigofaren ikturik ez dozu artuko; baña Jaun onak nire beragazko zintzotasuna neure betiko zori-

onagaz alkañturik, maitero esan daust: *Zure osasuna ni naz eta zintzoa izáten ba-za-yataz, zure sari andi-andia be neu izango nayatzu.* (Ps. XXXIV, 3. GEN. XV, 1).

Jainkoak egin nau; beretzat egin nau; zerurako egin nau. Jaunaren eskuetatik urten naz: Jauna gurtu, goretsi ta maitatzeko bizi naz eta neure egikizun au zintzoro bete ba-dagit, itxasotik urtendako urak bañiro itxasora itzultzen diran lez, ni be egin nindun Jainkoagana itzuli ta joango naz. Jaunarena naz, Jaunarentzat nago, Jaunaren zorionera sañtu naiteke. Ene gogoa, ori astiro ta maitaro auznañtu egizu ta arazo ofetan beste ezetan baño atsegin eta zorion andiagoa idoroko dozu.

## II

Andra Mariaren jakituri onuratsu ta osasungañia, auxe izan zan. Ama garbi onek, iñoz aitzu barik, bere jatoñi ta elburua egunero bere gogoan erabiltzan. Jainkoak egin nau, beretzat egin nau, bera maitatu ta bere naya betetako zeregiña emon daust. Nire bizitz onetako egikizun na-

gosia, orixe da - ta, egikizun au zeatz eta zintzoro bete ba-dagit, beretzat egin naun Jaun maitagaři ori, nire azken, elburu, sari ta zorion be izango da. Gogamen osasun-gaři oneikaz zuzendu eban Andra Mariak bere bizitz guztia; bere asmo ta egite guztietan bere Jabe zan Jainko maitearen gurari ta atsegiņa bilatu eban eta augaitik, orain Andera bikain ori zeru ta luřeko bakaldun edo eřegiņa da.

Geure biotzen argi zarean Jaun ořek, gure adimen motelak ziņesmen-argi edeřez argiturik, gure bizitz aonen jatoři, zeregin eta elburua argiro erakutsi eiguzuz eta zeuretzat egin ginduzun ezkeru, ařen Jaun eřukitsu ořek, zeure-zeureak izateko beař dogun eskař eta laguntasuna oparo emon eiguzuz. Eta zuk, geure Ama samuř eta maitati ořek, gure eskari motel - landeřak zeureakin batera Jaunari auřkeztu egiozuz eta zeuk beti gogoan erabili zenduzan gogamen osasun-gařiak, geure biotzetan be ondo iratzi ta josi egizuz.

LOREA: IN CHARITATE PERPETUA DILEXI TE (JEREM. XXXI, 3). EGO... MERCES TUA MAGNA NIMIS. (GEN. XV, 1). Maitasun betikořaz maitatu zaitut eta zure sari andi-andia be, neu izango nayatzu.

ERABAGIA: DEUM TIME ET MANDATA EJUS OBSERVA: HOC EST ENIM OMNIS HOMO. (ECCL. XXII, 13). Jaunari lotsa izan egiozu ta bere agintzak bete egizuz, gizonaren egikizunik andiena orixe da-ta.





# Bigaren egunerako irakurkizuna

## Beste gauzak zetarako ete - dira?

### I

Geu nok egin gaituan eta luñean zetarako gagozan esan dogu ta bai - dakigu. *Zeure Jaun eta Jainkoa guñtuko, (jauretsiko) dozu ta berari bakarrik otsein - egingo dautsazu.* (MATT. IV, 10); ori esan eban Jesu-Kristo gure Irakasle ta Beñerosle maitagarriak. Geure Jainkoa ezagutu, maitatu, goretsi ta guñtzea da, ba, gure oraingo eginbeñar eta zeregiña; baña gure inguruan, geu ez garean beste gauza asko dagoz eta eurak zetarako diran be jakin beñar dogu. Gauza oneik ¿nok eta zetarako egin ete - ditu? Geu geronek lez beste gauza guzti oñeik be Jainkoak egiñak dirala argiro dakusgu. Jainkoak asikaldian ortze ta luña egin ebazan (GEN. I, 1) diño Idazti deunak eta, egiz, oñtze ta luña ta euretako gauza guztiak, berez egiñak ez dirala ezagutze-

ko, burua ausi ta nekatu bea'rik ez dago. Egiñak dira ta Egilea dauke; baña geure inguruan dakusguzan gauza o'rik ¿norentzat egin ete-ebazan izaki guztien Egile dan Jaunak?—Geuretzat, gizonarentzat. *Jauna, gauza guztiak gizonaren oinpean imiñi dozuz, iñoan Dabit igar'leak, (PSAL. VIII, 8). Guztiak zeuro'einak dira; baña zeuek Kristo'renak zare, diño deun Paulo bialduak (I COR. III, 22). Beste gauza o'rik guretzat egin diñu, ba, Jaunak; baña ¿zetarako?— Geure betiko zorionera igoteko, ma'ak izan dakiguzan. Onelan, izate guztiak Jakob'ek ikusi eban ma'adia dirudi ta an goyan dagoan Jaunak diñausku: ASCENDE HUC (APOC. IV, 1) ma'adi o'etatik aona igon zaite.*

Geu gogoa gara: soña (gorputza) geure gauza ta zatia da; beste enparauak gure zatiak ez dira; baña geure inguruan dagoz eta geuk eskuratu ta erabilten doguz. Gure gorputzari bizia damotsan gogoa (arimea) gorputza baño askozaz be eder eta bikañago da: beste enparau guztiak geure gogo edo gorputzaren bea'izenak

betetako baño ez dira: augaitik, gure gogo eđer au, gure gorputz ustelkořaren eta inguruan daukaguzan beste gauza ořein otsein, menpeko eta jopu izateko egiņa, ezin izan daiteke, bestera baño: gorputz eta enparau guztiak geure gogo bikain onen otsein eta jopu izateko. Onelan ba, geu ez garean beste gauza guzti ořeik, geure gogoaren zoriona jadesten lagundu dagiskuen egin ebazan Jaunak; baņa ořetarako egiņak ba-dira, zetan esan be ez da geure zorion ořetarako laguntzen dauskuen bestean arġu ta erabili, eta zorion ori galerazten dauskuen bestean itxi ta jauġti beař doguzala.

Luřeko gauzak arġu ala itxi beař doguzan jakiteko, neuři zuzena orixe da ta orixe baño beste neuři zuzenik ez dago. Onelan ba, ogasun eta osasuna, geure gogoaren zoriona egiteko, urgazpenak ba-yakuz, guretzat on eta onuratsuak izango dira; baņa zorion ori eragozten ba-dauskue, txař eta kaltegaři. Atsegin emoten dauskuen gauza asko, geure elburu ta zorionera eltzeke, eragozpenak

izan daitekez; biotza atsekabez mingoztuten dauskuenak, ostera, urgazpen eta laguntzarik onenak. Augaitik, bizitz onetako ezbehar eta zoritxarrok be, geure Jaunagana ba-garoez, txera ta abegi onez aritu behar geunkez eta luferko atsegin eta zori-onik andienai be, Jaunagandik aldenduten ba-gaitue, bekoki ta abararte iluna ipini behar geunskio. Gure elburua ta esku artean darabilgun zereginik andiena ta guretzat gañantzirik geyen daukana, geure go-goaren zoriona da: beste gauza guztiak, oretarako bitartekoak baño ez dira eta bitartekoak baño ez diran ezkerro, zuzen jokatu nai ba-dogu, geure zorionerako laguntzen dauskuen neuriz aritu ta erabili, galerazten dauskuen neuriz itxi ta jauñti behar doguz.

## II

Luferko gauza guztiak neuñi onexegaz neuñtu ebazan beti Andra Mariak. Gauza atsegintsuak, gozo ta atsegintsu zirala-ta beste barik, ez ebazan aritu ta erabilten; atsekabetsuak be, biotzean min eta atse-



kabe emoten eutsela-ta beste barik, ez ebazan urindu ta izten: gauza guztietan begiratzen eban Jaunagana joateko, bitarteko ala eragozpen izango ete-yakazan eta bitarteko izango yakazala uste ebanak, berez latz eta mingotzak izan aŕen be, pozik eta abegi onez aŕtu eroazan; eragozpen<sup>gan</sup> ziranak, ostera, berez leun, gozo ta atsegintsuenak izan aŕen be, itxi ta jauŕti egiten ebazan: augaitik Ama garbi ta samuŕ ori iñoz okeŕtu barik, beti zuzen joan zan zeruko bidean zeaŕ. Bere bizitzako atsegin eta pozaldiak baño atsekabe ta mingoiztasunak ugariago izan zirala baidakizu; baña atsegiñak lez atsekabeak be Jaunagana joateko bide egin ebazan eta pozaldietan lez itunaldietan be, bere gogoa irabazi edeŕakin aberastu eban.

Jakituri sakon au euki zendun Ama laztan ori, eŕuki zakiguz eta zeure oñatzai jaŕaitzeko beaŕ doguzan argi ta laguntasuna loŕtu eiguzuz. Jaunak gauza guztiguztiak, beragana joateko maŕlak izan dakiguzan egin ebazala bai - dakigu; baña guk itsu ta argalok, saŕiegi gauza oŕeik

okértu ta gaiztakerirako bide egiten doguz. Ama laztan órek, gure itsutasun au argitu ta gure argaltasun au osatu egizuz eta, zeuk irakatsi zeunskun bide óretatik, geure zorioneraño eroan gagizuz.

LOREA: OMNIA VESTRA SUNT,.. VOS AUTEM CHRISTI (1. COR. III, 22). Gauza guztiak zeunak dira; baña zeuek Kristo'renak zare.

ERABAGIA: DOMINUM DEUM TUUM ADORABIS ET ILLI SOLI SERVIES. (MATT. IV, 10). Zeure Jainko Jauna gu'tuko dozu ta bere otsein baka'rik izango zara.





# Irugaren egunerako irakurkizuna

---

## Gure gogoaren betiko osasuna

### I

Geure esku artean arazo ta zeregin asko erabilten doguz; baña guztietatik osoro beaiezkoa bat bakañik da: geure gogoaren (arimearen) betiko osasun eta zoriona. Beste enparau guztiak, gañantzirik andienekoak izan añen be, osoro beaiezkoak ez dira; baña geure gogoaren osasuna, ori bai, ori geure alegin guztiagaz asi ta jañaitu beañ dogun garatz eta arazoa da. Egi au gure Jaunak argiro irakatsi euskun, Marta'ri esan eutsanean: *Marta, estu ta lañi zagoz, gauza askotzaz urduri ta arttega zabiltz; baña gauza bat bakaña da beaiezkoa.* (Luc, X, 42). Eta ziñez, beste edozein arazok bein okeñ urten añen, urango baten zuzendu leike, eta zuzendu ezin leikenean be, okeñ urtendako arazo ofetan galtzen dana, beste baten irabazi leike;

baña geure gogoari dagokion arazo onek bein okef urten ezkerro, gero okef ori zuzentzeko era ta astirik ez dago - ta, okef oregaz galdu daikegun zoriona be, beste inongo arazotan ezin eskuratu geinke.

Arazorik andiena, geyen yoakuna be auxe da. Beste enparau guztiak batera be, guretzat arazo aonek besteko gañantzirik ez dauke, urik emon be: onen ondoan beste arazoak, txiki, ziztrin eta ezerezak dira: auxe da gure arazo nagosi-bakara, geure indar, alegin eta ardura guztiagaz zuzendu ta egin beaf geunken egikizuna. Geure Jaunari entzun dayogun: *¿Zetarako dau gizonak luřeko ogasun guztiak beragandu ta eskuratzea, azkenean bere gogoa galtzen ba-dau? bein bere gogo ori galdu ezkerro, oren ordez ¿zer emon daike?* (MATT. XVI, 26). Ori diño gure Jaunak. Eta egiz, luřeko ogasun guzti ořeik, artietan galdu ez ařen be, biziagaz batera, guzti-guztiak galtzen dira: baña gogoaren zoriona, ori gizonak, bein lořtu ezkerro, inoz be galduko ez daun ogasuna da. Nai beste atsegin, ogasun eta andikeri euki

ebazan Salomon jakitunak esaten eban: *Luřeko gauza guzti ořeik uskerien - uskeri ta ezerez utsak dirala ezautu dot.* (ECCLES. 1, 2). Daukaguzanean ardura ta buru - auste lařegi: galtzen doguzanean, atsekabe ta mingoztasun geyegi emoten daukuez; baņa gogoaren zoriona, bein lořtu ezkeru, iņoz be ezin galdu geinke-ta, atsedeen eta atsegin bete-betea izango yaku.

Bakotxak beretzat, ordezeko barik, egin beař daun arazoa da. Geure gogoaren osasuna egiteko arazo ori, Jaunak geure ardurapean ipiņi dau: geuk ziņez eta benetan nai izan ezkeru, arazo ori zuzen erabili ta geure zoriona lořtu geinke; baņa beař dan ardureagaz begiratu ezik, okeř urten leikegu ta okeř urten ezkeru, geure buruari ekaři geinkion kalterik izugařiena ekařiko dautsoęu. Beste garatz eta arazo batzuk iņoren ardurara itxi geinkez. Geuk geronek jaramonik egin ez ařen, beste norbaitek, gure ordezek, euren ardurea ařtu ezkeru, ainbaten izaten da; baņa gure gogoaren betiko osasuna, beste iņok be, gure ordezek, ezin egin daike-ta, geuk gero-

nek zaindu ta egin bea' dogun egikizuna da. Egiz, Jaunaren laguntasuna bearezkoa dogu; baña laguntasun o'egaz arazo aonen ardurea bakotxak bere gain ar' tu bea' dau, iñoren lepora jau'rti baga. *Zu barik egin zinduzan Jaunak*—diño deun Austiñe'k—*zu barik ez zaitu gaizkatu ta zorionduko.* Onelan, Jaunaren laguntasuna ta bakotxaren alegiña, betiko zorion ori jadesteko osoro bearezkoak dira. Arazo andi oni dagokion besteko alegiñik egiten ete-dozu? Bea' dan besteko ardureagaz begiratzen ete dautsazu? Arazo au ondo ta zuzen badarabiltzu, egunen baten eskuratuko dozun irabazia, iñok be ezingo dautzu kendu; beti-betirako zeure-zeurea izango da: augaitik arazo aonen ardurea be, iñoren lepora jau'rti barik, zeuk zero'ek beti erabili bea' dozu.

## II

Andra Mariaren bizitzea guretzat irakaspén ede' ede'ra da. Geure gogoaren zorion eta osasuna zelako ardureagaz begiratu bea' dogun, Ama laztan o'ek argiro

irakatsi dausku. Bere gogo garbi - garbia orbanik txikienaz be ezaindu ez eiten, bere bizitzako aldi ta une guztietan efnai ta arduratsu ikusten dogu. Luġeko andikeri, ogasun, aukera ta atsegiġnen biġa iġnoz be ez zan ibiġi: bere biotz eta gogoaren garbitasun eta edeġtasuna, ori izan zan bere bizitz guztian ardurarik andi ta zolienagaz biġatu ebana. Bere gogoa orbange ta garbi jagoteko, beste iġnok ez lako alegiġna egin eban eta, augaitik, beste iġnok baġno atsegin eta zorion andiagoa loġtu eban zeruan: Geure Jaunari apal-apalik eskatu dayogun geure adiġnak goitiko argiz argitu daiguzala, arazo aonen gaġantzi andia argiro ikusi ta ondo ezagutu daikegun, geyen yoakun arazoa auxe da-ta. Jaun eġukitsu oġek, zeure otsein zintzo, Austin deunari, emon zeuntsan lako argi ta eskaġa, guri be, aġen emon eiguzuz, arek esaten ebana guk be egiz eta biotzez esan daikegun: *Zeuretzat egin ginduzun Jaun oġek, eta Zugan bere atsedena idoro aġte, gure biotz au urduri ta aġtega dago. Zeugan izan ezik, gure biotzarentzat atsedeen eta*


zorion osorik ez dago-ta, geure Egile za-rean Jaun ori, geure atsedan eta zorion be bai-zara. Gure gogo gaizo aonei zeuganako bidea erakutsi egiezu eta bide onetan geure Ama maite-laztanaren oñatzai jaraitzeko bea' dogun laguntza, esku zabalez emon eiguzu.

LOREA: PORRO UNUM EST NECESSARIUM. (LUC. X, 42). Gauza bat baka'ra da bea'ezkoa: geure gogoaren osasuna.

ERABAGIA: CUM METU ET TREMORE VESTRAM SALUTEM OPERAMINI. (PHILIP. II, 12). Zeuen argaltasunaren bildu' - ikaraz eta Jaunagan zeuen itxaropena ipiñirik, betiko osasun ori jadesteko lan-egizue.







# Laugaren egunerako irakurkizuna

---

## Geure gogoaren betiko osasuna

### I

Betiko osasuna loŕtuko dabenaŕ ęasko ala gitxi izango ete-dira? Zenbat lez izango diran ziuŕ ezin jakin geinke; baņa betiko osasun ori galduko dabenaŕ askotxu izango dirala, Jaunak naiko argiro adierazo euskun. Bein Jaunari itandu eutsen: — Jaun oŕek, esan eiguzu ęzeruratuko diranak gitxi izango ete-dira? Eta berak erantzun eban: *ate bedaŕ eta estutik saŕtzeko aletin egizue.* (LUC. XII, 23). *Deituak asko dira; baņa autuak gitxi.* (MATT. XX, 16). ¡Jaunak erantzun eban ori, ziņez, edonori biotz-ikarea saŕtzeko lain bai-da! Ziņesmen-argirik ez daukelako, zeruko biderik be ezagutzen ez dabengizasemeak, zenbatu-ala dira; baņa guri, geure Jaun eŕukioŕak, ziņesmenaren bidez zeruko bidia irakatsi dausku; bere maztian

lan-egitea'ren, betiko saria eskiñi ta agindu dausku; bere Semearen ezteguetara mai-terik deitu gaitu. Deituak izan gara, ba; ¿autuak be izango ete-gara? Ez dakigu. Deituak asko ta autuak gitxi izango dirala Jaunak esan euskun: deituak izan gareala bai-dakigu; autuak izango garean ala ez, ori ez dakigu.

Gure ziñesmen eta bizitzea batera ba'le-go, zerurako izango gareala itxaron al-izango geunke; baña, zoritxa'ez, kristiñau asko ta askoren egitada ta ekanduak euren ziñestearen aurka dagoz. Kristiñau asko, ziñesten dabena ziñestuko ezpa-lebe bai-zen dongaro bizi dirala, egunoro geure begiakín dakusgu. Ziñesteak irakasten dautsoena egitadez ukatu daroe: euren ziñestea zuzena da, baña bizikerea gaiz-to-okeña: ziñestea eder eta deuna; baña bizikerea itxusi ta donge-dongea. Onelan, ziñesmenak zeruko bidia irakatsi ta era-kutsi a'ren, berein kristiñau, euren donga-keriz, bide o'etatik u'ín aldenduten dira, ta augaitik, ziñestera deituak izan diran asko, zerurako autuak ez izatea, gelga'ri ta a'riga'ri ez da.

Baña ¿zegaitik ainbeste galtzen ete-dira? ¿Jaunak eruki gitxi daukalako ala gizona berez itsu, nagi ta gaiztoegia dalako ete-da? Jaunak eruki gitxi daukalako, ez. Bere ontasun, zamuñtasun eta erukia neurri bakoak dira; beragan itxaron egizu; baña zeure argaltasun eta dongakeria be andi-andiak dira-ta, zegaitik bildur izan be baidaukazu. Gizaseme oroen zorionerako, bere buru ta bizia opaldu ebazan Jaunonak, guztien osasuna bene - benetan naidau (I TIM. II, 24); inortxu be galdu ez dedin, guztiai bere eskar eta laguntasuna oparo emoten dautse; gaiztoenai be, zintzoro damutu ezkeru, bere besoak zabal-tzen dautsez eta bere aizkitasunean abegi onez artzen ditu. ¿Zer besterik egin daike? Jauna guretzat on eta erukioia da; baña gu beragaz eskar gaiztoko ta geure buruagaz gogor eta ankerak izaten gara. Jaunak bizia ta eriotzea, zoriona ta zoritxara geure eskuan iminten daukuz, eta guk bein baño sariago, bizia itxi ta eriotzea artu, zoriona laga ta zoritxara autesten dogu: gauza onak ikusi ta onetsi bai, baña

txafak egiten doguz. Gogoaren betiko osasun edera guztiok nai geunke; baña osasun ori egiteko, alpef eta nagi egoten gara: zorionari arpegi argi ta alaya ipinten dautsagu; baña bide dongeak itxi, geure burua ukatu, aragiaren griñak ezi ta gurari gaiztoak ifoteko, nagi ta mukef ibilten gara. Jaunak deirik asko egiten dausku; baña geuk aren deyari jaramon gitxi egiten dautsagu: augaitik deituak izan diran asko, autuak ez dira izango.

## II

Andra Maria, gure Ama samuf ori, deitua ta autua izan zan. Erantzun eutsan baizen zintzoro Jaunari erantzun ezpa'leutso; gu sarritan ibilten garean lez, nagi ta mukef ibili ba'litz, ¿nok daki? beaf ba-da zerurako autua ez zan izango; baña Jaunaren deyari beste inok baño bizkoaf eta zoliago erantzun eutsan eta augaitik, Andra garbi, bikain eta uren ori, beste inor baño zeregin eta egikizun andiangoetarako autua izan zan. Jaunaren Ama laztan ofek, gorengo maña ofetara igoteko, bere alde-

tik ezer ez ebala egin uste ba'zendu, okef zengokez. Egiz, Jaunak emakume zoragafi oni berarizko eskařak emon eutsazan; baņa berak be, bere gogo ta biotza zeruko pitxi ta edeřtasunez jantzi ta apaintze-ko, beste iņok baņo alegin geyago egin eban eta emakume guztien ařtean garbi eta zoragafiena zalako, Jaunak orixegaitik bere Amatzat autetsi ebala ziņetsi zeinke. Zeruko autuen ařtean Andra Maria'k beste iņok baņo zorion andiaġoa daukala bai-dakizu; baņa zeure nagikeri ta ardurarik-ez ori astindu dagizun, Ama laztan ořek Jaunaren deyari beste iņok baņo bizkor eta zoliago erantzun eutsola ta Jaunaren naya beste iņok baņo zeatzago bete ebala gomutau egizu.

Geuk irabazi barik, maitasun utsez dei-egin dauskuzun Jaun ori, bařiro be eřuki zakiguz eta zeure dei samuřari zintzoro jařaitzeko beař doguzan uřgazpen eta eskař zerutařak emon eiguzuz. Eta zuk, geure Ama laztan ořek, orain eta geure eriotz-aldian batez be, zeure seme - alaba eřukaři onein aldez otoi-egizu. Deituak

izan garenok, autuak be izan gaitezak, zeure bitartekotasun samur ori, biotz-biotzez eskatzen dautzugu. Ama maite ori, adi egon zakiguz eta gure eskari au entzun eiguzu.

LOREA: MULTI SUNT VOCATI, PAUCI VERO ELECTI. (MATT. XX, 16). Deituak asko dira; baña autuak, gitxi.

ERABAGIA. FRATRES, MAGIS SATAGITE UT PER BONA OPERA CERTAM VESTRAM... ELECTIONEM FACIATIS. (I PETR. I, 10). Anayak, egite onen bidez autuak izan zaitezak, ardura geyago artu ta alegin geyago egizue.





# Boskaren egunerako irakurkizuna

## Geure gogoaren betiko osasuna

### I

Deituak asko, autuak gitxi dirala ikusi dogu: baña ori ¿zegaitik ete - da? Betiko osasun zoriontsua gitxik loitu daroe, giza-  
seme ta emakume askok, euren gaztaroan Jaunagaz aitzurik, bizitz nasai ta okeña egiten dabelako; aragiaren griña donge guztiak azkatu ta gaiztakeririk-gaiztakeri ibiltan diralako. Gaztetan ekandu txarrik beragandu dituana, zaitezaroan nekez ondu ta bide onera gitxitan etortzen da. Ori zegaitik izaten dan jakin nai ba - dozu, bertatiko baten esango dautzut. Lenen, gaztaroko adin biguna baño zaitezaroko adin eldua askozaz be nekezago ezi ta aldatu leike. Gaztaroa berez bigun-biguna izaten da, ezez biuritu ta tolestu leike ta norberak nai daun antz eta tayua aherazo leyo; baña adin eldua, gogoñago izaten da-ta, makuñ-

tu, ezi ta aldatu nai ba - da, beste tayu, izakera ta egilimu bat emon nai ba-yako, askozaz indar eta alegin geyago egin bea izango da. Landara gaztea edozein alde-tara maku'tu ta zeuk nai dozun lez biu'tu ta tolestu al-izango dozu: baña urteakin azi ta lodi'u daitenean, oke'ra dala-ta, in-dar'ez zuzendu nai ba-dozu, edo ausi egin-go yatzu edo laga dayozunean, ba'iro len-go bere jasera joko dau. Gizasemea be olantxe da: gaztaroan oke'rtzen ba-da, ge-ro nekez zuzendu daiteke; gaztaroan ar'tu daun jas oke'ari, alegin andiren bat egin ezik, ezin itxi izango dautso ta bide zu-zenari jaraitzeko, gaiztasun eta eragoz-pen andiak aurkituko ditu.

Bigaren, griña eta zalekeri oke'ra, ga'ra ar'tu dagienean, nekezago itzali (amatau) leike. Azi onak eta txar'ak geure biotzetan daroaguz: azi onak Jaunak erein ebazan, azi txar'ak, gure lenengo gurasoen obene-tik dato'rkiguz. Adikuntza-urtietara eltzen gareaneko, biotzean daroaguzan azi oneik ernetan dira; or'aitik be, gaztaroan arduraz bizi ezkerro, azi onai indar emon eta azi



txařak eřezago irato geinkez; baņa lenen-  
gotan ardura barik bizi ezkeru, azi txařak  
berez erne ta jagiko dira ta indař arturik,  
arantza ta sasiak bedařa oi daben lez,  
eurak be azi onak zapaldu ta iratoko  
dabez.

Su txikia edonok eřez itzali (amatau)  
daike; baņa lasterıtxe itzali ezik, zer eře  
ba-dauko beintzat, indařa artu daroa ta  
bein indař artu ezkeru ğnok ez daki itzali-  
ten askozaz be gatxago izaten dala? Gure  
biotzeko zalekeri okeřak eta aragiaren  
grıņa dongak, suaren antzeko dira: gaz-  
tetan, su txikia; baņa eřegaři ta jakia emo-  
ten ba-yake, indař artu ta gař andia egiten  
dabe. Atsegin zikiņen egařia, atsegin ořei-  
kin iņoz be ez da ase ta beteten: atsegin  
lizun geyago ta euren egařia andiago egi-  
ten da. Onelan, bere gaztařoa atsegin zi-  
kin eta gaiztakerietan igaroten daunak,  
bere grıņa dongien egařia geitu ta euren  
sua iziotuago egiten dau ta gero, egaři  
ori ezin ase ta gař ori ezin itzalirik, neke  
ta loř asko izango ditu.

Irugařen, ekandu zařa nekezago aldatu

ta kendu leike. Gaztaroan onerako nai txañerako ekandua, gizonak ezez aítzen dau. Atsegin loi ta zikiñez iñoz be ez da asetzen aragi ustelkoña: lenengotan argaltasunez egiten zan oben eta gaiztakeria, gero ekanduz egiten da: ekanduak gero baño gero, bere zustrayak bañurago sañtzen ditu ta ekandu zaña ¿nok aldatu? bere zustrayak ¿nok ebagi? bere indaña ¿nok ausi? Egikizun au gizonarentzat gatxentaikoa izan oi da.

Austin deunak diñosku ekandu zañak gizonaren bigañen izatea dirudiala ta bera erpetik atara nai daunak, izugañizko alegin eta lanak egin beañko dituala. Ekandu zañak gure naimena estuntza gogoñakin lotu daroa ta bere menpeko jopua ba'litz lez, nañaztuten dau nai daun tokira. Ogetamañ urtegaz, bide dongea itxirik, itzuli zan Austin Jainkoagana. Jaunak berarizko eskañ indañtsuagaz lagundu eutsan; baña ori ta guzti be, bere ekandu txañ eta zaña uñatzeko, buñuka izugañia egin beañ izan ebala berberak diñausku. Gaztaroan ekandu txañak, askok aítu daroez; ekandu

txaġa, gogoaren osasuna egiteko, eragozpenik andienetaikoa da: augaitik deituak asko izan aġen, autuak gitxi izan oi dira.

## II


Andra Maria'k aonetan be irakaspem edeġak emon dauskuz. Iru urte ozta eukazala, bere gurasoak Jerusalem'go eleizara eroan eben eta antxe, bere gogoaren aufferapideari egokiozan zeregiġnetan, bere gaztaroko urteak igaro ebazan. Gauza onak ikasi ta gauza onak egin; ori izan zan bere eguneroko zeregiġna ta onelan bere gogoa ekandu edeġez jantzi, oġnidu ta apaindu eban. ¿Gaztea al zara? Jakitunak diġnotzun au gogoan ondo aġtu ta josi egizu: *Zeure gaztaroan zeure Egileagaz gomutau zaitte.* (ECCLI. XVI, 1). ¿Gaztaroko urteak joan yatzuz? ¿Ekandu txaġak be zeugandu dozuz? ¿Orain bide onari jaġaitzea, gaitz egiten yatzu? Ez zaitte izutu ta kikildu: zeure asmo onak sendogotu egizuz eta ekandu txaġ oġeik ezi aġte gogotik lan - egiteko erabagia aġtu egizu.

Azi onaren erele zarean Jaun maitagarria, gure biotzetatik azi txar eta gaiztoak kendu ta oñein ordezt egitade onen azi osasungarriak erein egizuz; geure oitura ta ekandu gaiztoak erpetik ebagi ta ekandu onak geuganduteko bear dogun laguntasun eragilea emon eiguzu. Eta zuk, ekandu on guztien jabe zarean Ama laztan oñek, zeuk irakatsi zeunskun bideari jaraitzeko daukaguzan asmo onetan sendatu gaizuz.

LOREA: TUUS SUM EGO, SALVUM ME FAC. (PSAL. CXVIII, 94). Zeurea naz ni, ene Jauna, añen zeruratu nagizu.

ERABAGIA: MEMENTO CREATORIS TUI IN DIEBUS JUVENTUTIS TUÆ. (ECCLI. XVI, 1). Gaztaroan zeure Egileagaz gomutau zaite.





# Seigaren egunerako irakurkizuna

**Gogoaren osasuna gerorako iztea arisku andiko jokoa da.**

I

Betiko osasun eta zorionaren ardurea guztiz aitzu ta alde batera itxi daroenak, euzkeldunen artean gitxi izan oi dira; baña gero era ohea eukiko dabela-ta, egun batetik bestera atzeratu ta luzatzen dabena askotxu. Geroago ereti ohea, eskañ ugariagoa, asmo sendoagoa eukiko dabela arerio guzurtiak ziñetsi eragiten dautse, ta eurak, uste okeñ oregaz, Jaunagana itzuli ta biurtzeko epea egun batetik bestera luzatzen dabe beti.

Bertatik egin beañ geunkan arazo au, urengorako iztea arisku andiko jokoa dala adierazoko dautzut. Jaunagana biurtzeko, gitxienez be, iru gauza beañ dira: aldia, goiko laguntasuna ta gogoa. Arazo au gerorako izten daunari, beañezkoak diran

iru gauza ořeitatik bat-edo-batek, eřez uts - emon leyo ta bat - zein - batek uts-emotia, gogoaren osasuna galtzeko nai-ko da.

Batzuri aldiak uts emoten dautse. Luzaro biziko diralakoan, Jaunagana itzultzea uřengorako itxi daroe; baņa euren usteak askori okeř urten dautse. Bizitzako aldi laburř au, guztia batera barik, apurka ta unez emoten yaku: Jaunak une bat emoten dauskunean, uřengo unea agintzen ez dauskulako, emongo dauskun ala ez ezin jakin geinke: augaitik geyen yoakun arazo au uřengorako iztea, zorakeri andia da. Askori une ta egun, aste ta urteak euren eskuan daukezala begitanduten yake; baņa gitxien uste dabenean, bertatiko eriotzeak, gorputzeko biziagaz batera, gogoaren betiko zoriona be kentzen dautse. (I. THES. V, 3).

Eriotzea urin dagoala uste izaten dogu; baņa geure baruan daroagu, beti geugaz darabilgu. (2 CORIN. I, 9). Gure gorputz baruan osasun eta geizoen aziak, gelditu barik burukan dabiltz. Gure gorputz ustel-

koñ aonek, biziteko osoro beañezkoak dituan ainbeste zati daukaz; zati bakotxak bere zeregin berezi ta berarizkoa dauko; baña guztiak edo geyenak alkañi laguntzen dautse eta bata bestearen laguntasun barik, ezin ibili dira; augaitik bein baño sañiago, gorputzaren zati bat bakaña loak artzea, bizia galtzeko naiko izaten da, eta onelan, geroago Jaunagana biurtzeko asmoa euki daben asko, oñetarako asti barik il dira.

Baña astia eukiko dogula ba'genki be, Jaunak bere eskañ eta laguntasuna emon-go dauskuzala ¿nondik - eta zelan jakin geinke? Egiz, Jaun onak, geure betiko osasuna egiteko beañ dogun laguntasuna eskiñi ta agindu dausku; baña geure nagikeria dala-ta, asañatu ez dakigun, berak dei - egiten dauskunean, zoli, bizkoñ eta ardura andiz erantzun beañ dautsagu. Jaunaren laguntasun oñi zintzoro ta bizkoñ erantzuten dautsanak, eskañ eta laguntasun baña irabazi daroaz; baña jaramonik egiten ez dautsanak, arako otsein alpeñak entzun ebana, entzun beañ izan daike:

*nagi andi ori, emon dautsadan diru bakar ori be kendu egiozue ta amar daukazan aonentzat izan beite. (MATT. XXV, 26). Gaur Jaunaren deya entzun badagizue, zeuen biotz o'reik ez egizuez gogofu, diñausku Dabit igar'leak. (PSAL. XCIV, 26). Jaunaren deya entzun eta gor - egiten gayakozanean, berak eskar eta laguntasuna eskiñi ta biotzeko atepak saratzen dautsaguzan bakotxean, Jaun erukitsuari iri ta izeka egiten dautsagula dirudi. Jaun on eta eroapentsuak, urengoan be bere, esku erukio'ra luzatuko dauskula-ta, geure zori-onaren ardurea gerorako izten dogu. One-lan, Jauna guretzat on, erukio', samur eta esku-zabala dalako, geu txatxa', dolor eta eskar gaiztokoak izaten gayakoz. Baña berak gure osasuna egiteko autu dituan aldietan, beti ezetz erantzun badayogu, gero geuk nai dogunean bere eska'ra emongo ete-dausku? ¡Bai-leiteke, baña Jaunak olakorik iñoz be ez dausku agindu! Augaitik Jaunaren deya gaur badantzugu, geure biotz au ez dayogun gogofu; bestelan gero, geuk dei - egingo*



dautsagunean, Esakunetako idaztian diño-na, erantzun leikegu-ta: *deitu neutzuen, ez zenduen nai izan; nire dei ta onuak aintzat be ez zenduezan ar̄tu, nire agirikai jaramonik ez zeuntzen egin; orain neuk be zuen eriotzan baĕe egingo dot eta bilduĕa sar̄tzen dautzuen zoritxaĕ ori datoĕkizuenean, iri egingo dautzuet.* (PROV. I, 24).

Geroago, orain baño gogo geyago eukiko dozulakoan, Jaunagana biurtze ori uĕengorako itxiko ba'zendu, ames zoro ori burura ekaĕi ta ziri ori sar̄tu dautzun arerio gaiztoak, zure lepotik baĕe egingo leuke. Arerioak orixe nai dau, zuk ori egin ezkerro joko au irabaziko dautzula ondo daki-ta. Beste edozein gauzetan lez, aonetan be, itxiago ta nagiago izango zara, ta orain gaitz begitanduten yatzun arazo ori, uĕengoan gatxago irudituko yatzu. Lanean diaĕduala sendotzen dan gure gogo au, nagikerian gero baño gero indaĕge ta makalago egiten da. Orain osasun ona, aldi egokia ta Jaunaren eskaĕa ugari daukazuzanean, zure arerioak geyago egiten ba-

dautzu, nagikeriz bere menpean biziteko oitura txaña zeugandu daizunean, askozaz be ezezago zapalduko zaitu. Arerio garaitzalea aro ta azartuago izango da ta zu bildurri ta makalago egingo zara. Bizitza txañean luzaroago iraun eta onerako nar-da ta gaiztasun geyago, txañerako lera ta makurkeria andiagoa eukiko dozuz; griña gaiztoa indartsuago, ekandu txaña sendo-ago, zure adimena ilunago ta zure biotz ori gogoñago egingo yatzuz, eta Jaunagana itzultzeko, orain baño askozaz be eragozpen eta gaiztasun andiagoak idoroko dozuz. Arazo au, lasterago ta ezezago; beluago ta gatxago izaten da. Jaunagana biurte ori ez bekizu belutu: lasterago egin ezkerro, ba, ezeztasun geyago ta biotzeko bake ta atsegin andiagoa idoroko dozuz.

## II

Andra Maria, gauzarik txikienetan be, ez zan inoz Jaunagandik aldendu: augaitik guk lez, Jaunagana biurtu bearik ez eban inoz euki; baña bere biotz eta gogo donea

ornidu ta apañago egitearren, Jaunaren deyari beti bizkoñ eta zoli erantzun eutsan eta guri ikasbide edeñ-edeña emon euskun. Bein baño sañiago Jaunak, guri baño egikizun gatxagoak agindū eutsazan; baña Jaunaren agindū ta naya egiteko ez eban iñoz nagi-amañenik erakutsi. Jaunaren naya zoli-zoli egiteko beti gertu egon zan, eta goiko argi ta deyari, ufengorako itxi barik, azkañ eta bizkoñ jañaitu eutselako, luñean beste iñok ez lako ornitasuna ta zeruan beste iñok baño zorion andiagoa loñtu ta beragandu ebazan.

Ainbeste neke, izerdi ta odolez gure betiko osasuna egin zendun Jaun laztantsu ori, zeure oñetan auzpazturik, añen gure argaltasun au sendatu ta gure nagikeri au bizkoñtu daizuzala eskatzen dautzugu. Gure zoriona egiteko ardurea iñoz be itxi ez zendun Jaun oñek, bilduñ-ikaraz geure betiko osasun ori bilatu dagigun, geure lozoño aonetatik iritzañtu ta zeure eskañ eragileagaz lokatu ta igitu gagizuz. Eta zuk, ain arduratsua izan ziñan geure Ama agurñafi oñek, geyen yoakun arazo au

lenbailen asi, arduraz jaíaitu ta zorionez amaitu daikeguntzat, ofetarako beaí doguzan goitiko argi ta laguntasuna, aíen, jadetsi eiguzuz.

LOREA: SI VOCEM EJUS AUDIERITIS, NOLITE OBDURARE CORDA VESTRA. (PSAL. XCIV, 2). Jaunaren deya ba-dantzuzue, zeuen biotzak ez egizuez gogoítu.

ERABAGIA: NE TARDES CONVERTI AD DOMINUM, ET NE DIFFERAS DE DIE IN DIEM. (ECCLI. V, 9). Jaunagana biuítzea ez bekizu belutu ta egun batetik besterako ez egizu itxi.





# Zazpigarren egunerako irakurkizuna

**Gaizki bizi izan dana, gixitan ondo ilten da**

## I

Dongaro bizi ta gero, eriotz - aldian Jaunari dei-egiten dautsenak, asko izan oi dira; baña Jaunak argiro diño: *Niri, Jauna, Jauna, dei-egingo dausten guztiak ez dira zeruan sartuko.* (MATT. VII, 21). Bizitza dongea egiten daben asko, euren eriotz - aldian garbai edo damutasunaren ezaugarri bat-edo-beste emon aren; euren damutasun ori geyenetan azaletikoa bakarrik izaten da-ta, biotza aldatu ta Jaunagana biurtu barik ilten dira. Itxura baten zintzoro damutu dirala dirudi; baña itxura oneko eriotzea ta eriotz ona, gauza bi dira. Itxurarik onenagaz eriotzarik txafena egin leike, ta Jaunagana biurtze ori azkenerako itxi daben askok, itxurarik ederenagaz, zorigaiztoko eriotzea bein baño sañiago egin daroe.

Egi utsa dan Jainkoak esan dausku: *gaiztoen eriotzea, guztiz txafa; euren azkena, bařendiko sua, iluntasun eta atsekabea.* (ECCLI. XXI, 11); *donge ořein eřukari; ilgo zarenean, zuen zorigeztoa andia izango da* (Ibi. XX, 12); *deituko daustazue ta ez dautzuet entzungo* (PROV. I, 28); *bilatuko nozue ta ez nozue idoroko* (JOAN, VII, 36) *ta zeuen dongakeri ořeitan ilgo zarie* (JOAN, VIII, 21). Jaunak berak esan eban: *zeruko bidea bedara da ta ango atea estua.* (MATTH. VII, 14); baņa norberak nai daun lez bizi ta gero, azken-aldian; ene Jaun ori, eřuki zakidaz, bein edo biritan esatea naiko ba'litz, zeruko bide ori nasaya ta ate ori zabal-zabala izango litzakez. Gure eretxiak baño Eleizako irakasle ta gurasoenak zuzenagoak đira, eta irakasle oneik argiro diñauskue geyenetan eriotzea bizitzaren antzekoa izaten dala, ta dongaro bizi izan diranak, azkenean be, beař dan lez damutu barik eta dongaro ilten dirala.

Baņa Jaunak, damutzen diran guztiai parkatzen dautse. Ori esaten da ta da-

mutasun ori zintzoa izan ezker, egia be bai-da: baña egikizun au azken - aldirarte luzatzen dabenak ¿zintzoro damutzen ete-dira? Inoz bai; baña saritan ezetz dirudi. ¿Noz damutzen dira? ¡Berandutxu, euren damutasun ori zintzo ala ustela dan ezin jakin leikenean! Austin deunak diñauskun au entzun egizu: *Gaiztakeri geyago egin ezin zeinkenean, damutzen ba - zara, zeurorek gaiztakeriak itxi dozuzala ba-ño eurak zeu itxi zaituela obeto dirudi, azken-aldian be garbai edo damutasuna inoz izaten da; au inok ezin ukatu daike; baña orelan damutzen danak, bere eru ta obenen parkamena lořtuko daula, bayetz ezin esan geinke; damutasuna azken - aldian be egon leike diñogu; baña ziuřtasunik ez daukagu. ¿Zelan damutzen dira? Geizoaren damutasuna, bera be geizo-makala izan oi da: egindako gaiztakeriak ariñeketan eta edozelan autořtzen dira: bařeneko garbai zintzoa ařtze-ko geizoaren gogoa estu, urduri ta lařiegi egoten da; augaitik, astiro ta ondo egin beař litzakezan gauza andi ořeik, ito-itoka*

ta arapaka egiten dira ta onelan egiten diran gauzak, gatz gitxi eukiten dabela orok dakigu.

Ori orélan da: baña oraitik be, txarito bizi izan diran asko, ondo ilten dirala dirudi. Bear ba-da, ori esango daustazu: baña Austin deunak oferi erantzuten dautsana be entzun egizu: *Azala bakarik dakuzun lez, baru ta barena ba'zenkuz*, diño Eleizako irakasle andi onek — *on-ona diruditzun eriotz ori, txar eta dongea izan dala be esango zeunke*. Itxura oneko eriotzea ta eriotz ona gauza bat ba'lira, ondo ilten diranak asko baño geyago izango litzakez; baña itxura utsak ez dau egiten gauzea ta safi askotan itxurarik edereña daukana, donge ta gaiztoena izan oi da. Eriotzeari bere itxura ona kendu ez aren, gure arerioari bereagaz urten ezkerro, ardua gitxi dautso, eta eriotza txara itxura ederez apaindu al ba'leu, gu bere sarietan arapatzearen, poz-pozik egingo leuke.

Gure Jauna kurutzean egoala, damutu ta beragana biurtu zan lapura ez egidazu aitatu. Ori Jaunaren erukiak egindako



alatz edo miraria da; baña guretzat jañai-bide ezin izan daiteke. Bat izan zan—diño Gergori deunak—bat, zeure itxaropena iñoz be galdu ez daizun; baña bat ba-kañik, uste lañegirik euki ez daizun.

Dongaro bizi añen, azken-aldian damu-tuko dirala, eriotz ona egin eta betiko zoriona loñtuko dabela, gazte zoro askok uste izaten dabe; baña uste okeñ oñegaz bizi baño Eleizako gurasoen eretxi zuzen au geure gogoan josi osasunñañago izan-go yaku: *Txañto bizi diranak, gitxitan ondo ilten dira*. Eleizako irakasleak ori diño e ta ames zoroakin bizi ta azkenean galdu baño, gaur - ganik geure bizitzea zuzendu obe izango dogu.

## II

Andra Mariaren eriotzea guztiz zorion-tsua izan zala bai-dakizu; baña bere bizitzea be orbange ta garbi-garbia izan zala ¿nok ez daki? Ama samuñ aonen bizitz garbi-jainkozkoa ta bere eriotz bakez eta atsegiñez beterikoa gomutau egizuz eta eriotzeak bizitzeari darantzutsola, bizitze-

aren antzeko izaten dala autoñtu beaño dozu. Txaño bizi izan dana, baratxe ondo ilten da: baña bizitz zuzen, oñbange ta garbia egin dauna be, nekez txaño ilgo da. Bein baten, gure Jaunak gauza ari-gaiaak esaten iñarduala, berari entzuten egoan emakume batek diadañ egin eban, esaten: *¡Zorionekoa zu, Jaun ori, eroan zinduzan sabela ta zorionekoak zuri ugatzta emon eutzuen bulañak.* (LUC. XI, 27). Eta Jaunak erantzun eutsan: *zoriontsu-agoak Jainkoaren itza entzun eta jagoten dabenak.* (IB. 28). Esan nai eutsan: Egiz, nire Ama, ni soñtu nindualako ta niri ugatzta emon eustalako, zoriontsua da; baña Jainkoaren itza entzun eta jagoten daulako, Jainkoaren naya zintzoro bete ta bizitz eñugabea egiten daulako, askozaz be zoriontsuago izango da. Au aonelan izanik, gure Ama laztan oñen eriotz zoriontsua, bere bizitz eñugabearen saria izan zala argiro dakuzu eta augaitik bere eriotzaren antzeko eriotz on eta atsegintsua jadetsi nai ba-dozu, berearen antzeko bizitz zuzen eta eñugabea egiteko asmu sendoa be añtu egizu.

Gure bizitzearen ispĭlu ta eredu zar-  
ean Jaun oĕrek, eriotz baketsu ta on-  
ona egiteko bidea argiro erakutsi eiguzu  
eta bide ori iĭnoz ausi barik, beti zuzen  
aũera joan gaitezán, gure gaurko asmo  
onak zeure indaĕragaz sendatũ egizuz. Eta  
zuk, geure Ama laztan oĕrek, zeure eriotz  
zoriontsu aretan euki zendun poz eta atse-  
gin andiagaitik, guri zeure seme - alaba  
gaizo aonei be, itxaropen edeĕrez beteriko  
eriotz on-ona loĕtu eiguzu.

LOREA. VIX BENE MORITUR, QUI MALE VIXE-  
RIT. (S. AUG.) Gitxitan ondo ilten da, don-  
garo bizi izan danik.

ERABAGIA: STUDE NUNC TALITER VIVERE  
UT IN HORA MORTIS VALEAS POTIUS GAUDERE  
QUAM TIMERE (IMIT. C. I, CAP. 23). Eriotz  
aldian bildũ baĕno poz geyago izango do-  
zun eraz biziteko alegin orain egizu.





## Zortzigaren egunerako irakurkizuna

**Ondo il nai dauna, bizitzan eriotzarako gertu bedi.**

### I

Eriotz onak betikotasun zoriontsua bere ondoren dakañ eta zeruko atea edegiten dauskun giltza dirudi: augaitik, bizitz zuzen eta erugabea egin daben asko ta asko, eriotzea ur ikusi aŕen, beste enparauak lez ez dira ilundu ta lañitu, alaitu ta poztu baño, ta gizaseme geyenentzat ikarakoñ eta bilduñgañi dan eriotz baltz ori, aizkiderik onena lez, abegi ta txerarik edeñen-agaz añtu dabe. Eriotzea aizkide lez añtu al-izateko ¿zer egin beañ ete - da? Oñetarako, eriotzeak nai ta ez kenduko dauskuzan gauzetatik, orain geure biotza azkatu beañ dogu; eriotz-aldian, gura - nai - gura ez, itxi beañko doguzan gauza oñeik, orain, geure aukeraz, itxiko ba'genduz, eriotzeak gitxi ikaratuko ginñukez.

¿Eriotz zoriontsua euki nai zeunke? — Egin dozuzan gaiztakeriakin zeure gogorari ezañi dautsazuzan orbanak garbitu egizuz: lenen egin bea' dozun lana, orixe da. Zeure biotz ba'neneko zokondoak arduraz arakaturik, egindako gaiztakeriak gomutara eka'rteko alegin egizu: aonen u'engo, zeure ba'nean ga'bai ta damutasuna so'rtu daiketuzen egi osasunko'ak astiro - astiro auzna'rtu, edo obeto esateko, gogozna'rtu egizuz. Alde batetik, zeure ogen eta dongakeri o'rein samalda izuga'ria ta euren gaiztakeri ta ezaintasuna, bestetik laster'txe leto'rkizun eriotz, epainkunde ta ba'endiko sua: batetik, Jaun onak egin dautzuzan e'ruki ta mesede andiak, bestetik zeuk berari egin dautsazuzan laido ta ira'nak: batetik Jaunaren zugazko ontasun eta maitasuna, bestetik zure beraganako dolo'keri ta eska' gaiztoa gomutau ta auzna'rtu egizuz: zeure dongakeri izuga'riakin lotsaturik, Jaunaren au'rean auzpaztu zaite ta biotz-biotzez esan egiozu: *¡E'ruki zakidaz, ene Jaun ori, nitzaz obendi eska' gaiztoko aonegaz e'ruki!* (Luc. XVIII, 13). Eta

Jaunagazko maitasun gařetan zeure ogenak eře ta zeure ořbanak garbitu arře, ez zaitekez luřetik jagi. Ořelan gertuta, zeure eřu ta ogenak zintzoro autořtu egizuz eta Jaun onak bere odolagaz garbituko zaitu ta zure gogo ori bere eskařagaz jantzi ta apainduko dautzu.

¿Zer besterik egin beař ete-da? Zeure biotz ori bařiro ořbanez loitu ta zikindu ez dakizun, zeure aragi biuřia besau ta ezi beař dozu. Gure aragi ta gogoaren arřean guda ta buřuka gogořa izaten dala, geuk ezpa'genki be, deun Paulo bialduak argiro diņosku. *Aragia gure gogoaren auřka jagiten da.* (GALAT. V, 17) ta bere gurari zikiņak ase ta betetan itxi ba-dayogu, bere menpeko ta jopu eřukaři egingo gaitu ta gaiztakeririk-gaizkeri, geure galdumendira garoakez. Deun Paulo bialduak diņoskun au gogoan arřtu egizu: *Aragi-arauz biziten ba-zare, ilgo zare; baņa gogoaren indař-agaz aragiaren egitade, zalekeri ta griņak ezi ta irato ba-daizuez, biziko zare.* (ROM. VIII, 1-3). Aragi-arauz bizi danak, betiko eriotzea ta gogo-arauz bizi danak,

betiko bizitzea idoroko daula esan nai dausku: augaitik, zeure gogoari dagokion bizitz betikoña loitu nai ba-dozu aragiaren egitade zikiñak itxi, bere zalekeriak irato ta bere griñak ezi egizuz.

Aragiaren egitade gaiztoetatik iges-egiteko ardurea ez litzakegu naiko izango: gugan geure gogoa nagosi ta aragia bere menpeko - jopu ezpa'lira, aragi atsegin-zaleak maite dituan egitada donge oñeitarara nañaztuko gindukez. Aragiaren gurari, igikun eta zirkiñak, indar artu-ta gero, nekezago besau ta eziten dira; lenengotxuan, askozaz be eñezago: augaitik, aragiaren zirkin eta igikun dongeak eziteko beste alegin eta geyago, bere makuñkeri, lera ta griña okeñak itoteko egin beañ geunke. Griña donge oñei indar eta sua emon leikeoen gauzak, kendu egiezuz ta makalduko dabezanak, añerazo: aonelan, aragi ustelkoña zeure gogoaren menpeko-jopu ta gogo betikoña, aragiaren nagosi ta agintari egingo dozuz eta Jaunak, buñuka onetan garaitzale izan diranentzat daukan betiko bizitz zoriontsua, emongo dautzu.

Eriotz on eta zoriontsua eukiteko, irugaŕen egin beaŕ doguna, auxe da: gizaŕteko zorakeriak itxi ta Jainkoarentzat bizi. Gizon mundu - zalien eretxiak eta gure Jaunarenak alkaŕen auŕka dagozala ondo dakigu. (JOAN. XIV, 17): geure Jainkoa ta munduko gauzak batera ezin maitatu geinkezala, Jaunak berak argiro diñausku (MATT. VI, 24): mundutaŕak, bide on eta zuzenetik dabilzanai, iŕi, baŕe ta izeka egiten dautsela, iñok esan ez aŕen be, geuk geronek dakuskegu: onelan ba, Jainkoarentzat biziko ba-gara, nai-ta-ez, mundutaŕen eretxi ta maitasun okeŕak itxi ta euren iŕi ta izekak menpetu ta ostikopian zapaldu beaŕ doguz. Ori zelan egin geinken Jaunaren ikasle maiteak irakasten dausku. *Auxe da—diño—mundua garaitu eban garaitza; geure ziñesmena.* (JOAN V, 4). Eta egiz, zeure ziñeskintza oŕek dirakatzun guzti-guztia, biotzez zintzoro ziñetsi ba-dagizu, mundutaŕen eretxi okeŕak zeure burutik eŕez uŕinduko dozuz; zeure ziñesmen oŕi egitade ta ekanduetan argi-eragiten ba-dautsazu, munduko gauza



ta atsegiñen maitasun ustelari zeure biotze-ko afeak ezez saratuko dautsezuz: zeure ziñesmen ori gizonen aurrean agoz sendoro autoñtu ba-dagizu, gaiztoen iri ta izekak ostikopean zapalduko dozuz eta Jesu-Kristo zeure Jaunak, azkenengo egun-ean, bere Aitaren aurrean autoñtuko zaitu. (MATT. X, 32). Zeure biotzean zalekeri okeñen bat erne ez dakizun, mundutañakin añtu-emon lañegirik ez egizu euki: al dozun giñoan, euren aizkitasunetik iges egizu, eta zeure Jaunagaz artu - emon maitakoñ eta kutunagoa eukiko dozu.

Eriotzarako gerkunderik onena, auxeda: egindako gaiztakeri ta ogenen orbanak garbitu ta bañiro ez egiteko, aragiaren griña okeñak ezi, mundu - zalekeriañ aguf egin eta Jainkoarentzat bizi. Au egin ezkerro, eriotzea uf daukazula diñotzuenai, Dabit igañleagaz erantzun al - izango dautsezu: *Diñostazuen gauza oñegaz poz-tu naz: Jaunaren etxera joango gara.* (PSAL. CXX, 1). Eta eiztarien lakiriotik igesi dan txoria lez, zure gogo ori be, poz-pozik, zeruruntz egaiz igongo da.

## II

Andra Maria, bere eriotz - ostean, soin eta gogo (gorputz eta arima) zerura jasoan izan zala bai-dakizu: baña ori zorion andi-andi ori, bere bizitz garbi-garbiagaz irabazi ebala be jakin eta gomutau bea zeunke. Orbange soñtu zan emakume zoragarí onek, obenik ezeze oben-orantzík be ez eban euki. Ori ta guzti be, eruki barik bere gorputza ezi ta ilduratu eban eta mundu - zorotik be iges - egin eban ardurarik andienagaz. Orantza daukan orea jagiten dan lez, oben-orantza daukan gure aragi au be jagi egiten da. Oben - orantz ori, Andra Mariak izan ezik, beste Adanen seme - alaba guztiok geure aragian daroagu: augaitik, bein baño sañiago, geuk nai ez dogula be, aragia gogoaren aurka jagiten da ta gaiztakerirantz bultzegiten dausku. Aragi ta gogoaren arteko auska edo buruka ori, geure irudimen eta zentzunak iziotu daikie. Irudimenak, edonondik eta edozelan ibiltan laketu ezkeron, aragia igitu ta odola irakiten imiñiko leus-

kizu: zentzunak be, arduraz zaindu ezik, griña ta gurari gaiztoen gaña biztuten daun sugaña, or-emen batuko dabe, ta gero, zeure bañuko gañ lizun ori itzaliten neke ta loñik asko izango zeunke. Andra Maria-gandik ikasi egizu. Ama garbi ta laztan-gaři onek, lenengo gurasoen obenagaz kutsutu ta orbandu ez zalako, guk daukaguzan lako añisku edo galtzoririk ez eukan; baña ori ta guzti be, ardura andiz bere burua ezi ta añiskurik txikienetatik be, alde-egiten eban. Berari jañaitu egiozu ta zeure irudimen eta zentzun oñeik, arduraz zaindu egizuz.

Jaun maitagaři ori, geure etsai gaiztoa-kin daukagun buñuka gañatz onetan lagun zakiguz, eta geure orbanak garbitu, geure griñak menbetu, munduaren lakirioak uratu ta zeugana, gure betiko osasun eta bizitz zarean Jaun oñegana, joateko beañ dogun goiko indañ eta eskaña, esku zaba-lez emon eiguzuz. Eta zuk, geure Ama laztan oñek, geure eskari motel oneik osasungari izan dakiguzan, zeure eskuz Goiko - Jaunari aurfkeztu egiozuz.

LOREA: IN MANUS TUAS, DOMINE, COMMENDO SPIRITUM MEUM. (PSAL. XXX, 6).  
Neure gogo au, ene Jaun ona, zeure ardurapean damint (iminten dot).

ERABAGIA: ET VOS SIMILES HOMINIBUS EXPECTANTIBUS DOMINUM SUUM... UT CUM VENERIT ET PULSAVERIT, CONFESTIM APERIANT EI. (LUC. XII, 36). Ugazabari itxaiten dagozan moñoyak lez, ernai egon zaitzeze, datoñkeanean eta atea jo dagianean, bertatik idegi dayozuen.



---



# Bederatzigaren egunerako irakurkizuna

---

## Bizfaldi labur' aonen ostean, betikotasuna

### I

Oraingo bizitz labur' au, bizitz betikoña jadesteko, Jaunak emon dausku. Emen biztoki iraunkoñik ez daukagu—diño deun Paul bialduak—eta gerokoaren bila gabiltz (HEBR. XIII, 14). Gure gorputzari berez bizitz aldikoña dagokio; baña gure gogo bikain oni, bere izatez, bizitz betikoa. Eriotzeagaz guztiz amaitu ta ezereztuko dirala uste daben gizasemeak, zentzun gixi dauke: Ezerezetik jayo giñan eta laster, izan ezpa - giña lez, izango gara, (SAP. II, 1). Batzuk ori esan daroe: baña ofetan okeñ dagoz. Gerokoaren bildur diralako-edo, abereak lez izan nai leukie: baña abere ta gizonaren bitartean bide luzea ta alde andia dagola edonok dakuske. Gizonak bere zeregiñetan auferapen andiak egiten ditu; abereak euren egikizun-

etan iñoz ez dira auferatu. Gizañtean norbaitek gauza bañiren bat asmaten dauneko, asmu bañi ori onurakoña ba-da, beste enparauak be beingoan ikasi ta erabilten dabe: abereak, gauza bañirik asmaten ez dakie ta batzuk besteakandik be ez dabe ezer ikasten, euren eguneroko zeregiñak, orain beñogeñ gizaldi egiten ebezan lez, gaur egunean be bañdin-bañdin egiten dabez. Gizonak gauza batzuk besteakin alkañtzen daki, batzuk bestietarako bide dirala ondo ezagutzen dau - ta: abereak olakorik egiten ez dakie, gauzak alkañekin dauken zer-ikusi ori ezagutzen ez dabelako. Geure etxietako sukaldean polito berotzen diran abereak bai-dazauguz; otz dagoanean suaren berotze oñegaz atsegin añtzen dabela be bai - dakigu; baña sua itzaltzeko zorian dagola-ta, ilintiak alkañganatzen edo sukaldeko eguña suari ezañten iñoz be ez doguz ikusi.

Geure gogoña ekañ, atalgabea da, ta abereak ez daukezan adimen eta aukeramenña daukaguz. Gure gogoña ekañ edo atalgabea dalako, ataldun *bazkaña* dan

gure soña lez, ezin banatu, zatitu ta ustel-  
du daiteke. Gure adimenak gorpuzdun  
gauzak be gogoratu ta gorputz bakoak lez  
uleritzen ditu, ta adimenaren egikera onek,  
gure gogoa, gorputza itxita gero be, bizi  
daitekela argiro adierazten dausku. Auke-  
ramenaren bidez, gauzak egin nai egin  
barik izteko jaurgo ta jabetasun osoa,  
gauza onak nai txararak egiteko almena  
daukagu: nai onak, nai txararak nai dogu-  
lako egiten doguz; nai ezpa'gendu, ez  
geunkez egingo. Augaitik, gizona bere  
egitaden jaube izaten da, eta bere egita-  
den jaube dalako, onakin saria, txarakin  
zigoña irabazten dau. Beste aldetik, Jain-  
koa zuzen-zuzena da: zuzena izateko, ba-  
kotxari berea emon bear dautso: baña bi-  
zitz onetan egitade on asko sari barik eta  
donge asko zigoñ barik gelditzen dirala  
orok dakusgu: augaitik okeñ dagozan  
gauza oñeik zuzentzeko, bizitz aonen os-  
tean beste bizitza bat egotea guztiz arira  
datoñen gauzea da. Eta egin - egiñean,  
geure ziñeskintzak irakasten dauskuna,  
orixe da: *okeñ eta gaiytoak betiko oña-*

*zera, on eta zuzenak betiko bizitzara joango dirala. (MATT. XXV, 46).*

Bizitz labur onen ostean, nai-ta-ez, betikotasunera joan bear dogu: baña betikotasun ori guztioentzat bañdiña ez da izango; batzuentzat zoriontsua ta bestientzat zorigeztokoa izango da. Zeuk nai dozuna autetsi ta artzeko almen eta eskubidea, Jaunak emon dautzu. (ECCLI. XV, 14). Betikotasun zoriontsuan amaibako ogasun eta atsegiñak, betiko atsedeen, betiko aintza, betiko poz eta bizia daukakezuz; betikotasun zorigeztokoan, ostera, amaibako neke-miñak, betiko negar, betiko lotsari, betiko oñaze, betiko iluntasun eta eriotz baltza idoroko zeunkez. Zeuk nayan dozuna, autetsi zeinke: Jaunaren laguntasunagaz betikotasun zoriontsu oren jabe egitea zeure eskuan daukazu.

Bakotxari bere bizikera ta egitadakin irabazi dauna, Jaunak emongo dautso (MATT. XV, 27); gizon bakotxak erein dauna uztaroan batuko daula Deun Paulo, Jaunaren bialduak, argiro diño. (GAL. VI, 8). Geure gogamen, gurari ta egitadak dira



orain ereiten doguzan aziak: erein eta gero; saġitan zer erein dogun be aiztu egiten yaku: baġa Goiko Jaunari ezertxu be ez yako aiztuten eta guretzat batzeko aldia datoġkenean, bizitzan ereindako gauza guzti oġeik aurkituko doguz. *Gizon bakotxak*—diġo Paulo bialduak—*ereiten dau-na, orixe batuko dau. Eta onelan, aragiarentzat ereiten daunak, aragiagandik usteltasuna aġtuko dau; baġa gogoarentzat ereiten daunak, gogoagandik betiko bizia eskuratuko dau. Ez gaizan, ba, on-egiten azpertu; gogaitu barik badaġaigu, uztaroan geure lan oġen ale, arnari ta saria batuko doguz. (GAL. VI, 8-9). Eta beste toki baten: *Bakotxak bere lanaren neġian, saria be aġtuko dau. (I CORIN. II, 8)*. Au onelan izanik, zeure bizitzan azi ona ereiteko ardurea aġtu egizu; lan oġi, gogaitu barik, ekiozu; ta eriotz ostean orain ereindako azi on oġein arnari gozoa ta oraingo lan oġen betiko saria aurkituko dozuz.*

Gure bizitzako aldi au, aldi labuġa da. Mendian bera datoġzan ibayak, iġoz gel-

ditu ta atzera itzuli barik, itxasora joten daben lez, gure bizitzako aldi au be, geyago atzera ez etor'teko, betiraungo itxasora bizko' - bizko' doa. Orduak ordua, egunak gaba, gabak eguna bultzau daroa; ilak eta urteak beingoan igazten dira ta une bakotxean betikotasunari u'feratzen gayakoz. *Gizona, lorea lez, erne ta laster'txe tximu'rtzen da ta, gerizea baizen arin, igazi doa.* (JOB. XIV, 2). Baña oraingo bizitz au labu'ra dan lez, gerokoa luzeluzeta amaibakoa izango da. Betikotasunak ez amairik ez aldakuntzarik euki daike. Zeruko zoriontsuen zorion ede'ra; noz arte iraungo ete-da? ¡Beti! Eta ba'rendiko zorigeztokoen zoritxa'ra? ¡Au be beti-beti! Jainkoaren aizkidiak zeruan daukezan atsegin, zorion, alaitasun eta pozak ¿noz amaituko ete - dira? ¡ñoz bez! Eta ba'rendian dagozan zorigeztokoen atsekabe, neke - min eta oñazeak? ¡ñoz bez! Lu'eko atsegiña une batekoa, gaiztokiko atsekabea beti-betiko: lu'eko nekea, labu'ra, zeruko zoriona beti - betiko dala

sari gomutau eta astiro gozartu (gogoz-  
nartu egizu.

## II

Andra Mariak ez eban inoz bere biotz eta maitasuna lurreko gauzetan imini: goiko zorion betikoaren oroipen eta gomutea izan zan bere gogoaren eguneroko jakia. Gomuta osasunari oregaz bere gogoa alikatu ta indartzen eban eta, augaitik, inoz atzera egin barik, bere zorion betikora bizkor eta zuzen joan zan. Andra agunari onek zeruetan daukan zorion andi bardingabea, irabazi barik Jaunak emon eutsala uste ba'zendu, oke' zengokez. Jaunak *bakotxari bere lanaren neuriz, zoriona emoten dautso* (I COR. II, 8) eta augaitik, Andra Mariak bere zorion guztiguztia bere lan, zintzotasun eta aleginagaz irabazi ebala zinetsi bea' dogu. Zerbait egitera zoazanean, zeure buruari itandu egiozu: orain egitera noan egikizun auneure zorion ala zoritxarako izango ete-yat? Zeure zorionerako izango dala deritxazun egikizuna, alpekeri barik egi-

kezu; baña zorion ori galerazo eta zorixañera zeroakezanik, ez egizu egin. Gure bizitz labur au onelako ardureagaz zuzenduko ba'gendu, luze asko izango litzakegu. Nora-edo-ara joan nai dogunean, biderik laburaren bila ibilten gara, ta betiko zorionera joateko ¿bide labur baño luzea obe dala uste izango ete-dogu? Ori uste izatea, zorakeri andia litzake. Bere zoriona lasteregi loñtu daula-ta, iñoñ ez da iñoñ atsekabetu. Oraingo bizitz au, betiko bizitz zoriontsurako bide izan bekigu, ta geure zorion ori lasterago loñtu ezkerro, gure atsegin eta poza be andiangoak izango dira.

Bizitz labur au betiko bizitz zoriontsua jadesteko emon zeunskun Aita samur ori: gure egun eta urte guztien jabe zarean Goiko Jaun ori, geure biotzen jabe egin zakiguz eta zeure beso indarñtsu oñegaz, geure betiko zorionerantz zuzendu gaizuz. Eta zuk, Ama erukioñ eta laztan oñek, geure bidean aurkitu geinkezan eragozpenak kendu ta geure asmo onak, goiko laguntasunagaz, sendatu eiguzuz.

LOREA: IBIT HOMO IN DOMUM ÆTERNITATIS SUÆ. (ECCLI. XII, 5). Gizona betikotasun-etxera joango da.

ERABAGIA: NON HABEMUS HIC MANENTEM CIVITATEM SED FUTURAM INQUIRIMUS. (HEB. XIII, 14). Deun Paulo bialduak diñon au sañi gomutau egizu: Emen biz-toki iraunkoñik ez daukagu ta gerokoaren bila gabiltz.





## Amargaren egunerako irakurkizuna

### Andra Maria zerurako bide

#### I

Gure Jaunak bere ikaslai inotsen bein: *Nire Aita-Goikoaren etxean biztoki asko dagoz. Zuentzat biztokia gertutera noa. Joan eta zeuen biztoki ori gertu izango dodanean, bañero etorriko nayatzue ta neugaz eroango zaituet, neu nagon lekuan zuek be egon zaitezzen. Eta ni nora noan bai-dakizue ta bidea be bai-dazazue. Eta Tomas'ek erantzun eutsan: Jaun ori, nora zoazen ez dakigu ta bidea ¿zelan dazaukegu? Eta Jaunak diñotso: Bidea... Neu naz; nire bidez izan ezik, nire Aitagana inor be ez datoñ.* (JOAN, XIV, 2 ET SEQ.) Eta egiz gure zerurako bidea, Jesu - Kristo geure Jauna da. Jainko Semeak bere gizakundean, gure izate argal au aritu ta jantzi eban eta geure betiko zoriona irabazteko egin bea izango

gendun guztia ta geyago, Jaun orek gure aurretik egin eban, bere onatzai jaraituagaz beste barik, geure atsedeen eta zoriontokira eldu gintezan. Augaitik Jaunak beste bein esan eban: *Ikasbidea emon dautzuet, neuk egin dodan lez zuek be egin daizuen.* (JOAN, XIII, 25).

Gure gorputz au onakin ibili doa; baña gogoa, bere oldozpen, gurari ta egitadak darabile: augaitik gure gogamen, asmo, gurari ta egitadak Jaunaren asmo, gurari ta egitaden antza daukenean, zeruko bidetik gabiltzala, zalantza barik ziñetsi geinke. Baña Andra Maria Jesu - Kristo bere Seme ta gure Jaunaren irudi bizia da. Orban bako ispilu garbian zeure antz eta irudia ikusten dozun baizen ederito, Ama orbange ta garbi onegan bere Semearen irudi edera ikusi zeinke. Onelan, Amari jaraituagaz, Semeari jaraitzen dautsazu: Amaren antza artuagaz, bere Seme ta zeure Jaunaren antza be artuko dozu: augaitik Andra Maria guretzat zeruko bideda ondo ta zuzen diñogu.

Jaunak esan euskun: *zuen zeruko Aita,*

ontasunean órnidua dan lez, zuek be ór-  
niduta on - onak izan zaitez. (MATT.  
V, 48); baña órniduak izateko ¿zer egin  
bea' ete-dogu? Órniduak izateko, geure  
Jaunak itzez eta egitez irakatsi euskuzan  
onoimenak geugandu ta geuretu bea' do-  
guz. Jesu-Kristo da, ba, guk antza'itu ta  
geure ba'enean irafi bea' dogun eredu  
ede'ra; baña Jainko - Gizona baño beste  
eredurik ezpa'geunko, eredu ori guretat  
goregi dagola ¿ez ete - gendun esango?  
Jainko - Gizonaren antza a'rtzea guretat  
gatxegi dala-ta, egikizun ori ¿ez ete-gen-  
dun bertanbera itxiko? Onen bildu'ez-edo,  
gure Jaun e'rukio'ak, guztiok ja'aitu ta  
antza'itu daikegun beste eredu bat geure  
begien au'ean imi'ni dausku: Andra Maria,  
geure Ama samu'ra. Jainkoa baño berago  
idoro daikegun eredurik ede'ena, auxe  
da. Jesu-Kristok irakatsi euskuzan onoi-  
men guztiak, eredu bikain onetan argi  
egiten dabe, ta geure Ama samu' ori, geu  
lez, Adan'en alaba izan zalako, bere onoi-  
men o'feik ezin geugandu geinkezala be  
ezin erantzun geinke.



Beste deunak (santuak) be, gure eredu ta jañabide izan daitekez; baña, oraitik be, Andra Maria ta beste deunen artean alde andiak dagoz. Beste santuak onoi-men guztietan barik, euretaiko bat edo batzuetan bakañik bikañak izan dira: batzak apaltasuna, besteak menpetasuna, arek otzantasuna, onek Jauna edo geideagazko maitasuna irakatsi dauskue; baña Maria, onoi-men guzti-guztietan nagosi izan da. Beste deun oréik euren mendu berezia dauke: euren egitadetan bein baño sañiago uts be egin dabe ta, augaitik, gauza guztietan ez dira jañabide; baña Andra Mariak utsik txikañenik be ez eban iñoz egin eta bere onoi-menak mota ta orbanik ez dauke. Beste deunak, guztientzat eredu egokiak ez dira beti izaten; batzuk gaztientzat, besteak zañentzat, batzuk aberatzentzat, besteak txiroentzat, onek eskonduentzat, aek eskongientzat, eredu obe ta egokiagoak izaten dira; baña Andra Maria, nai eskondu, nai eskonge, nai aberatz, nai landeñ, nai gazte, nai zañentzat, jañabide ta eredurik egoki ta one-

na da: augaitik Eleizeak, oñnitasunaren erpiñean dagoan Ama samur' ori, geure begi-aufean iminirik, guztioi diñosku: ora or', zuen eredu oso-osoa, zeuen jarabide uren eta gorengoa. Ama garbi ta laztan oñen seme-alaba zintzoak izan nai ba - dozue, bere antzeko izan zaitezten inoz gogaitu barik, lan egizue.

## II

Jaunak irakatsi euskuzan onoinenakin, bere gogo ta biotza jantzi ta apaindu dagizana, ontasunean oñnidua izango da: baña Jaunak agintzen dauskun oñnitasun ori jadesteko, geure alegiñez gañera, bere eskar' eta laguntasuna be bear' doguz. Eta ori, goiko urgazpen eta laguntza ori eskuratzeko, gure laguntzale ta bitartekorik onena, geure eredu dan Ama laztan ori izango yaku. Jainko biziaren Ama ta geure Ama samura dala bai dakizu. Jaunaren Ama dalako, altsu-altsua da ta goiko ogasun eta aberaski guztiak bere eskuan daukoz: gure Ama be bai-dalako, guretzat samur' eta erukioña da ta bere seme-alaba

gaizo aoni laguntzea, atsegin izaten yako. Zeure zeruko Ama maite oġegan dakuzuzan onoimenak zeugandu ta zeuretuteko asmua arġtu egizu: bere egape gozoan zeure buru ori ipiġirik, bere oġatzai jaġaitzeko beaġ dozun laguntasuna, biotz - biotzez eskatu egiozu, ta bere antzeko seme-alabakin poztu ta atsegintzen dan Ama samuġ oġek, beaġ dozun laguntza ori oparo emongo dautzu. Andra Maria'ren antza daukanak, Jesu - Kristo'ren antza be baidauko: Maria'ri jaġaitzen dautsanak, Jesu-Kristo'ri daġayo: baġa gure Jauna, berak esan eban lez, zeruko bidea da: augaitik, Maria'ren onoimenak beraganduten diaġduana, zeruko bidetik doala ondo ta zuzen diġogu.


Zeruko ate ta arako bide zayakuzan Ama laztan ori, zeure seme - alaba gaizo eġukaġiok esku arġtean darabilgun arazo andi onetan, geure Irakasle ta Laguntzaġe izan zakiguz: zeure onoimen edeaġak ondo ezagutzeko argia ta euren antzekoz geure gogo-biotzak oġnidu ta apainduteko beaġ dogun eskaġ zerutaġa emon eiguzu. Zeure

oñatzai jaraitzeko asmua artu dogu: baña argal eta aldako' utsak gara-ta, zeuk Ama e'ukitsu o'rek, geure asmu oneitan sendatu gaizuz.

LOREA: QUI ME INVENERIT, INVENIET VITAM. (PROV. VIII, 35). Nigana dato'kenak, bizia idoroko dau.

ERABAGIA: INSPICE ET FAC SEQUUNDUM EXEMPLAR. (EXOD. XXV, 40). Andra Maria'ri begiratu egiozu, eta zeure eredu o'rek irakasten dautzuna egikezu.





## Amaikagaren eguneroko irakurkizuna

---

**Andra Maria, ziñesmenaren eredu nagosia**

### I

Geure zeruko Ama laztanak onoimen guztiak irakatsi daukuz. Onoimen oñeik izatezkoak eta izatez-goitikoak izan daitezkez. Izatezkoak geure alegin eta indar utsez be loñtu daikeguz; baña izatez - goitikoak ez. Lenengo aek eurai dagokiezan egitade onetarako eñeztasuna emoten dauskue; bigañen oneik, almena ta eñeztasuna. Izatezko onoimenak eñeztasuna bakañik emoten dauskuelako, eurai dago-kiezan egitada onak, nekezago bai, baña onoimen oñeik barik be egin daikeguz. Izatez-goitikoak, ostera, eñeztasun auñetik, almena emoten dauskue eta almen barik, iñok be egitaderik ezin egin daitekelako, onetariko onoimenik ez daukanak, eurai dagokien egitaderik be ezin egin leike.

Jainkoak iragari ta geure Ama Eleizeak irakasten dauskuzan egiak sendoro ziñes-tera igitzen gaituan onoimenari ziñesmena deritxogu. Izatez - goitiko onoimenen artean aurenengoa, auxe da: andi ta edere-ena ez, baña lenena bai, beste enparau guztien ero ta zustrai da-ta. Onelan, ziñesmenik ez daukanak, beste izatez-goitiko onoimenik be ez dauko, eta Jaunak eskintzen dauskun zeruko zoriona, izatez-goitikoa dalako, ziñesmen barik, zorion andi ta betiko ori, ezin eskuratu geinke. *Ziñeste barik, diño deun Paul bialduak, Jainkoari atsegin emotea, ezin izan daiteken gauzea da.* (HEB. XI, 6). Jaunaren gogoko izan nai daunak, biotzez ziñetsi ta bere ziñeste ori agoz autoitu ta egitadez sendatu begi.

Adimen-argiz uleitzen ez daben gauzarik ez dabela ziñestu nai, gaur egunean batez be, askok esan daroe; baña inok guzurtau bearik ez dauke, eurak euren burua guzurtetan dabe-ta. Geure begiakin ikusi, geure belariakin entzun eta adiñagaz uleitzen doguzan gauzak, gitxi baño

ez dira: beste gauza askotan alkañi ziñes-  
tuko ezpageunskio, gizar-tean bizi be ezin-  
go giñake. Gizon gaizoak ezer iñori ziñe-  
tsi ezik, noren seme dan be ezin jakin  
daike. Eta guzuñtiak garean gizonak al-  
kañi ainbeste bidañ ziñesten ba-dautsegu,  
egitia ta egi utsa dan Jainkoari ¿zegaitik  
ez ziñestu? Egiz, gure ziñeskintzan gure  
adimen labuñak uleñtzen ez dituan gauza  
asko dagoz; baña ori ez da añigañi. Emen  
luñean geure begiak in dakusguzan gauza  
asko be, ezin uleñtu doguz: esate batera-  
ko soloan ereiten dogun gari - azia, ustel-  
du-ta gero, galgaru askodun galburu zelan  
eta zegaitik egiten dan iñok be ez daki  
ta oñelan, beste gauza asko. Ziñeskintza-  
ko egiak ezin uleñtu dituala-ta, ziñetsi ñai  
ez dituanak, zentzun gitxi ta añokeri asko  
darakus. Jainkoak, guk dazauguzan egiak  
baño geyago ezautuko ezpa'litu, gizon  
txikañak bere Egile ta Jaunak baizen adi-  
men zoli ta argia eukiko leuke, eta Jaun-  
ak dazauzan egi oñeik gizonai iragañi ezin  
ba'leuskioez, Jainkoa oñetan gizona baño  
be gitxiago izango litzake; baña zentzun-

en apurik daukanak, olako tentelkeririk ezin esan daike. Gure Jaunak, ba, guk ez dakiguzan gauza asko dakiz eta nai izan ezkeru, gizonari iragañi leyo. Eta beste gizon batzuei diñoskuena ziñesten ba-deutsegu, Jainkoari ¿zegaitik ez? Gizonak, bein baño sañago euren eretxietan okeñ ibilten dira ta guri be gauzak okeñ-etara esaten dauskuez: beste batzuetan, ziria sañtzeko asmoz, guzuñ biribilak sakatzen dauskuez; baño gauza guztiak ondo dakizan Jainkoa okeñ ezin egon daiteke ta egi utsa dalako, guzuñik be ezin esan daike: augaitik gizon guzuñtiak diñoskuen guztia ziñetsi-eragiteko, eskubiderik ez dauke; baño Jainkoak iragañi dauskun guztia ziñetsi eragiteko, eskubide osoa dauko. Onelan ba, norbaitek itanduko ba'leusku: ¿uleñtzen ez dozun gauza ori ¿zegaitik ziñesten dozu? zuzen erantzun geinkio: uleñtu ez añen, ziñesten dot, egi guztiak ondo dakizan eta iñori guzuñik sakatu ezin leyon Jaunak, bere Eleizeari iragañi dautsalako.



## II

Andra Maria ziñesmen bizi-biziaren eredu edeġa da. Jainkoak bere auġetiko asabai egindako agintzak, zeatz beteko zirala sendoro ziñesten eban: bere eġiaren Gaizkatzale ta gizonaren Beġerosle izango zan Jaunaren aldi ta eguna uġ egoala bai-ekian etaluġera lasteġ jatziko zala uste beteagaz itxaroten eban. Augaitik Gabirel aingeruak iragaġi eutsonean Goiko - Jaunak bere Ama izateko autetsi ebala ta bere garbitasunaren kalte barik, Jainko Semea bere eġayetari soġtuko zala; iragaġten eutsan egitade au berez andi ta aġigaġi izan aġen, Andra Mariak burua makuġtu ta ziñesmenik apalenagaz erantzun eban: *Ona emen Jaunaren mirabea; zeure itz oġein arauz egin bekit.* (Luc. I, 38). Mardo ta sendoa agertu zan aldi aretan Mariaren ziñesmena: augaitik gerotxuago, bere lengusiġa ikeġtzera joan zanean, onek poz eta atseġiġez beterik esan eutsan: *Zorionekua zu ziñetsi dozun ori.* (Ib. 45).

Bere erayetako Seme kutuna kurutzean josita, lotsa goñian, ikusi añen, Amaren ziñesmena ez zan bape auldu: Semearen gorputz iñotza bere altzoan eukala be, Mariaren ziñesmenak sendotasun apuñik ez eban galdu. Kurutzean untzez josita ekusazan eskuak, zeru-luñak darabiltzan Jaun andiarenak zirala ta bere altzoan eukan gorputz iñotza, bizitzearen ituñi ta jabe dan Jainko gizatuaren gorpua zala, zintzoro ta sendoro ziñetsi eban. Gure Jaunaren eriotz-aldian bere ikasle batzuen ziñestea makaldu ta ausi zan; baña Maria'rena ez. Egun lañi areitako iñuntasunaren erdian, Maria'ren ziñesmena beñbizkundeko egun argi ta alayetan baizen sendoa izan zan, eta il yakan Seme laztana, laster beñbiztuta ikusteko itxaropen eta uste osoa eukan.

Ziñesmen bizi ta sendoaren eredu zayakuzan Andra aguñgañi ta bikain oñek, zeure Seme ta gure Jaunaren ziñestea daukogunen Ama erukioña zareala gomutau egizu. Otz diran umetxuak berotzea, amaren zeregiña da - ta; geure ziñesme-

nean érez otzituden garean zure seme gaizo - erukañiok, zeure magalpean sartu nai dogu. Zeure besarte gozoan artu gaizuz eta amak bere umeak berotzen dituan lez, gu be berotu ta geure ziñestean sendatu gaizuz.

LOREA: Credo, Domine; adjuva incredulitatem meam. (MARC. IX, 23). Ziñesten dot, ene Jauna; nire ziñesmen txikañ au sendatu egizu.

ERABAGIA: Fides sine operibus mortua est. (JACOB, II, 26). Egitade bako ziñesmena ila da-ta, zeure ziñesmen ori, egitade onen bidez, biztuteko asmua artu egizu.





## Amabigaren egunerako irakurkizuna

**Andra Maria, gure itxaropenaren eredu  
maitagarria**

### I

Txoriak egoak eta arñak ura baizen biazeko dau gizonak zelako-edo-alako itxaropena: ezetaiko itxaropenik ez daukan gizon gaizoak, biziteko pozik be ezin euki daike. Bizitz onetan geure asmo ta arazoak sañi okeñ urteten dauskue; baña okefen dabilzanean be, beste bein ondo urtengo dauskuela uste izaten dogu ta itxaropen onek, lanari ekin eta auñera jañaitzeko indar, adore ta kemena emoten dauskuz.

Au ta gusti be, bizitz labur onetan eskuratu daikegun zorion txikararen itxaropena baño besterik ezpa'geunko, gure bizitz au negarñari asko izango litzake. Gizaseme askorentzat bizitz onetako zorionak baño zoritxarñak geyago ta luzeago-

ak izan oi dira, ta, augaitik, geroko itxaropenik ez dauken gizagaizoak, bizitz one-gaz aspeiturik, euren buruak bein baño sañiago erail daroez. Betiko zorionaren itxaropena, ori da gizonari bizitzako ez-bea eta ekatxetan bea daun besteko adore ta kemena emoten dautsan argi zerutaña; baña itxaropen maitagañi au, landarea zustraitik lez, ziñesmenetik datoñ eta, augaitik, ziñesmenik ez daukanak, itxaropen edeñ ori be ezin euki daike. Ziñesmena lez itxaropena be, Goiko Jaunaren eskaña da-ta, Jaun oñek, geure gogoan ezañi ta bañenduten dausku. Ziñesmenak gure adiña argitu daroan lez, itxaropenak gure naimena indañtu daroa ta geure egite onen bidez, betiko zoriona itxarotera igitzen gaitu. Goiko zorion edeñ ori gomutara ekañi ta bera eskuratzeko daukagun ustea, bañiztetan dogun bakotxean, itxaropen - egipenak dagiguz; baña gure gogoan ori egitera igitu ta bul-tzau daroan onoinenari itxaromena deritxogu.

Batzuk itxaropen gitxiegi, beste batzuk

lañegi euki daroe. Jaunagandik beař daun besteko laguntasuna itxaroten ez daunak bere itxaropen txikiegi oñegaz, Jauna irainduten dau: dongaro bizi ařen, egite on barik zerura joango dala uste daunak be, bere ařokeri ta uste zoro oñegaz, Jaunari irain andia egiten dautso. Gure itxaropenak euspen edo orpo bi daukaz; geure zoriona irabazteko, Jaunak agindu daukun laguntasuna ta geure bizitz on-zuzena. Bere laguntasuna eskiñi ta agindu daukun Jaunak, utsik ez daukula emongo ziuř dakigu; baña goiko laguntasun oñi geuk uts-emon geinkio ta, augaitik, geure itxaropenaren ari samuř eta pozkaři ori, geure aldetik uřatu ez dedin, bilduř izan eta arduraz bizi beař dogu. Itxaropen sendoa osasungaři da: baña, uste ařoa, kaltegaři. *Zutik dagola uste daunak, jausi ez dedin ardura ařtu begi.* (COR. X, 12) ta bilduř-ikaraz zeuen osasuna egizue, (PHILIP. II, 12): deun Paulo bialduak diñausku ori, ta itxaropenagaz batera geure ařgaltasunaren bilduř izatea, gauza osasungaria izan ezpa'litz, ziñez, olakorik ez

euskun esango. Itxaroten dauna ta bildur ez dana, alpeñ-nagia izan oi da: bildur dana ta itxaroten ez dauna, ostera, auldu ta kikildu egiten da ta zeruko bideari jaraitzeko, bea diran adore ta kemena galdu daroaz. Onelan ba, itxaropenean zuzen ibilteko, geure Jaunagan uste oso - osoa euki bea dogu: baña geuk uts egin geinke-ta, geugan uste lañegi ez daigun euki; Jaunagazko uste osoa ta geure argaltasunagazko bildura, neuriz alkatuko ba'genduz, itxaropenean beti zuzen ibiliko giñake.

Lugiñak ereitz-aldian, uztaroa itxaroten dau ta gero batzeko itxaropen oregaz lanari gogor ekiten dautso: gudaria, gurenda edo garaitzaren usteagaz, burukaldi izugarrietan sartzen da: salerosleak be, irabazpen andien itxaropenagaz, gau ta egun buru-auste gogorak erabilten ditu. Bizitz aonetan, guzti-guztiok, nekezari, lugin, ereile, gudari ta salerosle gara: zeruan uzta jori - ugarria, irabazi andiak, garaitz eta zorion betikoa ditxaroguz eta itxaropen onek, orain lanari gogor ekiteko in-

daŕ, kemen eta adore andia emon beaŕ leuskiguz.

## II

Oraingo bizitz labúr au betiko bizitz obearen atadi ta zorion osorako bide dala, geure ziñesteak argiro diñausku. Jaunaren laguntza ta geure egite onen bidez, betiko zorion ori loŕtuko dogula uste dogu. Gure itxaropen aonen euspen eta zustrai geure ziñesmena da; baña Andra Maria'ren ziñesmena bizi-bizia izan zala atzo esan gendun: augaitik bere itxaropena, ziñesmenean bere eŕoa daukan itxaropen ori be, sendo-sendoa izan zala autoŕtu beaŕ dogu. Eta egiz, Andra Mariak bere bizitaldi guztian, baña batez be, bizitzako iru alditan itxaropen sendo ta aŕigafia erakutsi euskun. Bere lengusiñaren etxetik Nazaret'era itzuli zanean, Josepe bere eskonak, amatasunaren ezaugaŕiak ikusirik, bere eskontidea izteko asmoa aŕtu eban. Mariak Josepe'ren estutasun, atsekabe ta asmoak argiro ekusazan; bere amatasun ori nondik etoŕkion ageŕtuagaz



beste barik, ekatxa baretu ta lotsaria uĭn-  
dĭ leikezan; baĭa bere itxaropen osoa  
Jaunagan imiĭirik, isil-isilik egon zan eta  
Jaun onak Maria'ren apaltasun eta itxaro-  
pena sariztuteko ardurea, bere gain aĭtu  
eban. Kana'ko ezteguetan, ardaoa amaitu  
zanean, eskonbaĭiak estutasun aretatik  
ateratearen, bere Seme ta gure Jaunari  
alatza (miraria) eskatu eutsan, iĭotsala:  
ardaorik ez dauke. Semeak lenengoan,  
ezezkoa lez erantzun eutsan, esanik: ħar-  
dorik ez daukela? baĭa, Andrea, zuri ta  
niri ħzer dausku? Au ta guzti be, Mariak  
itxaropen osoagaz esan eutsen ango otsein-  
-moĭoyai: berak aginduko dautzuen edo-  
zer gauza, egikezue. (JOAN, II, 5), eta  
Maria'ren itxaropen andi au zala-ta, Jaun-  
ak bere lenengo mirari aĭgaria egin eban.  
Jauna, bere eriotz ostean, oĭtzitua izan  
zan eta bere iĭobia ikustera, bere ikasle  
ta emakume eĭukioĭrak saĭi joan ziran;  
baĭa Ama atsekabetua, bein bez. Semea  
lasteĭ beĭbiztuko zala sendoro ziĭnesten  
eban: bere bakaĭtasunean otoi-egiten ziar-  
duan eta Seme beĭbiztuaren agerkundea

antxe itxaron eban. Eta Jauna, bere Amaren itxaropen andi au sariztuteko, berari, beste iñori baño lenago agertu yakan. Onelan, ba, gure zeruko Ama samur' au itxaropenik sendoenaren eredu eder'-edera izan yaku-ta, bere seme - alabok, atseka-be guztien gozagalu dan itxaropen maitaga'ri ori, geure eredu ta ja'raibide dan Ama laztan o'regandik ikasi bea' dogu.

Itxaropen gozo-eztitsuaren Ama zarean Andra maitaga'ri o'rek, begirakun samur'-samur'agaz begiratu gaizuz eta gure biotz gaizo aoneik Jaunagan euki bea' daben itxaropenean sendatu egizuz. Itxaropenaren o'rpo ta eusle Jaunaren laguntasuna ta geure egite onak dirala bai - dakigu. Zuk, Ama samur' eta maitati o'rek, Jaunaren eska' eta laguntza ori oparo jadetsi eiguzu eta geure bizitzan zuzen ibilteko alegin egingo dogula, eskintzen dautzugu.

LOREA: IN TE, DOMINE SPERAVI, NON CONFUNDAR IN AETERNUM. (PSAL. XXX, 24). Zeugan ditxarot, ene Jauna; neure buru au lotsatuta, a'ren, ez begit ikusi.

ERABAGIA: SPERANTEM IN DOMINO, MISERICORDIA CIRCUMDABIT. (PSAL. XXX, 10).  
Jaunagan itxaron dagiana, bere erukiak zainduko dau-ta, zeure Jaunagan daukazu itzaropen ori, geitu ta sendatu egizu.





## Amairugaren egunerako irakurkizuna

**Andra Maria Jainko-maitasunaren eredurik ederena.**

### I

Onoimen guztien artean nagusi ta bikañena maitasuna da. Ziñesmen eta itxaropenak Jaunaganantz bai - garoez; baña maitasunak bakarik geure Jaunagaz batu ta lotu gengikez; ziñesmen eta itxaropena, zeruko atera eldu ezkerro, bertatik amaituko dira; baña maitasuna ez. Au goiko ta beko onoimena da-ta, luñean baño zeruan gordin eta mardulago iraun eta biziko da. (I. COR. XIII, 3).

Jainkoaren legea agintza bitan sartzen dala bai-dakizu. Jainkoa geyen eta geure geidea (urko laguna) geure burua lez maitatu ezkerro, Jaunaren lege osoa zeatz beteko geunke. Andra Mariak, maitasun bi oneitan jañabide ederak emon dauskuz: Geideagazko maitasuna biarko itxirik,

gaur Jainkoari zoġ dautsaguna azalduko dautzut.

Jainkoa maite dogula, askok esan daroagu; baġa geure maitasun ori zindo ta garbia dan ala ez ezagutzeko, zegaitik maite dogun begiratu ta jakin beaġ dogu. Jaunaren eskutik lenago aġtu doguzan nai geroago aġtu geinkezan ogasun, eskaġ eta zorionagaitik, Jauna maite izatea, egitade ona da ta eskaġ oneko izan nai daun edonok egin beaġ dau: baġa Jaunagazko maitasun ori gure buruen maitasunetik datoġelako, -gutziz garbi ta zindoa ezin izan daiteke. Zigoġaren bilduġa ta sariaren itxaropena alde batera itxirik, geure Jauna, bere izatez on-ona ta osoro maitagaġija dalako, biotz - biotzez maitatu beaġ geunke. Gure gogoa edozein oġbanetik garbitu ta geu Jaunaren aizkide egiten gaituan maitasuna, auxe da. Ikatz baltz eta ezaġagaz suak egiten dauna, Jaunagazko maitasun onek gure gogoagaz egiten dau. Ikatza berez baltza eta loya izaten da; baġa suak berotu ta txingaraġ gori egiten daunean, garbi ta edeġa dirudi.

Gure gogo au be, Jaunagazko maitasunak berotzen daunean, bere orbanetatik garbitu egiten da ta, ikatz goriak suaren irudia lez, berak be Jaunarena artu daroa. *Bere maitasuna lakoxea da maitale bakotxa,* — diño deun Austiñek. — *¿Luía maite dozu? Luía zara: ¿Jainkoa maite dozu? ¿Zer nai dozu nik zuri esatea? Jainkoa zara. Nik esan neban: Guztiok Jainko zare ta Goikoaren seme.* (PSAL. |LXXXI, 6).

Zeruko atea idegiten dauskun giltza, Jaunagazko maitasun ori da. Jauna maite ez daunak, bere gogoko dan gauzarik ezin egin daike. Au argiro dirakusku deun Paulo bialduak, diñoskunean: *Gizon oro-en izkuntzak ba'nenkiz eta aingeruak lez mintzatuko ba'nintz be, maitasunik ez-pa'neunko, nire itz guztiak txiliñaren durundia lez izango litzakez. Etoñkizuna igarñteko almena ba'neunko, esku-tu guztiak ba'nezauz, jakituri guztiak ba'nenkiz eta mendiak orpotik atara ta beste toki batera aldatu-eragiteko bear dan lako ziñesmen sendoa ba'neunko be, maitasunik euki ezik ezertxu be ez*

*naz. Neure ogasun guztiak txiroen artean bananduko ba'nitu ta neure gorputz au ziñesmenaren aldez sugařetan eřeko ba'litz be, maitasun barik ori guzti ori ezetarako be ez litzakit izango. (I. COR. XIII, 1 ET SEQ). Itz ořeikin argiro adierazo euskun Jaunaren maitasun eta aizkitasunean bizi ezik, zeruko zoriona irabazteko izango dan gauzarik ezin egin geinkela. Eta egiz, maitasun ori da geure Jainkoagaz lotzen gaituan uřezko lokaři ta txibistuna. *Maitasunean dagoana Jainkoagaz dago eta Jainkoa beragaz. (JOAN, IV, 16), diño ikasle maiteak, eta iñorbaitek maite ba-nau, nire esana egingo dau ta nire Aitak maite izango dau ta beragana etořiko gara eta beragaz biziko gara — diño Jesu-Kristo gure Jaunak (JOAN, XIV, 22). Onelan ba, Jainkoaren aizkide izan nai ba-dozu, maitasun zindo ta garbi ořegaz zeure Jaun ori maitatu egizu. Zeuk bera ořelan maitatu ezkeru, berak be zeu maite-maite izango zaitu ta zeure Jainko laztangarı ori zure aizkiderik onena ta zintzoena izango yatzu.**

## II

Andra Maria'ren biotza Jaunagazko maitasunaren abi kutuna ta berarizko bizitokia izan zala, bene-benetan esan geinke. Goiko Jauna bere ontasun andi-andiagaitik; beste enparauak Jaunagaitik maitatzen ebazan eta augaitik, Ama samur' ori bere asmo ta egite guzti-guztietan Jainko maitasunak erabili eban beti, Jainkoak bere Ama laztan oni, beste in'ori baño eskar' eta mesede andiagoak egin eutsozala edonok daki: Maria'ren biotz garbia baño eskar' - obeko biotzik ez dala izan gomutau egizu, ta zelako maitasun samur' -laztantsubagaz bere Jauna maitatu eban e'rez susmau ta igari al-izango dozu. Jaunak egin eutsazan eskar'ak azkenik ez dauke: eskar' bakotxak, txingar' gorria bai - litzan, Ama samur' onen biotza Jaunagazko maitasun-ga'rez berotu ta goritzen eban. Maitasun a'rigari onen inda'ragaz, a'ano egazkaria bere ego inda'rtsuakin baño e'rezago, Andra Maria'ren gogoa bere Goiko Jaun laztanagana igoten zan, eta



augaitik, gorputzez luñean bizi zala be, zerutañen bizikerea egin ebala, Eleizako irakasleak auzez diñoskue.

Geure Jaun onari zenbat zoñ dautsagun gomutauko ba'gendu, Jaun ori biotz - biotzez maitatzea guretzat be gauza eñez eta atsegintsua izango litzake. Irazan (egin) ginduzalako, geure Jaun eta Jabe da; beñerosi ginduzalako, geure Aita samuñra; geure ogenak parkatu ta bere eskaña emoten dauskulako, geure ongile ta aizkiderik onena. Geure Jabe dalako, biotzez guñtu ta jauretsi; geure Aita dalako, seme zintsoen lotsa ta itzalagaz maitatu; geure ongile ta aizkide dalako, samuñtasunik andienagaz laztandu beañ geunke. Gure Jabe, Ongile ta Aita samuñra dan Goiko-Jaun ori ¿maite ete-dogu? Norbait zintzoro maite dogunean, bere nai ta agintzat egiteko gertu egoten gara ta bakoñtxaren maitasuna norañokoa dan, oñretanxe beste ezetan baño obeto igarñten dogu. Jaunak bere legeko agintzak imiñi dauskuz eta maite dogun ala ez, oñtxe ezagutu geinke. *Nire agintzak daukazana ta be-*

*tetan dituana, ori da*— diño Jaunak — *ni maite nauna*. (JOAN, XIV, 21). Onelan ba, Jaunaren agintza oñeik zintzoro bete dagizanak, maitasun zindoa dautso: oñetan ustela danak, bere maitasuna be ustela dala ziñetsi begi. Jaunaren legea zeatz betetako asmoa artu daigun: asmo oñeri sendoro eutsi dayogun eta geure Jaunaren maitasunean biziko gara.


Maitasun edeñaren Ama zarean Andra guren oñek, geure Jainkoa biotzez maitatzeko beañ dogun eskañ zerutaña jadetsi eiguzu. Geure almen eta indañ guztiakin maitatu beañ geunkela bai-dakigu; baña geure argaltasun andiak beko gauza ziztrin oneitara ezarten gaitu-ta, geure itsutasunean bein baño sañiago geure Jaunagazko maitasun ori galtzen dogu. Zu, Ama laztantsu ori, zeure Jainkoaren maitasunak beti erabili zinduzan eta zure gogo maitatia, luñeko gauza oneik mañatzat arturik, euren Egile, Jaun eta Jabeagana, eragozpen barik igon oi zan. Ama eñukioñ eta samuñ oñek, gure gogo argal aoneik sendatu eiguzuz eta luñeko gauzetatik euren

eta geure Jabe ta Jaunagana igon gaizan,  
lagun zakiguz.

LOREA: NOS ERGO DILIGAMUS DEUM, QUONIAM IPSE PRIOR DILEXIT NOS. (I JOAN, IV, 10).  
Guk be geure Jainkoa maitatu daigun,  
berak gu lenago maitatu ginduzan - eta.

ERABAGIA: OMNI VITA TUA DILIGE DEUM.  
(ECCLI. XIII, 18). Zeure bizitz guztian  
Jainkoa maite izan egizu.





## Amalaugaren egunerako irakurkizuna

---

**Andra Maria urko-lagun edo geideagazko maitasunaren eredurik osoena.**

### I

Jaunak zeruan bere maitale zindoentzat daukazan atsedean, atsegin eta zorionak, gure begiak ikusi, gure belarriak entzun eta gure gogoak asmau leikezan baño azkozaz be andi, jori ta edeñagoak dirala, deun Paulo bialduak diñosku. (I COR. II, 9).

Baña Jaunagazko maitasun oñek, geideagazko maitasuna beragaz daroa. Jaunak diñosku ba: *Nire agindũak daukazana ta betetan dituana, orixe da ni maite nautana.* (JOAN, XIV, 21); baño Jaunaren lege oñetako zazpi agintzatan, geure geideagazko maitasuna agintzen yaku: augaitik, Jaunak bere maitalientzat daukan zorion edeñ ori irabazteko, geure geidea (urko-laguna) be biotzez eta zintzoro maitatu beañ dogu. Geure geidea maitatzeko Jaun-

ak agintzen dausku: bere aginduak bete ezik, geure Jauna ez dogula maite ondo dakigu; augaitik, Jaunak agindutako maitasun oregaz geure geidea maite ezpadogu, geuk bayetz uste izan aġen, Jauna bera be ez dogu maite. Jesu - Kristo'ren ikasle maiteak gauza onetzaz diġoskun au, adi entzun eta gogoan aġtu egizu: *Norbaitek ba'diġo: Nik, neure Jauna maite dot eta bere geideari goġoto ba-dautso, guzuġti andia da. Bere begiakin dakusa<sup>n</sup> anaya maite ez daunak, ez dakusan Jainkoa ġzelan maitatu daike, ba? Eta Jaunak imiġi dauskun agindua, auxe da: Jainkoa maite daunak, bere geidea be maitatu dagiala. (I JOAN, IV, 6).* Geure Jainko ta geideagazko maitasun oreik, beti alkaġekin dabiltzan lagun kutunak dira. Jainkoa maite ez daunak, geidea be ezin maitatu leike Jaunak agintzen daun lez, eta bere geidea maite ez daunak be, Jainkoa maite daula esan aġen, maitasun zintzorik ez dautsola jakin bei. Onelan ba, egaztiak egaiz-egiteko, ego biġa beaġ dabezana lez, gure gogoak be zerura egaiz

igoteko, ego biña beař dabez. Gure gogoen egoak, Jaunagazko ta geure geideazko maitasun bi ořeik dira ta ego bata nai bestea ausi ezkeru, egaiz-dabilen egaztia lura jausten dan lez, maitasun bi ořeitatik bata zein-besteausi dagian gogoa be, beko bařendira jausteko ařiskuan dago.

Kristiñau zintzoak izateko, geure Jaunaren ikasle ta jařaitzale izan beař dogu; baña geure geidea (urko laguna) maite izan ezik, Jaun ořen ikasle ta jařaitzale ezin izan gaitekez, Jaunak bere ikaslai eskatzen dautsen berarizko ezaugaria, alkařganako maitasun ori dalako. *Alkař maitatzen ba-dozue—diño Jaunak—oře-tantxe guztiak neure ikasle zarela ezautuko dabe.* (JOAN, XIII, 24). Jaunaren ikasle guztiak euki beař daben berarizko ezaugaria ori ezpa-daroagu, Jaunak bere ikasle-tzat ¿zelan ezagutu gengikez?

Jaunaren ikasle maitea bere zařtzaroan Efeso'n bizi zala-ta, bere oñez eleizaraño joan ezin zalako, ango kristiñauak euren eskuetan eroaten ebela, deun Jeronimo'k diñosku. Batzař-aldi guztietan beti auxe

esaten ei - eban: *Ene semetxuak, alkar maitatu egizue*. Alakoen baten, bere ikas-lak, beti gauza bat entzuteagaz gogait egiñik, itandu ei eutsoen: Irakasle orek, beti gauza bat ¿zegaitik esaten dauskuzu? Eta Joan'ek erantzun ei eban: *Enetxuak, Jaunaren agindua da bai ta orixe bakarrik egin ezkerro be, naiko dozue*. Eta egiz, geure Jaunak agindu euskun: *Zeuen geidea (urko - laguna) zeuen burua lez maitatu egikezue*. (MATT. XIX, 19). Eta itz oneikaz zer adierazo nai euskun be, Jaunak berak azaldu eban, inonean: *Beste gizasemeak zeuoi egitea nai zenduken edozer gauza, zeuek be eurai egiezue*. (MATT. VII, 2). Eta beste bein: *Nik zuek maitatu zaituedan lez, zuek be alkar maitatu egizue; nire agintza baria orixe da*. (JOAN, XV, 12). Onelan ba, Jaunak geu maitatu ginduzan lez eta aurrekoak geu maitatzea nai izango geunken neuriz, geure geidea maitatu beak dogu, edozein geideri egiten dautsagula, geu bere naruan, berea lako beaizenean, ba'gengoz, berak geuri egitea nai izango geunken on

eta mesedea. Geure geideari zoř dautsagun maitasunaren neufia orixe da.

## II

Andra Maria maitasun edeřaren Ama dala bai - dakigu. Goiko - Jaunari eutsan maitasun gori - gařtsua, goitik bera, gizonakana jatzi zan eta beti, baņa kurutzearen oņean gure Ama egin zanetik auřera batez-be, amarik eřukioř eta samuřenaren laztantasun gozo-gozoagaz maitatu ginduzan. Geideagazko maitasun au Jaunagazko maitasunetik, ura ituřitik lez jayoten dala esan dogu: Mariak Jainkoari eutsan maitasuna, samuř eta laztanena, sendo, zindo ta indařtsuena izan zala ondo dakigu: augaitik Ama samuř ořen gugazko maitasuna be, zintzoena, edeř-edeřa ta gorenengoa dala ezagutu ta autořtu beař dogu.

Nazaret'en asi-ta, Golgota - mendiraņo, Jaunak gure osasunerako ařtu ebazan neke ta egin ebazan lan eta egite nagusi guztietan, Andra Maria be, Jaunaren ondoan dakusgu ta Nazaret'eko etxe txikian,



Belen'go aterpean eta kurutzearen oñean, maitasunik samuñenaren ezaugarri bikain-bikañak emon dauskuz. Bere eñayetako Seme laztana ain biziro maite eban Amak, bere Seme ta gure Jaun oñen odolagaz erositako gizonak be maite ta zintzoro maite izatea, maitasuna zer dan dakientzat añigari ezin izan daiteke. Gure gogoak beferosteko, Jaunak bere zantako odola isuri eban: Ama samuñak, gizonen gogo bakotxean bere Semeak isuriko odolaren aldiña (balioa) dakus eta onelan, Seme laztanari dautsan maitasun - inñak, gure gogoak maitatzera daroa. Ama laztantsu ori, bere Semeagaz batera, gure betiko zoriona egiteko zeregiñetan ibili zala ta neke-miñezko zazpi ezpata zoñtzat, bere biotza alderik-alde igaro eutsoela bai - dakizu; baña edozein amak neke, loñ eta min geyago ekañi dautsazan ume gaizoa, geyago maitatzen daula be ezin ukatu zeinke; augaitik, gure aldez ainbeste atsekabe, neke ta min arñtu ta jasan ebazan Ama laztan oñek, gu ainbeste ta ain zintzoro maite izatea be, guztiz arira datoñen gauzea dala autoñtu egizu.

Ama samur' ori, geure geideai zor' dau-tsegun maitasun onetan geure eredu, irakasle ta laguntzale izan zakiguz. Zuk, Ama biotz-bera ta maitatsu o'rek, gizon bakotxagan Goiko-Jaunaren irudia ta go-go bakotxean zeure Semearen odol eder'aren aldin eta saneuria dakuzuz eta augaitik, guzti-guztiok maitasunik samur'engaz maite gozuz. Guri be, Ama on - ona, geide bakotxean geure aragi ta odola, Goiko-Jaunaren seme ta geure anaya eza-gutzeko bea' dogun goiko argia ta aurekoa, geure burua lez, maitatzeko bea' doguzan inda' eta laguntasuna emon eiguzuz eta geure asmu on eta eder' oneitan sendatu gagizuz.

LOREA: QUI ENIM DILIGIT PROXIMUM, LEGEM IMPLEVIT. (ROM. XIII, 8). Bere geidea maite daunak, legea bete dau.

ERABAGIA: NON DILIGAMUS VERBO NEQUE LINGUA SED OPERE ET VERITATE. (I. JOAN, III, 18). Itz eta minga'nezko maitasuna utsa da-ta, zeure geideak egiz eta egitez maitatzeko asmua ar'itu egizu.



## Amaboskaren egunerako irakurkizuna

---

**Andra Maria geure arerioai zor dautsegun  
maitasunaren eredu ezin ohea.**

### I

Geure geidea gugaz aizkide danean, ezez maitatzen dogu; gure etsai danean, askozaz be gaxago egiten yaku; baña Jainkoak, geure geidea maitatzeko agindu euskunean, aizkide ta arerioen arteko alderik ez eban ipiñi. *Zeure geidea, zeure burua lez maitatu egizu.* (MARC. XII, 31). Jaunaren agindua ori da ta agintza ori betetako, geure geide guztiak, aizkide ta arerioak, maitatu bear doguz. Antziñako lege zafean, Jaunaren agintza ori batzuk okef aitu eben; baña Jaunak bañiro azaldu eban, okef egozan oñei iñotsela: *Entzun dozue zuen artean norbaitek esan daula: Aizkidea maite ta arerioa gofoto izango dozu. Baña nik diñautzuet: zuen arerioa maitatu egizue: gofotatzen zaituenai be, on egi-*

ezue: zeuei txarto egin eta irañaq esan dautzuezanen aldez, otoi - egizue, zeuen Goiko-Aitaren seme izan zaitezzen. Goiko-Aita maite ořek, on eta gaiztoentzat eguzkiari urten-eragiten dautso, zuzen eta ořerentzat euria bialtzen dau, ta zueq be, on eta gaiztoak, aizkide ta arerioak maitatu beař dozuez, bere seme izan nai ba - dozue. (MATT. V, 43 - 44). Zeuen aizkidiak baño beste iñor maitatu ezik qzelako saria itxaron zeinkie? zergariak be, ori beste qez al-dabe egiten. (IB. 46).

Eta ikasle maiteak iñoan. Bere anaya maite dauna, argitan bizi da ta ikasbide dongarix iñori be ez damotso; baña arerioa gofoto dauna, ilunpean dago, ilunpian dabil eta nora doan ez daki, ilun ořek bere begiak itsutu dautsazalako. (I. JOAN, II, 19). Eta beste bein: Bere geidea maite ez dauna, eriotz-bidetik dabil; bere anaya gofotatzen daun edonor, giz-erale da ta giz-eraleak betiko bizitzaren itxaropenik ezin euki daike. (I, JOAN, III, 14). Betiko bizitz ori lořtu nai ba-dogu, ba, geure arerioak maite izan beař doguz eta eurak geuri egitea nai

izango geunken mesedea, geuk be eurai egin bear dautsegu.

Geure gaiztakeri ta ogenen parkamena jadesteko be biderik onena auxe da. Entzun egizu ezpabe Jaunak diñotzun au: *Gizonai euren utsegite ta irañak parkatzen ba-dautsezuez, zuen Goiko-Aitak be zeuen eru ta ogenak parkatuko dautzuez; baña zuek aurrekoai parkatu ezik, Goiko-Aitak be zeuen utsegite ta ogenak ez dautzuez parkatuko.* (MATT. VI, 14). *¿Zeure gaiztakerien parkamena loġtu nai-dozu? — Parkatu egizu ta parkatuko yatzu.* (LUC. VI, 37). Geure Jainko maitagarġa zintzoro maite dogun ala ez, jakin nai izaten dogu. ¡Eta nai izateko da! Jainkoa biotzez maite dogula ta berak be maite gaituala ba'genki, geure Jaunarenak gareala ta zorion bide-tik gabiltzala be, ziuġ jakingo geunke ta geure biotz au atsegin eta pozez beteko litzakegu. Jainkoa zintzoro maite dogula jakiteko, ezaugarġirik onena ¿zein ete-da? — Oġretarako ezaugarġirik argi, bikain eta ziuġfena, arerioakazko maitasun ori dala deritxot. Geure aizkideak, maitatu gein-

kez bai, Jaunak ori agintzen dauskulako ta bai aizkide o'feik geure begiko yakuzalako lez: augaitik, aizkideai dautsegun maitasun ori, geure Jaunagazko maitasunetik dato'fen ala ez, ezin e'rez jakin geinke; ba'ña begiko ez yakuzan arerioak, egin dauskuezan ira'nak aiztu - ta, zintzoro maite ba - doguz, maitasun ori Jainkoari dautsagun maitasunetik ba'ño ezin eto'ri daitekela edonok dakus, eta onelan, bere arerioa maite daunak, Jainkoa be maite daula zuzen zi'ñetsi daike. Onez ga'ñera, geure aizkideai dautsegun maitasun ori, Jaunagazko maitasunak so'rtua ba'litz be, geure arerioai geunskioen maitasunak besteko Jainko-maitasunik ezelan be ezin iraga'ri leike. Au edonoentzat gauza argia da. Su andiagoak bere beroa su txikiak ba'ño u'ri'ñago zabaldu daroa-ta, augaitik suaren beroa u'ri'ñago zabaldu ala u'rago gelditzen dan jakin ezkeru, su ori andiago ala txikiago dan be jakin daikegu; ba'ña gure arerio diran gizonak gugaz aizkide diranak ba'ño gure biotzetik u'ri'ñago dagoz eta augaitik areriokana'ño eltzen

dan maitasun oreak Jainko-maitasun andi-agoa darakus.

## II

Gure Jaun onak eta bere Ama erukioiak, geure arerioi zor dautsegun maitasun ori guztiz argiro irakatsi dauskue. Bide ofetatik aurenengo Jauna joan zan; gero deun guztiak baña bere Ama laztanak bateg-be, Jaunaren onatzai zintzoro jaraitu dautse. Kurutzean untzez josita egoan Jaunak, bere urkatzañen alde, Aita-Goikoari otoi-egin eutsola bai - dakizu. *¡Ene Aita, parkatu egiezu, zer egiten daben ez dakie-ta.* (LUC. XXIII, 24). Kurutzean egoan Jaunak bere Aita - Goikoari eruki ta parkamena eskatzen eutsonean. Kurutz-ondoan egoan Ama nekatuak, Semearen itz oreik beresaten ebazan bere biotzean. Ama-Semien jarabide eder oneri ezin jaraitu geinkiola esango ete-dogu? Olorrik ezin esan geinke: Jaunak eta bere Amak guri ikasbide eder ori emotearen, euren arerio ankeñai parkatu eutsen: guk be, Jaunaren laguntasunagaz parkatu gein-

kioe; baña saři ořetarako nagi ta mukeř egoten gara. Bein baño sařiago esaten dogu, irain eta kalteak egin dauskuzan arerioari parkatzea, gizon gaizoak egin daiken baño arazo gatxagoa dala; beste batzuetan diñogu gure aurka jaři dan arerioari ořetan parkatzeak, makalkeri utsa dirudiala ta bere burua aintzat daukan gizonak ořelako gauzarik ezin egin daikela; baña nai bat au nai beste ori diñogunean okeř gagozala eřez ezautu geinke. Gizonak egin ezin daiken gauzarik, Jainkoak ezin agindu leyo; baña geure arerioari parkatzeko, Jaunak argiro agindu dausku: agindu au zintzoro betetařen, arerioai biotzez parkatu dautsenak, asko izan dira, ğzelan esan geinke, ba, parkatze ori egin ezin geinken zeregiña dala? Makalkeria ez dala be, argiro dakusku. Arerioai parkatze ori egikizun gatxa dala geuk gero- nek esaten dogu; baña gauza gatxak egi- tea ğmakalkeria noiz izan ete-da? Arerioai parkatzeko, euren gořotoan jařaitzeko ba- ño, askozaz be kemen eta adore geyago beař da; augaitik, parkatzea, gizonkeria,



ta ez parkatzea, kolda'keria dala auto'rtu egizu:

Baña geure Jaunaren agindua betetako, geure arerioai parkatzea ez dogu naiko; onezaz gañera, maite be izan bea' doguz. *Zeure geidea* — diñosku Jaunak — *zeure burua lez maite izan egizu.* (MARC. XII, 31); baña arerioa be, aizkidea lez, geure geidea: augaitik geure burua lez maitatu bea' dogu. ¿Gaiztoa dala, uts eta akatz asko daukazala? ¿Eta zer? Geu on - onak etegara? ¿bein baño sa'riago gaiztoak be izan gareala geure ba'nenak ez ete - diñosku? Geure utsegite, oke'keri ta akatz guzti o'ei'k gora-bera, geure buruak zintzoro maitatzen doguz: arerioak be geure biu'keri, akatz eta utsegite o'ei'ntzekoak baño ez daukez eta ¿zegaitik ez maitatu? Geure uts eta akatz guzti o'ei'kin be, Jainko ta gizonak geu maite izatea nai dogu ta Jaun zuzenak geuretzat nai dogun orixe, geuk besteakin egin daigula agintzen dauku.

Zeure Seme laztan - kutuna kurutzean josi eutzuen arerio anke' aek ain zintzoro

maitatu zenduzan Ama maitale o'rek, gu obendi eska'rgaiztoko onein eskariak abegi onez a'rtu egizuz; gure argaltasun andia ondo dazauzu ta geure etsayai parkatzea, aldatz-gora egiten yakula bai-dakizu. Ama laztan o'rek, lo'rtu eiguzu, ba, o'retarako bea' dogun eska' eragilea ta beste gauza batzuetan lez, aonetan be, zeure o'ñatzai ja'raitu dayogun, goiko inda'ragaz gure asmo makalok sendatu egizuz.

LOREA: DIMITTITE ET DIMITTEMINI. (LUC. VI, 37). Parkatu egizue ta parkatuko yatzue.

ERABAGIA: EGO AUTEM DICO VOBIS: DILIGITE INIMICOS VESTROS. (MATT. V, 44). Ba'ña nik di'notzuet: zeuen arerioak maite - izan egizuez.





## Amaseigaren egunerako irakurkizuna

**Andra Maria, zurtasunaren eredu bikaña**

### I

Orain arte azaldu doguzan onoimen oñei jainkozkoak deritxoegu, euren soñkun eta elburu Jainkoa dalako. Egiz, geure, geidea, bere ontasunaren bakañik maite bañ gendu, maitasun ori jatoñiz be jainkozkoa ez litzake izango; baña geure geidea Jainkoaren maitatu beañ dogun ezkerro, maitasun onek bere jatoñi ta zegaitia Jaunagan daukala argiro dakuzu ta augaitik, geideagazko maitasun ori Jainkoari zoñ dautsagunaren uñengo azaldu dogu.

Orain beste onoimen batzuk azaldu nai geunkez, eta guzti onein artean, garai ta urenenak auñengo azaldutea ondo ta egoki izango dala deritxogu.

Onoimenik garayen oneik lau dira: zurtasuna, zuzentasun, sendotasun eta neurtasuna. Atea bere oñpo gañean, nañaztu

barik, txairo-txairo ibilten dan lez, gizonaren bizitza be lau onoimen onein gañean beti ba'lebil, aztapo ta eragozpen barik, artez eta zuzen ibiliko litzake, augaitik bizitz deun eta zuzenaren efo ta orpo lez diran lau onoimen ofei, jakitunak efortikoen izena ipiñi dautse.

Edozein gizonak bere egikizunetan zuzen ibili nai ba-dau, lenengo bere buruko eretxi okeak, ufengo bere biotzeko griña ta gurari makuak zuzendu bear ditu. Bere adimen eta naimena ondo zuzendu dituan gizasemea, bere egitekoetan be, adimena oke eta biotza maku daukazana baño, artez eta zuzenago ibiliko da. Asko dakien gizonak guztien artean zuñenak izan bear leukiela dirudi; baño sañi askotan, euren adiña eretxi okeez beterik daukelakoedo, euren zeregiñetan zurtasun, sen eta zentzun gitxi erakusten dabe. Adimenean eretxi okeak euki ezkeru, biotzeko griña ta makuakeri dongak berez ernetan dira; augaitik bizitz zuzen eta jainkozkoa egin nai daun edonok, beste ezer baño lenago, bere buruko eretxiak zuzendu begikez.

Zuřtasuna, ořetarako da: adimenaren onoi-  
mena da-ta, bere eretxietan zuzen ibili de-  
din, berariz laguntzen dautso. Jakituria-  
gaz, sařitan beintzat, zuřtasuna be azi ta  
geitu egiten da; baņa biak gauza bat dira-  
la uste ba'gendu, okeř gengokez.

Jakituriak arau nagosi ta orokařak emo-  
ten daukuz: zuřtasunak, egikizun bako-  
txean biderik egokiena zein dan adieraz-  
ten dauku. Egitekoen eretxi zuzena ta  
zuřtasuna gauza bat dira. Augaitik iņoan  
deun Austin irakasle andiak: geuk nai do-  
guna lořtu ta eskuratzeko, zein bide arřu  
ta zein itxi beař dogun, zuřtasunak adi-  
erazten dauku. Geure elburua zein dan  
eta ara eltzeko biderik egokiena zein izan-  
go dan: ori adieraztea be zuřtasunaren ze-  
regiņa da, ta ez edozelakoa, bere zeregi-  
ņik nagosi ta garayena baņo: augaitik, el-  
buru okeřa daukanen zuřtasuna bera be,  
nai-ta-ez, okeř eta guzufeřkoa izango da.  
Onelan ba, betiko zorionagaz aitzurik,  
luřeko zorion labuř eta igazkořen bila da-  
biltzanak, euren asmu ořeitan bizkoř eta  
zolienak ba'lira be, egizko zuřtasunik ez

daukela ziñetsi zeinke. Betiko zorionaren gomutea bere gogoan ondo josita daukan gizona ta zorion ori eskuratzeko biderik egokienak autu dagizana, orixe bai, orixe da benetan gizon jakitun eta zuña: beste enparabak, zoli ta bizkoñenak dirala uste izan aŕen, ero, itsu ta zentzun bakoak baño ez dira. *Ene semetxua*—diñosku jakitun batek — *ondo oldoztu barik, ezer be ez egizu egin eta eginda gero, ez yatzu damutuko*. Goiko zoriona irabazteko, zuñtasuna beaŕ-beaŕa da ta auxe *izan da deunen* (santuen) *jakitura*. (PROV. IX, 10). Jakituri edeŕ au daukan gizona ta zuñtasunean aberatza dana, benetan zorioneko da. *Aonen jabe izatea, zidaña irabaztea baño obe da ta beronen ale-garau arnariak uŕerik garbiena baño edeŕagoak dira*. *Beste ogasun guztiak baño maitagarriago da ta gizonak luŕean idoro daikezan gauzarik edeŕenak be, aonen ondoan zer ikusirik ez dauke*. (PROV. III, 13 SEQ.)

## II

Gauza bakotxā zegaitik eta zetarako,

noz nun eta zelan egin bea' dan, zu'rtasunak irakasten dausku: zein dan ona, zein ohea ta zein onena; zein dan txara, zein txarago ta zein txarena adiraztea be, zu'rtasunaren berarizko zeregiña da: augaitik zu'rtasun ori beste onoimen guztien irakasle ta artezkari dala ta onoimen baktxari bere aldi, era ta neuria darakutsazala, Eleizako irakasleak ondo baño obeto diño. Andra Mariak onoimen eta ekan-du-on guztiak gorengo mañan euki ebazala bai-dakigu ta, augaitik bere zu'rtasuna bikain-bikaña ta ezin andiago izan zala be ezautu ta auto'rtu bea' dogu. Baña Andra Mariak irakatsi euskun zu'rtasun ori ¿zela-koa izan ete zan? Iru endatako zu'rtasuna dazaut: lenen azalduko dautzudan onek azaletik zu'rtasuna dirudi; baña mami ustela dauko ta guzuezkua da: bigarena; egizko zu'rtasuna da, baña erdikiña; iruga'ena, egizkoa ta oso-oso.

Edozein gauza, edozein elburu lo'rtuteko bideak, ondo autu ta egokiro atonduten dakiana gizon zu'ra dala esaten dogu; baña elburu ori oke' eta kaltegiña ba'litz,

ara eltzeko bideak egokiro atonduten darian zuftasun ori be, okef eta gaiztoa izango litzake, ta azaletik zuftasun-antza euki aren, bere baruan, mami zindoaren orde, guzurf utsa eukiko leuke. Esaterako, lapufetan egiteko, beste inori otu ez yakozan bideak asmau dituan gizona, lapuf bizkor eta zurá izan dala esan oi dogu; baña nai lapufetarako, nai beste edozein gaiztakeri egiteko, euki geinken zuftasun orek, zeruko atea sarázen dauskuz: mesede gitxi ta kalte asko ta andiak ekañi leikeguz eta guzurfzkoa dala ondo diñogu. Augaitik inoan deun Paulo bialduak: *aragiaren zuftasun ori, eriotzea da; gogoarena, ostera, bizitz eta bakea.* (Rom. VIII, 6).

Baña eru ta oben barik egin geinkezan arazo ta zeregin asko dagoz. Arazo oneik ondo egiteko, biderik egokienak idoroten dituan gizona, zurá dala esaten dogu; baña lufeko arazorik andiena be, gure bizitz osoaren azken eta elburu ezin izan daitekela edonok daki; augaitik arazo oreitzaz gizonak darakusken zuftasuna, egizkoa



izan aŕen, osoa ezin izan daiteke. Gure bizitz osoaren elburu, geure gogoen betiko zoriona da: augaitik, betiko zorion ori loŕtzeko, gauza guztiak ondo ta egokiro gertu ta atonduten dakian gizona ta auxe bakaŕik, zuŕtasun osoaren jabe izango da. Eta auxe da, batez be, Andra Mariak irakatsi euskun zuŕtasuna.

Ekatxa uŕeratzen danean, txori ta beste egazti basatiak laster igarŕten dabe ta baso ta oyanetan eskutatzen dira. Andra Maria be olantxe, munduko ekaitz gaiztoetatik igestearen, bere gurasoen etxean eta Jerusalem'go eleizan eskutau zan. Jatorizko oŕbanak ez eutsan ikutu ta bere biotzean, guk lako makuŕkeri ta griña dongarik ez eukala bai-dakizu; augaitik guretzat andi diran munduko aŕisku oŕeik beretzat txikiak baŕno ez ziran, baŕna au ta guzti be, gure zeruko Ama laztan ori, zuŕzuŕa zalako, ardurarik andienagaz aŕisku oŕeitatik aldendu zan eta bere gaztaroa Jerusalem'go eleizan igaro eban. Guk, jauskoŕak garean bere seme-alabok, munduko aŕisku oŕeik ondo dazauguz; gure

biotz gaizo au dongakerirantz oso iruli ta makur dagoala be bai-dakigu; baña ori ta guzti be, ariskurik - arisku, bape ardura barik ibiltan gara. ¡Gure zurtasuna nun ete-da?


Eguzkiaren izpiak baso artetik baño garbiago, luřeko zikinkeri artetik igaro eiteken gure Ama orbange orek munduko ariskuetaatik arduraz alde egin eban eta gu, arisku oreitan sartu orduko zikinduten gareanok ¡galbiderik-galbide itsumustuan ibiltan gara! Ama zuraren semeak gara: baña gure zurtasun au txiki ta labur dala autořtu bearean gagoz!

Zur-zur izan zinan Ama garbi orek, gure aldez otoi-egizu, *Virgo prudentissima, ora pro nobis*. Geure zorionera eltzeko biderik egokienak idoro ta autetsi daikeguzan, zeure zurtasun bikain eta arigari oren pizka bana emon eiguzu eta bide txar, okeř eta kaltekoř guztiak itxirik, beti bide on, zuzen eta osasungariari jaraitu dayogun, geure asmoetan sendatu gaizuz.

LOREA: ESTOTE PRUDENTES SICUT SERPENTES. (MATT. X, 16). Nařaztiak baizen zurřak izan zaiteze.

ERABAGIA: POSSIDE PRUDENTIAM... NE DIMITTAS EAM ET CUSTODIET TE. (PRO. IV, 5). Zurřtasunaren jabe egin zaite: ez, egizu galdu ta berak jagongo zaitu.





## Amazazpigaren egunerako irakurkizuna

---

**Andra Maria zuzentasunaren eredu edera**

I

Bizitz erugabea egin nai daun edonok, zuftasunaren bidez bere buruko eretxi okeak zuzendu ondoren, bere biotzeko zalekeri ta griñak be zuzendu beak ditu. Sañitan gure gogoak gauza bat eta gure aragiak beste bat nai izaten dabe. Naimena geure gogoari dagokion almena da: augaitik gogoak, gorputzetik urten dagianean be, bere-berea daun naimen ori, beragaz daroa. Gogoaren kaltez eta bere aurka jagiten diran beste griña eta zalekeri oñeik ostera, gure aragiari dagokioz eta aragia il ezkerro, zalekeri oñeik be il dira: baña bien bitartean, gogoaren naimena ta aragiaren zalekeriak zuzentzeko ardura artu ta alegin egin beak dogula, berez gauza argia da-ta, esan beak ez dago. Zuzentasuna geure gogoaren naimenari dago-

kio: sendotasun eta neurĭtasuna aragi-zalekeri orein jauĭle ta zuzentzale dira.

Gizona lagun artean biziteko egiĭa da: beste enparauakin artu-emonak daukaz eta artu-emon oreitako gizonaren egitadak zuzentzen dituan onomenari, zuzentasuna deritxogu. Zuzentasunak, bakotxari berea emoteko agintzen dau: baĭa bakotxari berea emon al-izateko, bakotxari zer zor dautsaguĭ jakin beaĭ dogu. Zuzenak izango ba-gara — diĭo Bernardo Deunak — Jainkoari, Abeĭari, gurasoai ta beste lagun eta geide guztiai, geure eurakazko zora zeatz ordaindu beaĭ dautsegu. Jainkoari maitasun, guĭtze, menpetasun eta eskaĭ-ona; abeĭari zintzotasun eta maitasuna; gurasoai andizuren, laztantasun, lotsa eta laguntasuna; geure ongileai, euren onegite ta mesedien gomuta ta ordaĭa: nagosi ta zaĭagoai, menpetasun, lotsa ta itzala; baĭdiĭai kidetasun ta txera ona; menpekoai euren onerako izango dan ardua zoli-bizkoĭa; txiro ta beaĭtsuei eĭuki ta sorospena zor dautseguz.

Zuzenak izateko, oreik egin-beaĭ guz-

tiok zeatz bete bea' doguz; baña zuzentasuna, batez be, geure geide ta lagunakin daukaguzan artu - emonetan, oso - osorik saitzen da. Artu-emon oneitan iñoz be utsik ez egiteko, gure Jaunak irakatsi euskuzan arau bi oneik, beti gogoan erabili bea' geunkez: Lenengo araua auxe da: *Zuri bestek egitea nai ez zenduken gauzarik, zuk beste iñori ez egiozu egin.* (TOB. IV, 16). Bigarrena: *Besteak zeuei egitea nai zendukezan gauzak, zuek be eurai egiezuz,* (MATT. VII, 12). Arau bi oneik arduraz beteko ba'genduz, zuzentasun osoan biziko giñake: baña gizonak arau eder' oreik ez dabez jagoten eta zuzentasunaren kaltez oben eta uts asko egiten dira.

Gitxi batzuen onean eta askoren kaltean legeak ipinten dabezan agintariak, zuzentasunaren aurka dabiliz, agintz eta legeakin eriko geyenen ona bilatu bea' dalako. Euren menpekoai iminten dautsezan zerga ta zamak, zuzentasun-arauz, banatzen ezpa - dabez; legea austen dabenai bea' dan besteko zigo'ra ta betetan daben-

ai irabazi daben saria emoten ezpa-dautse, oġetan be zuzentasunaren kaltez dabiliz eta oben egiten dabe. Zuzentasuna ostikopean erabiltea, eġientzat guztiz kaltegarġizatendata auldu, makaldu ta geizotu egiten ditu: *zuzentasunak, ostera, eġiak jaso ta goratzen ditu ta agintarien eskubideai indaġ eta sendotasuna emoten dautse*. (PROV. XIV, 34 — XVI, 12).

Geure geide ta lagunakin daukaguzan saleroste ta aġtu-emonetan be, bakotxari berea emon ezik, zuzentasuna austen dogu ta eġudun egiten gara. Auġekoari bere ogasunetan kalte-egiten dautsanak, eġindako kalte oġen ordaġa zoġ dau ta kaltea euki daunari emon beaġ dautso. Iġoren gauzea, jabeak nai ez daula, aġtu ta beraġandu dauna be, gauza ori berori edo bere ordea jabeari emoteko beaġtua dago. Eġindako kaltea ordaindu al-izan eta ordaindu nai ez daunari; osturiko gauzea biuġtu al-izan eta biuġtu nai ez daunari, Jainkoak be eġindako eġu ta obena ez dautso partatu nai izango, ta bere zoġ ori ordaindu aġte, zeruko zoriona galtzeko aġiskuan dago.

## II

Zuzentasun-itx onegaz beti gauza bat ez dogu adierazten: batzuetan izen oñek onoimen guztien batza ta oñnitasun oso-oso adierazten dausku; beste batzuetan itz oñegaz bakotxari berea emotera lokatu ta igitzen gaituan onoimen berezia aitzen dogu; baña nai batera, nai bestera itz ori aitu, Andra Maria guretzat zuzentasunaren eredurik ederenetaikoa da. Eguzki ta ilargiagaz jazoten dana, orixe berori Jesu - Kristo gure Jauna ta bere Amagaz jazo oi da: Jesu - Kristo zuzentasun-eguzkia da ta Andra Maria zuzentasun oñen ilargi betea. Ilargiak bere argi guztia eguzkitik artzen dau; pizka bat ausituta bai, baña argi eder eta atsegintsua bialtzen dausku ta eguzkia gure begietatik eskutau danean, ilargi betea aren ispilu edera izaten da. Jesu-Kristo gure Jaunagan onoimen guztiak, eguzkiaren izpiak lez, argi egiten dabe: Andra Mariak, onoimen oñein argi - izpi guztiak beragandu ebazan, eta ilargian eguzkiaren izpiak lez,



bere Seme ta gure Jaunaren onoimenak be Ama samuř onegan argi egiten dabe: augaitik gure Ama Eleizeak Andra Maria-ri zuzentasun-ispĭlua deitzen dautso: *Speculum justitię, ora pro nobis*, zuzentasun-ispĭlua zarean ořek, gure aldez otoi-egizu.

Bakotxari berea emotea, ori zuzentza ba-da, Maria zuzenen arġean zuzenena izan zala autořtu beař dogu. Geure Jaun eta Jainkoari dautsagun zořa, Andra Mariak baņo obeto ġnok ordaindu ete-dautso iņoz? Guraso ta nagosiai zoř dautsaguzan itzal eta menpetasunean ġizan al - da iņor Andra Mariagaz bařdindu geinkenik? Txiro, beařtsu ta zorigeztokoakin ġizan al-da iņor Jaunaren Ama laztan au baizen amultsu, samuř eta eřukiořik? Goiko - Aitaren zuzentasuna zeatz eta osoro bete zedin, bere eřayetako Seme laztana eriotzara eskiņi ta opaldu eban; baņa eskintza onegaz zuzentasun eta eřukia, biak batera agertu ta erakutsi euskuzan; Jaunagazko zuzentasuna, gugazko eřukia. Bakotxari berea emon ezkerro, zuzentasunari dago-

kiona bete dogu: zoñaren-gañera emoten dana, zuzentasuna baño obeto esku - zabaltsun eta erukia izaten da: baña erukiak bere zeregiña ezin asi daike, zuzentasunak berea zeatz eta osoro bete baño len: augaitik, Andra Mariak bere Semea erioztara ukañi ta opalduagaz, eruki samur eta laztantsua egin ba-euskun, zuzentasunari egokiona lenago eta gonburu bete ebala autoñtu bear dogu.

Geure zeruko Amak irakatsi euskun zuzentasun ori ¿biotzez maite ete - dogu? Inñori kalterik ez egiteko ta bakotxari berea emoteko ¿bear dan besteko ardurarik ete-daukagu? Geure Jaunak diñosku: *zuzentasunez ogasun gitxi, gaiztakeriz asko baño, obe da.* (PROV. XVI, 8). Eta beste bein: *Gauza guztietan eretxi zuzena daukenak eta aldi oro zuzentasuna egiten dabena, zorionekoak izango dira.* (PSAL. CV, 3).

Zeure egite guztietan zuzen-zuzena izan ziñan Ama erukioñ ori, Goiko Jaun eta Jabeari dautsagun zoñ andia al bait ondoen ordaindu dayogun, orain eta beti lagun

zakiguz: geure geide ta lagunakin daukaguzan aritu-emonetan zuzen eta zeatzak izateko bea' dogun goiko eska'ra jadetsi eiguzu ta zuzentasun osoaren gose-ega'ria gure biotz ba'nean sa'rtu ta ba'endu eiguzu, gose-ega'ri ori daukenai Jaunak eski'ni dautsen zorion aseko' eta bete-betea zeruetan lo'rtu daigun.

**LOREA:** BEATI QUI ESURIUNT ET SITIUNT JUSTITIAM, QUONIAM IPSI SATURABUNTUR. (MATT. V, 6). Zuzentasunaren gose-ega'ri diranak, zorionekoak dira, euren gose - ega'ri ori aseko yake-ta.

**ERABAGIA:** AGONIZARE PRO ANIMA TUA ET USQUE AD MORTEM CERTA PRO JUSTITIA. (ECCLI. IV, 33). Zeure gogoaren aldez bu'ukatu zaite ta zuzentasunaren aldez eriotzara'no jokatu egizu.





## Amazortzigaren egunerako irakurkizuna

**Andra Maria sendotasunaren eredu gaia**

### I

Griña ta lerak geure izate oni dagokiozan agerpen eta kimuak dira-ta, griña bako gizonik ez dago. Eurenez txarrik dirala ezin esan geinke; baña geure adimenaren eretxi zuzenen kaltez diranean, dongakerira naraztu garoez eta au sariegi jazoten dalako edo, griñaen izen oregaz, geyetan beintzat, txarerako daukaguzan lera ta makurkeriak adierazten doguz. Gure griña guztiak ero edo zustrai bi baño ez daukez.

Aragia berez gauza on zalea da: atsegin eta bigunkeriak nundik loituko, atsekabe ta neke-miñak nundik ufinduko ibiltan da beti; baña bein baño sariego norbaitek edo zerbaitek atsegin emoten dautsana kendu ta min emoten dautsan gauzaren bat arerazoten dautso, ta orduan, sumindu ta

aseñaturik, ori egin dautsanaren aurka jagiten da. Atsegiñetara makuñtzen gaituan lera ori, irits edo garamura deritxogu: aseñatu ta suminduteko daukagun beste aoni, sumimena deitu geinkio. Beste griña txar guztiak ero bi oneitatik erneten dira ta augaitik, bere biotz baruan zuzentasun eta bakea ipini nai dituan gizonak, griñaen ero bi oneik ilerazo ta neurira ekañi begiz.

Griña suminkoña, batzuetan lañegi ausañtu ta beste batzuetan ezerezagaitik ikaratu ta kikildu egiten da, ta beañ dan neurira ekañteko, kemen, adore ta biotzeko sendotasuna beañ dira. Ausañtasun eta bilduñ lañegien bitañtean dago, ba, biotzeko sendotasun ori. Biotzez sendoa dan gizasemea, ariskuetañ premiña barik ez da joaten: baña gauza zail eta gatxak egin beañ diranean be, ez da bilduñtu ta ikaritzen. Geure bizitz onetako lan, neke ta ezbeañak, eriotzako ariskuak eta bizitz zuzena egiteañen, geure bidean aurkitu geinkezan gaiztasunak, kikildu barik, kemen eta adore andiz arñtu, eutsi ta eroate-

ko indaía, sendotasuna deritxogun onoi-  
menák emoten dausku. Sendotasun ori  
osoro beaíezko dogula iñok be ezin uka-  
tu daike. Geure ziñestea ukatu baño len  
geure bizia galtzeko be gertu egon beaí  
dogu; zuzentasunaren aldez edozein neke  
nai ezbeaí igaro ta eroateko be bai; baña  
biotzeko adore ta sendotasun barik, ori  
ezin egin geinkela edonok dakuske. Jaun-  
aren legea gorde ta betetako, bein baño  
saíiago gaiztasun eta eragozpenak aurki-  
tzen doguz: batetik, geure arerio gaizki-  
ñak zirikatzen gaitu; bestetik geure ara-  
giaren griña dongak gaiztakerira garoez:  
arerioaren ziltzaldi oíei jaíki beaí gaya-  
koez ta geure griña donge oneik ezi beaí  
doguz; baña sendotasun barik ez batau ez  
beste ori egin geinke. Gure oraingo bizitz  
au gudu ta buíuka dala bai-dakigu: *gudu  
ta auska onetan beaí dan lez jokatu ez  
dagianak, garaitzalién zorion-burestunik  
ez daula loítuko*, deun Paulo bialdunak  
argiro diñausku, (II, TIM. II, 5), eta edo-  
zein gudutan biotzeko sendotasun ori, iz-  
kiluak baizen beaía ta beaíago dala ¿nok

ez daki? Augaitik, kristiġau-arauz bizi alizateko, sendotasun ori geugandu ta geuretu beaġ dogu.

Gauza oro arira datorkiguzanean, laġegi poztu ta aġotzen gara: okeġ uġteten dauskunean ostera, ariġegi jausi, atsekabetu ta kikilġu. Bata ta bestea dira sendotasunaren kaltez: biotzez sendoa izan nai daunak, zorion eta zoritxaġetan gogo baġdin-antzekoa jagon beaġ dau, zorionakin laġegi poztu ta zoritxaġekin laġegi kikilġu barik. Baġdintasun oni eutsi ta iraunazoteko, zorion eta zoritxaġak aldizka etoġten dirala gomutau beaġ dogu. Eta neke, ezbeaġ eta zoritxaġ oġeik gure indaġak baġno geyago baġlira, orduan geure begiak goġa jaso ta geurez ez daukagun sendotasun ori, Jaunagandik itxaron geinke. *Nire sendotasuna neure Jauna da,* (Ex. XV, 2) esan beaġ dogu. *Jaunagan itxaroten dabenak, sendotasuna bera-gandik aġtu daroe.* (Is. XL, 31). *Eta Jainkoa gure aldeġ egon ezkeru, gure kaltez ġnok ezer egin daike?* (Rom. VIII, 31). *Jaunak ni sendatu ezkeru, zoritxaġik an-*

*dienak jasan eta gauzarik gatxenak be egin neinkez.* (PHIL. IV, 13).

## II

Gure Jauna ta bere Ama kutuna, sendotasunaren eredu galen eta gorenengoak dira ta jañabiderik ederenak emon daukuez. Gauza onetarako gaiztasun eta eragozpen geyago aufkitzen doguz txafetarako baño: eragozpen eta gaiztasun oñein bildurak gure naimen gaizo au bide zuzenetik aldendu ta bide okeñera eroan daike ta bildur ori guztiz kendu, edo beintzat gitxitu ta neurira ekartea, sendotasunaren berarizko zeregiña dala diñogu. Gaiztasun oñei luzaro eutsi ta arpegi emotea, sañi askotan eragozpen oñeik egotzi ta ostikopean zapaltzea baño be, egikizun zail eta gatxagoa izaten da: augaitik deun Tomas jakitun andiak diño kalte, ezbeñ eta zoritxarñak gogo sendoz arñu, jasan eta eroatea, sendotasunaren agerpenik nagosiena dala.

Sendotasun osora eltzeko, iru mala dagoñ. Geuk bilatu barik, bapatean eta itsu-



mustuan lez datořkiguzan ezbear eta kalteak, kikildu barik, sendoro jasan eta erotea, ori da lenengo malea. Egikizun andi, astun eta gatxak egin eta zoritxař andiak jasan eta eroateko une, aldi ta erak geure gurez bilatzea, ori da bigařena. Eta gauza andi ta gaitz ořeik egiteko, nai berez aurkeztu yakuzan, nai geurez bilatu doguzan une ta era ořeik, poz eta atsegin andiz artu, besařkatu ta laztandutea, au da irugařen eta gorengo malea. Onelan egiten eban gure Jaunak, iřoanean: *Ene buru au neure odoletan gořituta ikusi arte, ene biotz au artega ta estu dago.* (LUC. XII, 50). Bere zanetako odola lenbailen isuri nai ebalako, esaten eban entzun dozun ori. Eta egiz, gure Jaunak bere nekaustean (pasiřoan) erakutsi euskun sendotasuna, benetan ařigařia da. Ezek ez eban atzeratu: begi aurean ekusazan kurutze, untze, irain, iři ta neke-min izugařiak, gure Jaunaren sendotasuna bape ez eben ausi ta auldu: bestera, su andiak eguř geyago ezaři ezkerro, bero ta indař bařia arțzen daun lez, gure Jaunaren sen-

dotasunak be, neke, lof eta zoritxař andi-agoakin, kemen eta adore bařia arřtu eban eta mařdo, sendo ta indařtsuago egin zan.

Eta kurutzearen oņean zutik egoan Ama eřukaři aren sendotasuna ĩdan bestean nok adierazo daike? Egiz, bere bizitzan zoritxař askok biotzean ikutu eutsen: baņa bere eřayetako Seme kutuna, gaizkiņik-gaizkiņena bai'litzan, kurutze lotsagaři aretan untzez josita bere begiakin ikustea; judařak egiten eutsezan izeka ta iřiak eta arpegira jauřtiten eutsezan aņen eta birau zakařak, bere begi lařiakin entzutea, Ama samuř onentzat zoritxařik andiena ta gauzarik samiņena izan zala eřez uleřtu daikegu. Neke ta zoritxařik mingotsenak Ama samuřaren gaņera datoz: baņa Ama laztantsua kurutzearen ondoan zutik dago, sendoro dago; adore ta kemenez bere gogoa jantzi dau ta luřeko emakume biguna baņo obeto, zerutik jatziriko sendotasuna dirudi.

Bizitz zuzena egiteko asmuak, bein baņo sařiago arřzen doguz; baņa gaiztasun pizka bat auřkitu orduko, jeurt-egin eta

bañiro lengo bidera itzultzen gara. Geure asmo onetan ain makalak izan ezkerro, Jesu-Kristo'ren gudari ta Andra Maria'ren seme-alaba gareala ¿ziñetsi ete - geinke? ¿Zelako gudaria da, bere buruzagia aurretik joaten eta adorez beterik ariskuetan sartzen ikusi-ta, jaraitu nai ez dautsana? Gure Jauna gure aurretik doa, geugaz doa; gure biderakusle ta laguntzale da: Ama laztana be aurretik doa ta lagundu nai dasku. Jaun sendo ta Ama adoretu onein ondoan ¿makal eta koldafak izango ete-gara?

Sendotasunaren eredu bikain zayakuzan Ama laztan orek, zure seme - alaba gaizo-makal oneik sendatu gaizuz: bein arturiko asmo zuzenai sendoro eutsi, zeruko bidean aurkitu daikeguzan gaiztasunak egotzi ta zeure onatzen jarai beti auffera joateko beaf doguzan adore, kemen eta sendotasuna esku-zabalez emon eiguzuz.

LOREA: OMNIA POSSUM IN EO QUI ME CONFORTAT. (PHIL. IV, 13). Sendatzen naun

Jaunaren laguntasunagaz, edozer gauza dagiket.

ERABAGIA: VIRILITER AGITE ET CONFORTAMINI. (I. COR. XVI, 13). Gizon-arauz lan egizue ta sendotu zaiteze.





## Emeretzigaren egunerako irakurkizuna

### Andra Maria neuritasunaren eredu garbala

#### I

Gure aragi ustelkoñ onek, min emoten dautsen gauzetatik al daun bestean igesegiten dau: atsegin emoten dautsenak, ostera, gar andiz maitatu ta bilatzen ditu. Gauza latz, mingots eta gatxetan kikildu ez dedin, sendotasunak eutsiten dautso: gozo ta atsegintsuetan, zalekeri okeñak gaiztakerira nañazu ez dagien, neuritasuna osoro beañezkoa dau. Geure ekandu ta egitadetan, geyegiz eta gitxiegiiz utsegin daikegu: augaitik gure ekandu on guztiak euren neuria beañ dabe. Neuritik urten ezkerro, nai gitxiegiiz nai lañegiz urteten dogula, ekandu onaren ordeiz ekandu txaña añtzen dogu: augaitik neuritasuna, onoimen orokaña danekotz, beste guztietan sañtzen da ta guztiai ta bakotxari beañ daben neuria emoten dautse.

Baña gañamuraren indaña, ikutuz artu geinkezan atsegiñetan, osterantzekoetan baño andiago izaten da; augaitik atseginzalekeri nagosi oneik ezi ta neñira ekañteko, beste ezetan baño beañagoa da neñitasuna deritxogun onoimen ori. Atseginzalekeri nagosi oneik zeintzuk diran edonok daki. Gizonak, bere bizia jagoteko ta bere endeari eutsi ta iraunazoteko, egin beañ dituan gauzetan, atsegin nagosi oñeik idoro ta añañkitzen ditu. Bakotxak bere buru ta bizia jagoteko, naiko izango dan beste jan eta edan beañ dau; giza-endeari eutsi ta iraunazoteko, seme-alabak aztea be gauza beaña da. Bakotxaren bizirako jan-edana ta gizadi osoaren iraupenerako seme-alabak aztea, gauza beañak diralako, gizasemea egikizun oñeitara itzultzen daun iñits edo gañamura, berez txaña dala ezin esan geinke: baña zalekeri oñeitan beste enparauetan baño eñezago neñitrik urten daikegu ta bein neñia ausi ezkeru, grña oñeik, gañztakeri askoren iñuri loya izan daitekez; augaitik zalekeri nagosi biok ezi ta neñira dakañzan onoimenari, jakitunak

neurĭtasuna deritxoe. Jan-edanera geyegi itzultzen gaituan griĭa txarari, salokeria deritxogu: aragizko atsegiĭetara garoazan gaĭamura ori, aragikeria: baĭa salokeri ta aragikeria ta batez be griĭa bi oĭeik zuzentzeko beaĭ diran onoimenak, gerotxuago bana-banan azalduko doguz eta, augaitik, oraingoz edozelako atsegiĭetan euki ta jagon beaĭ dogun neurĭtasunaĭ ekingo dautsogu.

Gure aragi ustelkoĭ au atseginzale andia dala bai - dakizu: *gizonaren biotza, bere zentzun eta gogamena*—diĭo Jaunak—*gaztetatik txarerako ayeĭ eta makuĭ dagoz.* (GEN. VIII, 21), eta makuĭkeri oĭeik adionez arĭteztu ezik, gaiztakeri asko eragin leikeguez. Bigunkeri ta atsegiĭetan gure aragi zital au eztitan lez egoten da: iĭdura ta laztasunak, ospiĭa baĭo mingotsago izaten yakoz; baĭa okelea, gatzik emon ezik, lasteĭ usteltzen dan lez, beti atsegin-eztitan bizi dan gizasemea be, lasteĭ emetu, bigundu, zikinkeriz oĭbandu ta usteldu egiten da. Jolas eta atsegiĭetan, beste edozein gauzetan lez, neurĭa ipiĭi

beař geunke. Geure bizitz au pizka bat arindu ta geure zeregiñak ondo egiteko beař diran beste jolas eta atsegin artu ta erabili daikeguz; baña ortik auřera geyen-etan kaltegarı izaten dira, atsegin lařegik gure gogoia emetu, auldu ta makaltzen dabelako. *Aragi-arauz bizi diranak* — diño deun Paul, Jaunaren bialduak—*aragiaren gauzak bakařik uleřtzen dabez: gogorauz bizi diranak, osteria, gogoari dagokiozan gauzak ondo oartu ta jakiten dabez.* (ROM. VIII, 5); augaitik, gogoari ta onen betiko zorionari dagokiozan gauzak ondo aitu ta uleřtu nai dituanak, bere bu-ruari zentzunetako atsegin asko ukatu beař dautsaz. *Zeuen gaři ta gultzuřunak ondo lotu ta estutu egizuez.* (LUC. XII, 35) diñausku Jaunak, eta gultzuřunak estutze ori, aragiaren griñak, atsegin-zalekeriak bezau ta ezitea dala Eleizako gurasoak diñoskue. Bere soñeko jantzia luzegi daukanak, otsein-lanak egiteko nai bide luzean ibilteko, bere soñeko luzegi ori gařira jaso ta an lotzen daun lez, guk be geure Jaunaren otsein zintzoak izan



eta zorioneko bidetik ibili nai ba - dogu, luřeko gauzetara nařaztuten gaituen atsegin-zalekeri ořeik ezi, iñausi ta lotu egin beař doguz. Onelan diño deun Paul bialduak: *Jesu - Kristo'ren otsein zintzoak, euren aragia bere ekandu-txař eta gařamura okeřakin kurutzean untzez josi dabe.* (GAL. V, 24).

## II

Gure Jaun onak eta bere Ama maiteak atsegin-neurřtasun au euren bizitz guztian irakatsi euskuen. Zeure Jaunaren jayotz, bizitz eta eriotzea gomutau egizuz eta zeru-luřaren jabe zan Jaun andi ořek, bere jayotzatik eriotzaraño, aukera ta atsegin gitxi euki ebazala autořtu beař izango dozu. Bere Ama kutunaren eguneroko jakia be, ildura ta laztasunak eta bere eguneroko edakia, atsekabe ta samintasunak izan zirala, buru-auste andi barik ezagutu daikezu. Gogoko atsegin garbietan Ama-Seme oneik, aberats - aberatsak izan ziran; baña soñari dagokiozanetan beste iñor baño txiro ta landeřagoak; gogoko atsegin

garbi oñeik ugari euki ebezan; baña gorputzekoak, benetan urí. Gure Ama laztan onek baizen ondo, beste iñok ez dau aragia ezi, berak baizen ondo ez ditu iñok aragi-zalekeriak neufira ekañi.

Gure aragi atseginzale au egikizun onetarako nagi-mukeña ta txarretarako, makur-bizkoña dala orok dakigu; augaitik, abere uzuak buztarípean lez, adimen-araupean buztarñtu ta, naidaula nai ez daula nai, bezau ta ezi egin beañ dogu. Geure zentzunak añetaz zaindu, biotzeko gurariak arduraz zuzendu ta aragiaren lenengo zirkin eta igikun gaiztoak adionez eta adorez zapaldu ta irato ba-daiguz, geure aragi biurñi au, berez ezigatxa izan añen, Jaunaren laguntasunagaz guztiz bezau ta eziko dogu.

Zoratu eragiten dauskuen luñeko atsegin oñein irudiak geure zentzunetatik sarñtzen yakuz. Onelan, geure barñuan daukaguzan griñakin, atazko arerioak alkarñtzen dira: etsai bi oneik alkarñtu ezkerro, indar andiagoa dauke ta askozaz be kalte geyago egin leikegue. *Gogoaren eriotzea* —

diño Jeremias igarleak — *zentzunetako leyòetatik sartzen da*. (JEREM. IX, 21): augaitik ba, atazko arerio oñeik barukoa-kin, geure kaltez alkaritu ez dakiguzan, zentzunetako leyoak ardura andiz jagon bear doguz. Gure biotzeko naikun eta gurariak, batzuetan lañegi jatsi, beste batzuetan lañegi igoten dira. Naikun lizun, zakar eta dolorak, kafakaldoaren antzera, luñeko basa ta zikinkerietara jatsi oi dira, ta indar artzen itxi ezkerro, beste gurari zindo ta jatorak be, euren atzean naraztu daikiez: augaitik, geure biotzetako naikunak gora jaso ta betiko poz, atsegin eta zorionak dagozan tokian josteko alegin egin bear dogu. Beste batzuetan, buru-erexitasun lañegiagaz arotu ta poztu egiten gara: orduan gure biotzeko naikun oñeik goregi doaz eta geure burua amilduteko ariskuan ipinten gaitue. Onelako naikun aroak, apaltasunaren bidez, bear dan malaraño eratzi daikeguz. Naikun itsuak, geure ziñesmen eta adimeneko argiagaz argitu geinkez: baña garamurak bere arnasa loyagaz zitaldu dituan gura-

riak, ildura ta laztasunen osakai ta sendagalua bea' dabe.

Aragiaren zirkin eta igikun gaizto o'ei, gure adimenak o'atu ta naimenak bere bayetza emon a'ite, e'ru ta oben ez dira; ba'na jatorizko obenetik dato'z eta obenera garoez. Sa'itan geuk nai ez dogula, igikun o'ei berez asi ta jagiten yakuz, ba'na beste batzuetan jagiteko une ta eretia, geuk emoten dautsegu. Eragotzi al-doguzanak eragotzi ta geuk nai ez dogula jagiten diranak, albait laste'ren ezi ta irato bea' doguz. Atsegin-zalekeriak neu'ira eka'iteko bidea, auxe da: zentzunak a'etaz jagon, biotzeko naikun eta gurariak arduraz zuzendu ta aragiaren zirki'nak laste'rtxe ezi ta irato ba-dagizuz, neu'itasunaren jabe izango zara.

O'iban barik so'ru zi'nalako, aragiaren ga'amura ta atsegin - zalekeri gaiztorik euki ez zendun Ama garbi ta samu' ori, zeure seme - alaba gaizo onekin e'ukitu zaite ta geure gri'na dongeak ezi ta atsegin-zalekeriak neu'ira eka'i daikeguzan, goiko eska' eta laguntza berarizkoa opa-ro emon eiguzuz.

LOREA: SI AUTEM SPIRITU FACTA CARNIS MORTIFICAVERITIS, VIVETIS. (ROM. VIII, 13). Gogo-indaġez aragiaren griġnak iġerazi badagizuez, biziko zare.

ERABAGIA: OBSECRO VOS... ABSTINERE A CARNALIBUS DESIDERIIS, QUÆ MILITANT ADVERSUS ANIMAM. (I. PETR. II, 11). Gogoaren kaltez diran gurari ta atsegiġnetatik aldegin daizuela eskatzen dautzuet,





## Ogeigaren eguneroko irakurkizuna

### Andra Maria, apaltasunaren eredu oso-oso

#### I

Lau onoimen garai ta nagosienak, beste enparauen orpo lez diran ofeik, azkenengo lau egunetan azaldu doguz. Orain ekanduai dagokiezan beste batzuk azaldu ta adierazo nai geunkez eta albait ondoen egiteko, beste guztien jasoan (oñafi) lez dan apaltasunetik asiko gara. Adan'en seme-alaba gaizo onei arokeria unetaraño saftu yakun eta arokeri itsu ori, gaiztakeri oroen efo ta zustrai dala geure Jaunak diñosku. (Eccli. X, 15). Arokerizko geizo ori osatu ta bere kalte andiak geugandik urindu al-izateko, geure buruak beratu, eratsi, apaletsi ta makuítzea baño beste biderik ez daukagu. Ain beañezkoa dogun apaltasun ori ¿zer ete-da, ba?

Lenengo ta bein apaltasunak geure buruen txikitasun eta ezereztasuna ezagutu

eragiten dauskuz: baña geure txikařtasunaren ezauera ori, geyagoko barik, egizko apaltasuna dala uste ba'gendu, okeř gengokez. Norbere txikařtasunaren ezauera argi ta garbia, apaltasunerako bidea bada; baña egizko apaltasuna, oraindik ez. Norbere ezereztasuna argiro dazaun gizonak, zintzo ta egizale bada, bere burua ezereztzat euki beař dau, ta beste enparauak txiki ta ezereztzat ba'leuke be ezin aseřatu daiteke, atsegindu ta poztu baño, besteak beratzaz dauken eretxi labuř eta txiki ori, egi uts eta garbia dala ondo daki-ta. Onelan ba, norbere txikařtasun eta ezereztasuna ondo ezagutu ta norbere gurez, bere burua beratu ta eratsi dagiana, ta beste enparauak be, eretxi labuř eta txikař ori beratzaz eukitea zintzoro nai dauna: orixe bai, orixe biotzez eta benetan apala (*umĭla*) da.

Biotzez apala dan gizasemeak, bere burua gitxitzat dauko: andizuren, ospe, gorapen eta ořelako gauzetatik iges - egiten dau: zeregiñik zakař eta berenengoak be, atzerapen barik, egiten ditu, eta datorkio-

zan alke ta lotsariakin atsekabetu iñoz bez eta bein baño sariago poztu egiten da. Eleizako irakasle batzuk apaltasunaren mala asko imiñi daroetz; baña guztiak bana-banan adierazteko, irakurkizun au lařegi luzatu beař izango geunke - ta, Loyola'tař Eneko deunak aitatzen dituan iru malak bakařik azalduko doguz. Nagosiagoaren menpean zintzoro egon eta norbere burua, idekoena baño obetzat ez eukitea, ori da lenengo mala: idekoaren menpean jaři ta, txikiagoaren auřez - auř be, norbere burua ez obetsi, ori da bigařena: norbera baño gitxiago danaren menpean egon eta nagosiagoa ba'litz lez, lotsa ta itzala erakutsi, au da irugařena.

Apaltasun au beste onoimen guztien eustazpi ta jasoin dalako ta Jaunak apalai bakařik entzun eta bere eskařa emoten dautselako, malarik-mala apaltasun sakon-sakonera jasteko alegin egin beař geunke. Geure burua geure guraz erasten badogu, Jaunak bere eskua luzatuko dausku ta gora jasoko gaitu. *Ařotuten dan edonor* — diño Jaunak — *eratsia izango da,*



*ta bere gurez apaletsi ta jatsi daitena, jaso ta goratua. (LUC. XVIII, 14). Egiz diñotzuet; umetxuen antzeko egiten ezpazare, zeruko zorionera ez zare saftuko. Umetxu ořek lez, bere burua apaletsi dagiana, zeruetan andiena izango da. (MATT. XVIII, 3).*

Jasoin makala daukan etxea, luzaro zutik ezin egon daiteke: apaltasunik ez daukan gizona be, Jaunaren aizkitasunean luzaro ezin iraun izango da. Jaunaren aizkitasunean irauteko, bere laguntasuna beař dogu: baña *Jaunak bere laguntza ori apalai bakařik emoten dautse. (I. PETR. V, 5). Bere burua apalesten daunaren otoitza, odayetan zeař igongo da; Jaunagana uřeratu ařte ez da geldituko ta Goikoak bere begiak itzuli ařte, ez dauandik alde-egingo. (ECCCL. XXXV, 21). Apal eta otzanen eskaria zuri, Jaun ori, beti atsegin izan yatzu. (JUDIT. IX, 16). Jauna goyan dago ta apaltasunari begiratzen dautso, diño Dabit igařleak. (Ps. CXXXVII, 6). Eta itz oneik adierazteko asmoz, deun Austiņek diño «Egiz,*

Jauna, goyan dago; baña zeure burua apa-  
 lesten dozu ta zeuganaño jasten da: aro-  
 tzen zara ta iges-egiten dautzu. ¿Zegaitik?  
 Ba, goyan dagolako: orixegaitik apalai  
 erukiz begiratzen dautse, goratu ta oga-  
 sunez betetako: aro ta andiputzak urinetik  
 ezagutzen ditu, eratsi ta zapaltzeko».

## II

Zenbat eta andiago zarean, ainbat geya-  
 go zeure burua apaletsi egizu ta Jainko-  
 aren aurrean abegi ta afera ona aurkituko  
 dozuz. (ECCLI. III, 20). Ori diñausku Jaun-  
 ak bere igarlearen agoz eta apaltasunik  
 bikañenaren eredu dan Andra Mariak egin  
 ebana be, orixe da: Jaunak geyago goratu  
 ta berak bere burua geyago eratzi ta apa-  
 lago egin eban. Jaunaren Amatzat autua  
 izan zala Gabirel aingeruak adierazo eu-  
 tsanean, berak Jaunaren mirabe (otsein)  
 txikara zala erantzun eban. Jaunaren Ama  
 izan ezkerro, emakumerik bikañena ta zeru-  
 -lurko andrarik gurgariena zala, zetan  
 esan be ez da: au ta guzti be, Jaunaren  
 Ama zan emakume zoragari ori, lenguse-

ñari beragana etor'teko astirik emon barik, berau baño askozaz gitxiago zan lenguseña iker'tzera joan zan eta bere mirabe bai' litzan aren etxeko otsein-lanak apal-apalik egin ebazan. Elisabet'ek bere aurrean ikusi ebaneko: emakume guztien artean, done-tsia zu, Jaunaren Ama zarean ori, esan eutsan eta berak lenguseñaren gorapen ori, apaltasunik andienagaz erantzuten dau-tso: *Nire gogoak Goiko Jauna andietsi eta goratzen dau, bere mirabe onen txi-kañtasuna aintzat artu daulako.* (LUC. I, 48). Orbanik txikienagaz be iñoz ezain-du ez zalako, garbikunde legea bete bea'rik ez eukala bai-dakizu; baña bere Semea jayo zanetik be'rogeigaren egunean, beste emakumen malara bere burua eratsi - ta, beste edonor izan ba'litz lez, eleizan sa'rtu zan eta beretzat ipiñita ez egoan garbi-kunde lege ori, zeatz eta zintzoro bete eban.

Bere Seme ta gure Jaunaren goraldietan Ama apa] onek ez eban iñoz bere burua agertu; baña Semearen laido, alke ta lo-tsari gorietan, Ama samu'ra be Semearen

ondoan dago, onen lotsariak bere gain aitzeko. Andrarik andiena izan eta bere eretxiz txikiena egin zalako; gorenengo mañan egon eta bere gurez berengo mañara jatsi zalako, Goiko - Jaunak gogo ta soin (gorputz eta arima) zeruetara jaso eban. *Bere burua apalesten dauna, jaso ta goratua izango da.* (LUC. XVIII, 14): ori esan eban Jaunak, eta Andra Mariagaz Jaunaren agintza ori, zeatz bete zala argiro dakusgu: Maria bere eretxi ta bere gurez berengo mañara jatsi zan eta Jaunak zeruetan beti - betirako gorengo mañan jañi eban.

Gu be, geure ezereztasuna ondo eza-gutuko ba'gendu, apalak izango giñake; baña geureak ez diran gauzakin, geure-geureak ba'lira lez, arotzen gara ta gauza on o'reik emon dauskuzan Jaunari irain egiten dautsagu. *Iñogandik artu ez dozun gauzarik ¿zer daukazu? Eta daukazuzan gauza guzti o'reik, iñorgandik artu badozuz ¿zegaitik arotuten zara?* — diño deun Paulo bialduak. (I. COR. IV, 7). Eta Jaunak: *agindu yatzuezan gauza guz-*

*tiak egin daizuezanian, esan egizue: jopu baldar eta otsein ezerezak gara: egin beaŕ genduana, egin dogu ta besterik, ezer bez.* (LUC. XVII, 10). Gure gorputz au usteltasuna baño ez da: geure gogoa saŕiegi obenez orbandu dogula geuk daukigu. Gorputzeko usteltasun ori ta egin doguzan oben eta gaiztakeriak, bai, geureak dira; baña beste enparau guztiak Jaunaren eskutik artu doguz. Ondo begiratu ezkerro, ba, geure buru au zegaitik apaletsi bai - daukagu. Nondinai letoŕkiguzan laido, alke ta lotsariak, lenengo eroapenez, urango eŕeztasunez, eta gero, alaitasun eta pozez artu, jasan eta eroango ba'genduz, geure Ama zeruko oŕen antzekoak izango giñake eta bera ain gorra jaso eban Jaunak, gu be goratuko gindukez.

Jaunaren eskaŕez beste iñor baño andi-ago ta zeure eretxiz beste iñor baño txikiago izan ziñan Andra apal eta Ama samuŕ ori, geure eredu ta jaŕaibide izan zaviguz, eta zure antzera, geure eretxi, gurari ta egite guztietan, apal - apalak izan

gaizan, goiko indaragaz geure asmo onetan sendatu gaizuz.

LOREA: QUICUMQUE HUMILIAVERIT SE SICUT PARVULUS ISTE, HIC EST MAJOR IN REGNO CÆLORUM. (MATT. XVIII, 4). Umetxu onek lez, bere burua apalesten dauna, zeruetan nagosiena izango da.

ERABAGIA: HUMILIAMINI SUB POTENTI MANU DEI UT VOS EXALTET IN TEMPORE VISITATIONIS. (I. PETR. V, 6). Jainkoaren esku altsupean zeuen burua apaletsi egizue, ikerkude-aldian goratu zagiezan.





## Ogetabakaren egunerako irakurkizuna

**Andra Maria, begirune ta eratasunaren**  
*(modestiaren) eredu garbia.*

### I

Gizonaren arokeri nai apaltasuna bere arpegi ta soñean agertu oi dira. Aroa nor eta apala nor dan begirakun, izketa, ibilera ta egikeretan, uts andi barik, ezagutu geinke. Biotz baruko arokeri zitala, apaltasunak osatzen dau: azaleko andikeri ta buru-erexitasun lañegi neurira dakañzan urengo onoimen oni, eratasuna deritxogu: augaitik eratasuna gorputzaren apaltasuna dala Eleizako irakasleak sañi diñoskue. Egiz, soñaren apaltasun ori, biotzeko apaltasun barik, azalkeri iguingañi ta guzur utsa baño ez litzake izango; baña bañeneko apaltasunaren agerkun eta irudia danean, soñaren apaindura edeña, ekandu on-ona ta, Eleizako irakasleak diñoskue-nez, beste onoimen guztien, jagole bikaña

izaten da. Eratasunak, gure gorputzaren igikun guztiak, bakotxaren bizibideari dagokion lez, arautu ta zuzentzen ditu. Guztioren bizibidea ba'rdiña ba'litz, eratasuna guztioentzat ba'rdiña litzake; baña gizonen bizibidean alde andiak dagozalako, eratasunak batzuri, besteai baño geyago eskatzen dausku. Aonelan, edozein mutil gaztek, kezka barik, egin leikezan gauza asko, gizon eskonduak egingo ba'litu, ez litzakez ondo egongo: e'riko edozein gizonek, iñori ja'raibide txar'ik emon barik, esan eta egin leiken guztia, eliz - gizonak egingo ba'leu, berari dagokion eratasuna ta bere buruari zo'f dautsan lotsa ona o'banduko leukez.

Bakotxak, bere ogibide ta bizibideari ondo ez dagokion gauzarik, iñoz esan eta egingo ezpa'leu, guztiok eratsuak izango giñake; baña uskeri-zale ta buru-erretxiak izaten gara-ta, geure begirakun, izketa, janzkera, ibilera ta egikeran, a'ropuzkeritxua erakusten dogu eta augaitik, egunero eratasunaren kaltez, uts askotxu egiten doguz: uts txikiak sa'ri, baña uts andiak be bai bein baño sa'riago.



Gaur egunean, soñeko jantzietan beintzat, nor nor dan eta bakotxaren bizibidea zein dan, ezagutu be ezin leike: bekoak goikoak baizen ondo, txiroak be aberatsak baizen apain eta ederĭto jantzi nai dabe ta neskatil geyenak, euren soñekoetan, andikien alabak dirudie. Au ez dago ondo, aĭokeria da-ta; baña ori baño txaĭagorik be egiten da. Soñekoetan janzkera baĭien jopu diran emakume buru - eretxiak eta, batez be, euren soñekoak goitik edo betik labuĭregi, nai gorputzean estuegi erabilten dabezan anderaño gangaĭtxuak, emakume zintzoai dagokiezan oitura ta ekandu onak ausi ta kalte asko egin daroez. Gaztien odolak bereĭ diraki: *emakumen janzkera lizun eta apaindura laĭegiak, aragiaren gaĭamura biztu ta iziotu daroe* (Eccli. IX, 18) ta sukaĭ ustelak gorputza lez, janzkera nasai oĭeik gizaseme askoren biotzak usteltzen dabez. Idun eta bulaĭik erdia biloizik erabilten daben neskatil eta emakume gangaĭ oĭein asmua, beti txaĭa dan ala ez nik ez dakit; baña, dana - dala, euren janzkera oĭegaz askoren jausbide

dirala iñok ezin ukatu daike, ta au'ekoari oben eta gaiztakerirako bidea emon baño, bolu-a'ria saman lotu ta itxas - ondarera jau'rtiak izan obe litzakegula, egunen baten guztiok epaituko gaituan Jaunak diñosku: (MATT. XVIII, 6). Emakumen apaindura la'fegiak be kalte asko egin daroez. *Ede'kun eta apaindura o'frik diralata, asko galdu dira*, diñosku jakitunak (ECCLI. IX, 19), eta ori dala-ta, egiten diran e'ru ta obenak norbaiten lepora jausiko dirala, zetan esan be ez da. Buru - eretxia ba - zara; zeure politasunak a'rotzen bazaitu, aragiaren ede'rtasun ori beda' igara ta bere bizia, soloko lorearena baizen labu'ra dala (ISAI. XL, 6) gomutau eta oldoztu egizu. *Politasuna, guzu'rtia ta ede'rtasuna, gauza utsa dira*—diño esakunetako idaztiak. *Jaunaren bildu' dan emakumea, ori bai, orixe goratua izango da.* (PRV. XXXI, 30). *Jakituna bere jakituri-agaz, inda'rtsua bere inda'ragaz, aberatsa bere aberaski ta ogasun o'frikaz, ez bediz a'rotu; zerbaitegaz a'rotu nai dana, neu bere Jaun au, ondo ezagutzen nau-*

*lako, arotu bedi, diñosku Jaunak Jeremias igarġearen bidez. (JEREM. IX, 23).*

## II

Edozelako zugatzak azala (kortikea) ta mintza, euki daroetz; euren azal eta mintz ori eratzi ezkeru, beingo baten igarġzen dira. Gure soñaren igikun, zirkin eta egitadeak, bakotxaren adin eta bizibideari dagokion lez, zuzentzen dituan eratasuna, gure biotz-bařuko onoimen guztien azal eta mintza lez izan oi da, ta onelan, euren azal eta mintz ori uřatu, eratzi ta kendu ezkeru, biotzeko onoimenak be laster igarġtu ta galtzen dira: augaitik esan dogu soñeko eratasun ori, biotz bařuko onoimen guztien jagole bikaña dala. Baña eratasuna, batez be, apaltasunaren alaba, garbitasunaren aizta ta Jaunagazko eraspenaren lagun kutuna da. Azalak zugatza lez, soñaren eratasun ořek gure gogoaren apaltasun, garbitasun eta eraspena zaindu ta jagon daroaz eta, augaitik, azal ori uřatu ezkeru, apaltasuna arin galdu, garbitasuna laster kutsutu ta eraspena bertatik otzitu oi dira.

Eta egiz, giza'zteko andizuren, lu'run eta andu'feriak, so'neko ede'r eta apaindurak, biotza puztu ta a'rotu egiten dabe: augai-tik, andizurenik-andizuren dabi'lena ta be-re burua ede'rga'ri la'fegigaz apaintzen dau-na, biotzez apalak gitxitan izaten dira. Eta bere zentzunen ardurarik ez daukan-ak; kezka barik edonori ta edonora begi-ra dabi'lenak, biotzeko garbitasuna ¿zelan jagon eta gorde daike? *Bakotxa zelakoa dan so'neko janzkera, ezpanetako ba're ta ibi'lereak di'noe.* (ECCLI. XIX, 27) eta ema-kumearen lizunkeria bere betazal eta begi-rakun-a'roetan iraga'rtan da. (ECCLI. XXVI, 12). *Garbitasuna gordeta'ren* — di'no Job eroapentsuak — *neure zentzunakin egiunea egin neban, eta neure begiai begirakun kal-teko'f guztiak eragotzi ta galerazo neutse-zan.* (JOB. XXXI. 1). Beste edonok be, biotzeko garbitasuna o'rbán barik gorde nai ba-dau, orixe egiteko asmoa a'rtu bei; bestelan, garbitasunaren azal au u'ratu ez-kero, biotza zikinkeriz beteko yakola ja-kin bei. Jaunagazko eraspén eta biotzeko maitasun eta berotasunari be, so'neko

apaltasun ori barik, luzaro ezin iraunazo geinkioe. Sutondoko eltze ta topiñai, bañuko beroak iges-egin ez dayoen, estalkiagaz euren agoa saiatzen dautsegu. Ba, olantxe, geure biotz bañuko samurtasunak eta berotasuna gorputzeko leyoetatik joan ez dakiguzan, geure zentzunak arduraz zaindu ta batu bea doguz. Geure eñu ta utsegite, geure oben eta gaiztakerien parkamena jadezteko be, soñeko apaltasun ori berebizikoa da. Parixetañ año, buru-erexia ta zergari apala gomutau egizuz. Lenengoa, bere burua gora jaso - ta, eleizan auñera año-año joan zan; bigañen au belauniko, makuñ, bera begira, zokondotxu baten egoan. Parixetañ añoa sañtu zan baño txañ eta gaiztoago urñen zan: biotzez eta gorputzez apaletsi zan zergariari, oster, Jaunak bere eñu, oben eta gaiztakeri guztiak parkatu eutsazan.

Biotzeko gora-bera ta aldakuntzak arpegian dazaukeguz: augaitik, arpegia go-goaren ispilua dala esaten dogu. Bañuko apaltasun zintzoa be, arpegi ta soñeko tayuan sañi agertzen da. Andra Maria bio-

tzez apal-apala izan zala atzo esan gendun, eta bañeneko apaltasun oñek bere arpegi ta gorputzari tayu ta era zoragafia emoten eutsala Eleizako irakasleak diñauskue. Ama samur au alai, mazal, adikoñ eta laztantsua izan zan beti, baña arinkerri barik; ben eta sentzun andikoa, baña gañaztasun eta mingoztasun barik: bere begirakun garbi ta gozo amultsuak guztien biotzak irabazten ebazan, eta bere izketa, ibilera ta egikeran be, garbitasunaren usain gozoa artzen zan. Bere onoi-men ederen usain atsegintsu oñegaz, jantzi ta apaindu eban bere soña, urte ta zidarezko edergaiaikin apaindu leiken baño askozaz obeto; augaitik-edo Andra bikain onen edertasun zoragaiaiaz biñloratu-ta, Dunixi, atenastarak esan ei-eban: Jainko bat baño ez dagola jakin ezpa'neu, emakume zoragaia ori Jainkotsat artu ta jauretsiko neban.

Biotz bañuko apaltasunaren irudi biziagaz zeure soña jantzi ta apaindu zendun emakume eratsu ta Andra zoragaia oñek, gogoz eta gorputzez apalak izaten iraka-

tsi eiguzu. Begirakun eta ibilera afo, arazeri ta gangarakeriak zuri, geure Ama biotz-bera ta apal ori, iguin eta gofoto emoten dautzuela bai - dakigu; baña geurez andiputz eta buru-erexiak gareanok, zure onatz apalai jaraitu al izateko, zeure laguntasuna bear dogu-ta, zeuk Ama erukiof eta laztantsu ofek, esku - zabalez emon eiguzu.

LOREA: MODESTIA VESTRA NOTA SIT OMNIBUS HOMINIBUS. (PHIL. IV, 4). Zuen eratasuna gizon guztiei ager bekioe.

ERABAGIA: INDUITE VOS SICUT ELECTI DEI... HUMILITATEM, MODESTIAM. (COLOSS. III, 12). Jainkoaren autuak zarenok, zeuen soña apaltasun eta eratasunez jantzi egizue.





## Ogetabigaren egunerako irakurkizuna

**Andra Maria garbitasunaren eredu orbange  
ta pitxi apaña.**

### I

Biotzeko apaltasuna ta soñeko erata-  
tasuna, garbitasunaren aizta ta jagola bi-  
kañak dirala atzo esan neutzun. Gogo ta  
gorputzeko garbitasun au zer dan, iñok  
esan barik be bai-dakizu. Aragiaren irits  
edo garāmura gaiztoa ezi ta bere atsegin  
zikiñetatik jagon eta aldenduten gaituan  
onoimenari garbitasuna deritxogu. Ezkon-  
ge ta ezkonduen garbitasuna alkañen ide-  
ko ez dira. Ezkonduak, ezkontzearen kal-  
tez ezer egin, oldoztu ta nai izan ezik,  
eurai dagokien garbitasuna, orban barik,  
gorde daroé. Ezkongien garbitasuna aldi-  
ko edo betikoa izan daiteke. Ezkondu ba-  
rik, aldi labur edo luzeagoan osoro garbi  
biziteko asmoa, ona da; baña aragi ustel-  
kor au iñoz zikindu barik, beti garbi irau-



teko erabagi sendoa, askozaz obe. Zikin-keriz iñoz ořbandu ez dana ta bere bizitza guztian osoro garbi irauteko asmoa daukana, zeruko aingeruen ideko egiten data, bere asmo ori zintzoro bete ba - dagi, Jaunak zeruan berarizko aintza ta zoriona emongo dautsaz.

*Oneiř emen dakuzuzanak* — diño Jaunaren ikasle maiteak — *emakumakin iñoz ořbandu ez diranak dozuz: gizkarbiak dira -ta, Jainko-Bildotzari, bera doan toki guztietara jařaitzen dautse.* (APOC. XXXI, 5).

Aragikeri lizunak baño kalte geyago lekařzkigun obenik ez dago. Gure adimena itsutu, naimena be makaldu ta gauza onetarako indař eta adore barik lez izten gaitu. Eta arduraz bizi ezik, gai onetan beste ezetan baño eřezago gaiztakeri ta oben-laři ta astunak egin daikeguz. Gogamen lizunak, gurari zikiñak, begirakun nabařmenak, itz eta autualdi nasayak, ikutze gaiztoak, beste barik be, oben (pekatu) astunak izaten dira, jakiñez gañera ta norbere gurez euki ezkeru. Garbitasunaren kaltez egin leikezan oben astunago-

ak, aitatu be ez doguz egingo; bakañik esango dogu, garbitasunaren kaltez oben egiteko oitura zantaña beragandu daunak, bere buruari loñik asko ekañi dautsola. Ekandu txar ori iñoz be ez da asetan: emonago ta gosetiago egiten da, eta gogoia zikinduten daun bestean, gorputza be auldu ta makalduten dau. Onelako oitura gaiztoa dauken askok, bein baño sañiago euren ogasun, ospe, izen on eta osasuna be galdu daroez.

*Aragia gogoaren kaltez jagiten da.*  
(GAL. V, 17)-diño deun Paulo bialduak— eta berak ezpa'liño be, geuk geronek dakigu, ta augaitik, aragiaren griña gaiztoai jañki ta aurka-egiteko, ernai, gertu ta bizkoñ egon beañ dogu. Bere zirikada gaiztoai aurka egin ezik, gañamuraren sua laster biztuten da, ta su ori bizkoñ itzali (amatau) ezik, ekandu txaña artzeko be, aldi labuña naiko izan oi da. Zeure betiko zoriona maite ba-dozu, aragiaren ziltzaldi oñei sendoro aurka egiezu: au ta guzti be, iñoz obenean jausiko ba'ziña, bizkoñ jagi zaite ta gañamura dongeari

sua-aĭtzen ez egiozu itxi, eta zeure ma-  
kalkeri ta eĭruz, gaġamura oġek, noz edo  
bein sua-aĭtu ba-dagi, gitxienez be, oitura  
txaġa eragotzi ta galerazteko, alegin egi-  
zu. Oitura txaġa, geizo zaġa lez izaten da;  
augaitik, askozaz be nekezago osatu gein-  
ke. Beste edozein gatxeri lez, oneri be  
lenengotxuan osakaya imiġi beaġ dautsa-  
gu, gatxak aldi luzeagaz indar aġtu dagi-  
anean, osakai biġa asteko beranduegi iza-  
ten da-ta.

Aingeruak lez gogo utsak ba'giġa, ara-  
giaren gaġamurarik be ez geunke eukiko  
ta eġeztasunik andienagaz garbi - garbiak  
izango giġake; baġa gogo ta aragiaren  
batza gara; geure gogo au aragiz jantzi  
da, ta onen gaġamura lizunak, bein baġo  
saġiago gogoa bera be zikinkerira bultzau  
eta naġztuten dau. Aragiaren aldetik abe-  
reak baġo asko geyago ez gara: geure  
adimendun gogo zoli au da abereakandik  
banandu ta zeruko aingeruen antzeko egi-  
ten gaituana. Augaitik gizon aragikoġa,  
aberien maġara jasten da: bere aragia ezi  
ta gogoaren menpean daukana, oġera,

aingeru garbien ideko egiten da. Onelan ba ¡zikinkeriak eratzi ta garbitasunak jaso ta goratu egiten gaituala gomutau egizu!

## II

Gizon nai emakumearen apaindurarik edereña, gorputz eta biotzeko garbitasuna dala ziñetsi egizu; baña, deun Paul bialduak diñon lez, apaindura ta aberastasun edeñ ori, *buztiñezko gorputzean daroagu* (II, COR. IV, 8) ta *galtzeko bilduñez, geure biotz au ardurarik andienagaz zaindu beañ geunke.* (PROV. IV, 23). Garbitasunaren onura andiak ondo ezagutuko ba' genduz, maitatzen dogun baño geyago maitatu ta ardura zoliagoagaz zainduko geunkela deritxot. *Jaunaren naya auxeda* — diño deun Paulo bialduak — *zeuen deuntasuna* (santutasuna) *aragikeria itxita: zuetariko bakotxak bere gorputza garbita zindo jagon dagiala.* (II, THESS. IV, 3).

Garbitasunak geure adimena argitu ta biotza sendotzen dausku ta Jainkoari zoñ dautsaguzan egikizun eta gauzetarako be azkañ eta bizkoñagoak egiten gaitu. Bio-

tzez garbiak, Jainkoari dagokiozan gauzak, askozaz be argiroago ikusi ta obeto ezagutu daroez. Ori ondo ekian Jaunak esan eban mendiko itzaldian: *Zorionekoak biotz - garbiak, Jainkoa eurak ikusiko dabe-ta.* (MATT. V, 8). Geure biotza sendotzen dauskula jakiteko, Olofernes'i burua moztu eutsan Judit, emakume sendo aretzaz Idazti deunak diñoskuna entzun egizu: *Zure biotz ori sendotu zan—diño — garbitasuna maitatu zendulako..... augaitik betiko donetsia izango zara.* (JUDITH, XV, 11). Jainkoari zoř dautsaguzan gauzetarako azkař eta bizkořagoak egiten gaituala deun Paulo zoriontsuak argiro diñosku: *Emasterik ez daukan gizona, Jaunari atsegin emon nairik, bere gauzetan urduri ta arduratsuago ibiltenda.* (I, COR. VII, 32). Eta bařdin, *emakume ezkongea ta neskatil garbiak be, Jaunaren gauzak gogoratu ta oldoztuten ditu, gorputz eta gogoz garbi ta zindo izateko.* (I, COR. VII, 34).

Andra Maria gogo ta gorputz eduřa baño zuriago ta eguzkiaren argia baño gar-

biago izan zan bere bizitz guztian. Bere gogo, biotz eta gorputzeko garbitasun oso-osoa, Goiko Jaunari eskiñi eutsan: oraindik gazte zala, bere bizitz guztian garbi-garbi izateko ziñeskain edo eskin-tzaria egin eban. Eta bere garbitasun ori, beste ezer baño maiteago ebalako, origaitik aingeruak, bañi onak emotera etofita, Jainko-gizonaren Ama izango zala adierazo eutsanean, berak ikaraz erantzun eban: *Ori, zuk diñozun ori ¿zelan izan daiteke, nik gizonezkorik ez dazaut - eta?* (LUC. I, 34). Erantzupen onegaz adierazo eban, Jainko-Amaren gorengo maña ori be, bere garbitasunaren kaltez, ez ebala nai. ¡Auxe bai-dala garbitasuna biotzez maite izatea! *Nire Alaba maite-kutuna, arantz-arteko lilia lez da.* (CANT. II, 2) esan eban Jaunak. Lili zoragañi oñen garbitasunak Jaunari bere biotza irabazi eutsan; lili garbi ta pitxi apain oñen ederitasuna maitatu eban (PSAL. XLIV, 12) eta aragia artzeko, bere eñai garbietara jatzi zan. ¡Jesu-Kristo gure Jauna, Mariak ainbeste maitatu eban garbitasun oñen Seme da! Gero, Andra Maria

euren eredutzat arturik, garbitasun-bidetik joan diran gizaseme ta emakumak zenok zenbatu daitez? Eta oneik egin ebena zenbeste enparauok ezin ete-geinke? Jaunak zeruan biotz garbidunentzat daukazan atsegin eta zorion andiak sari gomutau ta astiro gonznartuko (gogoz-nartu) ba'genduz, garbi biziteko artu ta jasan bear diran laztasun, neke ta lo' guztiak, arin, labur eta gozoak irudituko (litzakeguz.)

Aragiaren garfamura dongarik euki ez zendun Ama garbi ta laztantsu o'rek, zeure egapean artu gaizuz: aragikeriaren iguin eta go'otoa ta garbitasun ede'aren maitasuna geure biotzetan sartu eiguzuz. Ama e'ukio' ori, lagun zakiguz eta ariskueta-tik alde-egin eta beti garbitasunean irauteko bear doguzan eska' zeruta'ak oparo emon eiguzuz.

LOREA: BEATI MUNDO CORDE, QUONIAM IPSI DEUM VIDEBUNT. (MATT. V, 8). Biotz-garbiak zorientsuak, Jainkoa ikusiko dabe-ta.

ERABAGIA: SCIAT UNUSQUISQUE VESTRUM VAS SUUM POSSIDERE IN SANCTIFICATIONE ET HONORE. (THESS. IV, 4). Bakotxak bere biotz eta gorputza zindo ta garbi jagoten ikasi bei.



## Ogetairugaren egunerako irakurkizuna

**Andra Maria, ildura ta lazfasunen eredu  
on - ona.**

### I

Erez orbandu nai ausi daitekezan gauzak, ardura andiangoaz zaindu bea' izaten doguz; garbitasuna baño orbanko' et ausko'agorik ezertxu be ez dago: augaitik ardura zoli-zolia zo' dautsogu. Kirikioak ba'uko gaztaña-garaua lez, ildura ta lazfasunak biotz ba'uko garbitasun ausko' ori jagon eta gorde daroe: augaitik, garbia izan nai daun edonor, ildura-zale be izan bedi. Aragiaren mizkeriak eta geure buruen-maitakeria ebagi ta iñausi ezik, bizitz on, garbi ta zuzenik ezin egin geinke; baña mizkeri ta maitakeri oke' oreik ezi, iñausi ta ilten dituan onoimenari, ildura deritxogu ta bea'-bea'ezkoa dogula ezin ukatu geinke. Ildura ori azaleko ta ba'ukoa izan daitekela edonok daki: azal



edo gorputzekoak, aragiaren mizkeri okef-zitalak iġnausten ditu: baġuko ildurea gogoarena da; grġna donge ta norbere buruaren maitakeri laġegia iġnausi daroaz eta burukapena deritxogu. Baġuko ildura osasungarġi au biaġko itxirik, aragi-mizkeriak ezi ta iġnausten dituan beste azaleko ildura ori, azalduko dogu gaur.

Gure gogo ta aragiak, bakotxak bere bizitz berezia daukela edonok daki; gogoaren gurariak eta aragiaren zalekeri lizunak saġi askotan alkaġen auġka egoten dirala deun Paulo, Jaunaren bialduak, argiro diġnosku (GAL. V, 17); augaitik bere gogoari bizitz sendo ta osoa emon nai dau-tsan edonok, aragia laztasunakin ġlerazi ta bere mizkeri dongak iġnausi beaġ ditu. Au egin ezik, aragia gogoaren menpean ezin euki geinke, ta gogoaren menpean euki ezik, aragi biuġi ta ustelkoġ au gure nagosi ta agintari daula, bere menpean bizi danak, gizon-antza baġo abere-antz geyago dauko: augaitik gizon ixateko be, aragiaren mizkeri oġeik ezi ta iġnausi beaġ doguzala, argiro dakuzu. Baġa batez be

aragiaren griña dongeak ezi ta bere mizkeri ofeik iñausi ezik, Jesu-Kristo'ren ikasle ta jařaitzale ezin izan geintekenez. Deun Paulo zoriontsuak diñoskuzan urengo itz oneik, adi entzun egizuz: *Jesu-Kristo'ren jařaitzale zintzoak, euren aragia bere mizkeri ta zalekeri oker guztiakin kurutzean untzez josi dabe* (GAL V, 24) *Jesu-Kristo'ren ildurea beti geure gorputzean darabilgu, bere bizikerea be, geure gorputz oneitan ager dedin* (II COR. IV, 10) *Neure gorputz au efuki barik, astindu darroat, guztiz bezau ta ezi arteraño, beste batzuri zorionerako bidea irakatsi ta gero, neuk neronek zorion ori galduko ete dodan bilduraz.* (I. COR IX. 27)

Gaur egunean astiñaldi, laztasun, barau edan-urri ta beste onelako ildurak aitatu ezkerok, askok iribaře egiten dabe. Gaur eguneko gizasemeak, antziñakoak baño aul eta makalagoak gareala-ta, orrelako laztasun bearik ez daukagula, ortik diño: baña ¿zek makaldu ete gaitu? ¿laztasunak ala mizkeriak? Gaur antziña baño mizkeago bizi gareala ta barau gitxiago egiten do-

guzala edonok daki. Au ta guzti be, gure osasuna antziñako gizonena baizen sendoa ez ei-da; baña ori ħzegaitik ete-da, ba? ħLaztasunakaitik? Mizkeri lařegiak auldu ta makaldu gaituela obeto dirudi. Laztasun, barau ta edan-uřiak baño jan-edan lařegiak, mizkeri ta ordikeriak, osasunari kalte geyago egiten dautse. *Sabel betekadak dirala-ta, asko lasteřegi il dira ta jan-edanean begiratua danak, bere bizia luzatuko dau, diño gure Jaunak (Eccli. XXXVII, 34) Geure bizitz au alikatzeke nai ta ez arřu beař doguzan jakki ta edariak, beti neuřiz arřu beař geunkez (Ez. IV-10) Jan-edanerako neuřia, geure beařizena da: atsegiña, iñoz bez; auggaitik, atsegin utsez eta beařizen barik. jan eta edaten diařduenak, ořetan zentzundun gizona baño abere saloberea obeto dirudi. Jaunaren esakun oneik, zeure gogoan arřu egizuz: *Jan edanean — diño Jaunak — saloberea ez zaitte izan eta auřera dakařtzuen guztia iruntzi nairik ez zaittekez ibili. Jate lařegiak, geizoak dakařz eta auznařtzeko asti barik irunsteke**

*ekanduari, sabel-miñak dañayoe* (ECCLI. XXXVII-32, 33) *Ardaoa nasaikeriaren aizkide da, ta ordikeria, asañe ta zala-parta askoren lagun; gauza oñeik atsegin yakazana, jakitun eta zentzun oneko iñoz be ez da izango* (PROV. XX, 1). Laztasun, ildura ta barauak oñelako kalterik ez dakañe: neuri ezkerero, gorputzeko osasunari be, kalte baño mesede geyago egiten dautse: baña gure gogoarentzat batez be, guztiz osasungari izaten dira.

## II

*Zeure jopua txikitatik mizke azi ba - dazgizu, gero biñi ta ezizatxa izango yatzu.* (PROV. XXIX, 21). Ori diño esakunetako idaztiak, eta gure aragiaz be, orixe berori jazoten dala lañegi be bai-dakigu. Aragia, mizkerian azi ezkerero, berez dan baño be ezigaitz eta biñiago egiten da: augaitik mizkeri geyago daukazanak, ildura andia-goak egin beañ leukezala dirudi, mizke azi dan aragia nekezago ezi leike - ta. Gaur egunean geyenok mizkeri bila gabiltz: laz-

tasunen izenak bakaġik be ikarea saġtzen dausku: oġaitik be zerura joan nai geunke, baġa geure mizkeri oġeik iġausi ta lazta-sunik egin barik. Eta ori, ziġnez, gaitz izango yaku, arako bidea eġeztu dan bafiririk ez daukagu-ta. *Aragi - arauz biziten ba-zare*, diġo deun Paulo, Jaunaren bialduak, *ilgo zare; baġa gogoaren indaġagaz aragiaren griġa ta zalekeriak ezi ta ilduratu ba-dagizuez, biziko zare.* (ROM. VIII, 13). *Aragi ta odolak goiko zorionik ezin loġtu daikie ta usteltasunak, zindotasunik bez.* (I, COR. XV, 50).

Nai egindako obenen parkamen osoa jadesteko, nai oben zustrai ta ekandu txarġak kentzeko, nai ekandu onai indaġ emoteko, ildura, laztasun eta barauak berebiziko indaġa dauke. Eta bere bizitzan oben astunen bat egin ez dauna ġnor da? Obenerako lera txarġik ez daukana ġnor? Augaitik laztasunen osagalġu ori berez mingoitza izan aġen, guztiok asko edo gixi geizorik gagoz-eta, guztiok arġtu beaġ geunke. Barauak, gure griġak ezi ta gure gogoak jasoten dituala geure Ama Eleize-

ak diñosku. *Lizunkeriz zirikatzen gaituan txerren zikiña, otoitz eta barauen bidez izan ezik, iñok ezin jaufti daikela, gure Jaunak bere ikaslai adierazo eutsen. (MATT. XVII, 20). Barau ta otoitzetan irauten ba-dozue, zuen eskariak Jaunak entzungo dituala jakin egizue—diñosku Judit'en izena daroan idazti deunak (IV, 12).*

Apaltasun eta garbitasunaren eredu bikaña izan yakun Andra Mariak, ildura ta laztasunen jañabide edera be emon euskun. Egiz, iñoz obenik ez eban egin: obenerako lera txarik be ez eukan eta, augaitik, iñoz laztasunik egin ezpa'leu be, bañdin garbi-garbia izan leitekean; baña guk, bere seme-alabok, garbiak izateko, ildura ta laztasunen bear izana daukagu-ta, Ama samur' orek guri jañabidea emotearen, laztasunen osagalu mingoitz ori gure aurretik artu eban. Andra Maria andikien odoletikoa zala bai-dakizu; baña bere gurasoak ogasunetan asko jausi ziralako, gure Ama maite ori, langile txiroak bizi oi diran lez, aukera txikiagaz bizi izan zan. Mizkeririk ez eban iñoz euki ta txi-

rotasunak beragaz dakarzan estura ta premiñak be eroapenik andienagaz artu ta jasan ebazan. Belendañak ostatua ukatu eutsela ta abeletxe lander batera joan beañ izan ebala bai-dakizu: Nazaret'eko etxe txikian, beañtsuak oi daben lez, Jainkoaren Amak be lan-egiten ebala Eleizako irakasleak diñoskue. Etxeko zeregiñetan berari laguntzeko, neskamerik ez ebala euki dirudi; augaitik, etxeko otsein-lan guztiak be, Mariak bere eskuakin egiten ebazala ziñetsi beañ dogu. Bakotxak geure bizibidean daukaguzan zeregin eta lan guztiak, adionez, zintzoro, nagikeri ta uts barik, beti egingo ba'genduz, geure buruak obeto ezi ta ildura osasungarria egingo geunke.

Geure eredutzat artu zaitugun Ama laztan orek, geure aragi au ezi, bere mizkeriak iñausi ta laztasunen osakai osasungarria arerazteko beañ dogun goiko indar eta sendotasuna loñtu eiguzuz. Zure antzera, jan-edanean begiratuak eta geure zeregiñetan azkar eta bizkoñak izateko, Goiko-Jaunaren laguntasuna beañ dogu-

ta, zeuk Ama samur' o'rek jadetsi daiguzun, Jaunaren aurean geure bitartekotzat iminten zaitugu.

LOREA: BEATI QUI NUNC ESURITIS, QUONIAM SATURABIMINI. (LUC. VI, 21). Zorionekoak zuek, orain gosez zagozenok, egunen baten aseko zareta.

ERABAGIA: SEMPER MORTIFICATIONEM JESU IN CORPORE NOSTRO CIRCUMFERENTES UT ET VITA JESU MANIFESTETUR IN CORPORIBUS NOSTRIS. (II COR. IV, 10). Jesus'en ildurea geure gorputzean erabili daigun, bere bizia begure gorputzetan agertu dedin.







## Ogetalaugaren egunerako irakurkizuna

**Andra Maria, buru-ukapenaren eredu zindoa**

### I

Geure buruari ańerazo geinkiozan ildurak, azaleko ta barukoak izan daitekezala ondo dakizu. Azal edo gorputzeko laztasun oreik atzo azaldu genduzan eta gaur geure gogoaren baruko ildurak adieraztea dagokigu. Geure buruen maitasun zuzena, Jaunak agintzen dausku-ta, guretzat gauza on eta osasungarria da: bańa guk sańi askotan geure buruak maitakeri okeń eta kaltekońagaz maitatzen doguz eta autxańa dala edonok daki. Aukera txiki nai atsegin laburńen bat eskuratzeańen, geure betiko zorionaren kaltez ainbat gauza egiten doguz: ori egiten dogunean be, geure burua zintzoro maite dogula uste izaten dogu; bańa ondo begiratu ezkeron, ori ez da norbere buruaren maitasun zuzena, maitakeri okeń eta kaltekońa bańo. Zeru-

ko bidetik zuzen ibili nai daun edonok, aragiaren mizkeriak lez, gogoaren maitakeri oñeik be iñausi beař ditu: baña buru-maitakeri okeř ori ebagi ta iñausi nai daunak, bere buruari aukera ta atsegin asko ukatu beař izango dautsaz: augaitik, ori egitera lokatu ta igitzen gaituan onoimenari, buru-ukapena deritxogu. Jainkoaren olde ta naya gauza guztietan egiteařen, norbere griñak ezi, buru maitakeri ori iñausi ta biotzari bere naikeritxuak ukatzea, gauza zail eta gatxa dala guztiok dakigu; baña Jaunaren laguntasunagaz egin geinke, egin beař dogu eta egin ezkerro, onura ta mesede andiak dakařzkuz.

Gizonari bere gauzak iztea aldats-gora egiten yako; baña ainbesteko egikizun neketsua dala ez dirudi: norbere maitasun okeřa itxi ta burua ukatzea, norbere gauzai agur-egitea baño, askozaz be neketsu ta gatxago dala edonok daki. (S. GR. HOM. 23); baña egikizun gatxa izan ařen, Jaunaren laguntasunagaz, geure buruen maitakeri lařegi ori iñausi ta neuřira ekaři geinke. Egiz, gure lenengo gurasoen obena-

gaz gure izatea okeġtu ta gaiztotu ezpa' litz, geure burua ukatu, geure eretxi ta naikeri okeġak itxi ta Jainkoaren naya gauza guztietan eġez egingo gendun: baġa aen obenak gure izate au gaiztotu eban eta geure buruen maitakeri itsu ori, gure biotzen ugazaba ta jabe egin zan: augaitik, orain geure Jainko, geure geide ta geure buruai zoġ dautsegun maitasunean zuzen ibili al-izateko, nai ta ez geure buruen maitakeri okeġ ori iġausi beaġean gagoz. Geure biotzari bere naikeriak ukatu, geure buruak ezi ta lenengo gurasoakandik datoġkigun gizon zaġ eta gaizto au erantzi ezik, buru - maitakeri okeġa, gure jabe izango litzake ta geure egikizunik geyen-etan okeġ erabiliko ginġukez. Augaitik deun Paul, Jaunaren bialdunak, bein baġo saġiago diġnosku: *Aragi-bidez datoġen gizon zaġ ori bere egitade ta guzti, erantzi egizue.* (Coloss. III, 9) *eta gizon baġia, berau egin eban Jaunaren antz eta irudira baġiztau dan gizona, jantzi egizue.* (Ib. 10). Geure burua ukatu ta gizon zaġ eta biuġi ori erantzi ta jauġtiteko, osasun, indaġ eta ogasun beaġik

ez daukagu, uríñetara joan beařík ain gixi: geure bafuan egin beaří dogun aldakuntzea da ori, ta zintzoro nai izan ezke-ro, gorputza asko nekatu barik egin geinke. Egiz, zintzoro, sendoro ta beti nai izateko be, Jaunaren eskaří eta urgazpena beaří doguz: baña Jauna, bere laguntza ori emoteko, beti gertu dago. Zeure Jaunak zerbait agintzen dautzunean — diño deun Austiñe'k — al dozuna egin eta ezin dozuna berari eskatzeko diñotzu ta zuk biotzez eskatuko ba'zeunskio, zeurez egin ezin dozun lan ori egiteko indaía, berak emongo leuskizu.

Guk baño len, gure Jaunak bere burua ukatu eban; bere kurutzea bizkaíean artuta, apal eta men eriotzaraño joan zan. Oírelan bere burua ukatu eban Jaun oírek esan eutsen bein bere ikaslai: *Norbaitek nire jaíai etoíri nai ba-dau, bere burua ukatu bei, ta bere kurutzea arturik, jaíaitu beist.* (MATT. XVI, 24). Ori esan eban Jaunak eta bere jaíai enda, eíri ta izkuntza guztietako berein gizon eta emakume joan dira. Zeruko zoriona eskuratzea baño beste as-

morik euki ez daben guztiak, euren buruak ukatu, bakotxak bere kurutzea aritu ta Jaun laztangari oren onatzai jaraitu dautse. Eta oneik egin eben ori ¿beste enparauok ezin egin ete-geinke? Jaunaren laguntza oparo daukagula jakin eta bere onatzai jaraitzeko adorerik ezpa' geunko, bere ikasle Simon'i bein esan eutsana, Jaunak guri be esango leuskigu: *ziñesmen txikareko ori ¿zegaitik bildur izan az?* (MATT. XIV, 31).

## II

Geuk zintzoro nai izan ezkeru, geure burua ukatu ta ezi geinkela ikusi dogu: ukatu ta ezi bea dogula Jaunak argiro adierazo euskun. Jaunaren esakun gomutagarria obeto uleitu daikezun, orain esango dautzudan au, gogoan aritu egizu. Gure Jaun laztangari ori geyen maite dogunean, Jaunarentzat bizi gara: geure burua laegi maite dogunean, geuretzat. Augaitik, geure Jaun ona geure burua baño maiteago izan ezkeru, gure biotzetan Jaun ori bizi dala esaten dogu; baña geure bu-

rua Jauna baño maiteago izan ezkerro, orduan Jaunaren orde z gure bañuan obena-gaz gaiztotu zan gizon zaña bizi da. Bere burua lañegi maitatzen daun gizon zañ ori, geure izate gaiztotua baño ez dala bai-dakigu; augaitik gizon zañ oñen bizia, geure bizia dala ondo esaten dogu. Orain aurre-rago aitatu dautzudan Jaunaren irakaspén gomutagañi ori entzun egizu. *Bere bizia jagon nai daunak, galduko dau, eta nire maitasunañen, bere bizi ori galdu dagi-anak, idoro ta aurkituko dau.* (MATT. XVI, 25). Gure bizia, gizon zañ oñen bizia dala bai-dakigu, eta gizon zañ oñen bizia, bere buruaren maitakeri okeña dala be esan dogu. Orain Jaunaren esakun oñek zer adierazo nai dauskun, buru-auste andi barik uleñtu geinke. Eta egiz, geure bañuan gizon zañ eta berekoi ori daroagun guztioen bizia, geure buruen maitakeri lañegia ba-da, Jaunak auxe adierazo nai dausku: Orain zeuen buru oñein maitakeri lañegigaz biziten ba-zare, gero ori zeuen bizi ori, betiko galduko dozue. Eta bestera, orain gizon zañaren bizi ori iñausi, ebagi

ta jauṛti ba-dagizue, gero ori baño asko-  
zaz obea dan bizia idoroko dozue.

Betiko bizitz zoriontsua loṛtu al-izateko,  
geure naikeriak iñausi, geure buruak uka-  
tu, gizon zaṛa erail eta kurutzean josi beaṛ  
dogula, argiroago ezin adierazo leike. Ori  
oṛelan izan ezkeru—erantzungo daustazu  
beaṛ ba-da — geure burua maite izatea,  
gauza txarā dala dirudi: baña ori ezin izan  
daiteke, geure buruaren maitasuna be,  
Jaunak agintzen dausku-ta.— Egiz Jaun-  
ak agintzen dausku; baña Jaunak agintzen  
dauskun maitasun ori, zuzena da ta beste  
geure buruen maitakeri ori, okeṛa; lenen-  
go arek onura asko, bigarēn onek kalte  
asko dakaṛzkuz: augaitik esaten eban  
deun Austiñe'k: gizonaren bere buruagaz-  
ko maitasuna, onakoxea da: *zeure buru  
ori okeṛ maite ba-dozu, goṛoto dautsazu:  
zuzen goṛotatzen ba-dakizu, maite dozu.*

Goṛoto zuzen ori geure buruaren uka-  
pena da ta ukapen onek, len esan dogun  
lez, onura ta mesede andiak dakaṛzkuz.  
Oraingo bizitz zuzena ta geroko bizitz  
zoriontsua ukapen oṛen arnariak (frutuak)

dira. *Bene-benetan diñotzuet*—iñoan gure Jaunak — *luñean ereiten dan galgarua, ilten ezpa - da, bakarik dirau; baña ilten ba-da, galgaru asko dakaz.* (JOAN, XII, 24). Luñean ereiten dogun gari-azia il barik, gari baña erne ezin daiteken lez, geure burua ukatu ta bañuko gizon zañ au lenago erail ezik, geu be bizitz bañira ezin jayo ta Jaunarentzat ezin bizi gaitezke. Eta egiz, jainkozko bizitz on eta zuzena egiteko, norbere burua ukatzea lakorik ez dago: norbere burua ukatze ori ta Jauna maitatze au, gauza bat dirala ezin esan daikegu; baña bien bitartean atz-erdi bide be ez dagoala Eleizako irakasleak diñoskue. Jauna zintzoro maitatu ta bere naya gauza guztietan egin nai badozu, zeure buruari bere naikeri ta maitakeri okeñak ukatzen ikasi egizu. Ori egin ezkerro, zeuretzat barik, Jainkoarentzat biziko zara, ta orain Jainkoarentzat bizi ezkerro, gero Jaunak betiko bizitz zori-ontsua emongo dautzu.

Bere burua oso ukatu, maitakeri okeñ guztiak iñausi ta Jaunaren naya gauza



guztietan egin eban Andra Maria, zeure eredu ta jañraibidetzat artu egizu. Jesu-Kristo bere Seme ta gure Jaunak esan eban bein: *Neure naya egiteko, ez nintzan zerutik jatzi, bialdu ninñuan Goiko-Aitarena egiteko baño.* (JOAN, VI, 36). Andra Mariak be bañdin esan eiken. Neure naya egiteko ez naz bizi, neure Jainkoarena egiteko baño. Eta utsik txikañenik be iñnoz egin barik, Ama samur orék Goiko - Jaun andiaren olde ta naya egin eban beti-beti. Gure egikizuna be, orixe da: baña geure burua sañi ukatu ta geure naikeri zitalak iñausi ta itxi ezik, Jainkoaren naya gauza askotan ezin bete geinkela ondo dakigu. Eta Jaunaren naya egin eta bete ezik, betiko bizitz zoriontsurik ezin loñtu geinke.

Guxtiz eta osoro Jainkoarentzat bizi izan ziñan Ama samur ori, eñuki zakiguz. Zure seme-alaba gaizo oneik, beste ezek baño geyago, geure buruen maitasun okeñak galtzen gaituala ondo dakizu. Geuk be ezagutu dogu; baña maitakeri ori iñausi ta geure buruak ukatzea, gaitz egiten ya-

ku-ta, zeure laguntasuna biotz biotzez eskatzen dautzugu. Geure naikeriak itxi-ta, Jaunaren naya beti egiteko asmua aítzen dogu; baña argal eta aldakońak gara - ta, zeuk Ama laztan ońek, geure asmu on eta osasungari oneitan, ańen, sendotu gaizuz.

LOREA: QUI FACIT VOLUNTATEM PATRIS MEI QUI IN CÆLIS EST, IPSE INTRABIT IN REGNUM CÆLORUM. (MATT. VII, 21). Nire Aita-Goi-koaren naya egiten dauna, zeruetan orixe saítuko da.

ERABAGIA: SI QUIS VULT POST ME VENIRE, ABNEGET SEMETIPSUM... ET SEQUATUR ME. (MATT, XVI, 24). Nire jańai norbaitek etońi nai ba-dau, bere burua ukatu bei ta jańai-tu beist.





## Ogetaboskaren egunerako irakurkizuna

**Andra Maria, menpetasun eta esagintzaren  
eredu uren - urena.**

### I

Atzo azaldu gendun buru - ukapena ta gaur azalduko dogun menpetasuna, alkar-en lagun dirala esan geinke. Eta egiz, bere burua ezi ta ukatzen ikasi daun edonor, esaneko ta mena be ezez izango da: augaitik, buru - ukapenaren uferingo, menpetasuna guztiz egokiro azaldu geinkela deritxogu. Menpetasunak geure nagosien agintza ta esanak gogoz egitera igitzen gaitu. Bere nagosien esanak nozbait egin azen, askotan bere naikeriz egin barik izten dituana, esagin eta mena ez dala edonok daki. Menpetasuna deritxogun onoi-men onek, geure nagosien naya arin eta bizko, gogoz eta pozez egiteko, indar eta ezeztasuna emoten dauskuz: augaitik, muke eta gogo txarez baño geure nagosien

esanak egiten ezpa-doguz, bea' dan menpetasunik ez daukagula ziñetsi geinke.

Menpetasuna deritxogun onoimen eder' au, gure ekanduai dagokiezanen artean nagosi ta bikañena dala Eleizako irakasle jakitun batek argiro darakusku. Onoimen nagosienak—diño irakasle o'ek—gure gogoak Jainkoganantz itzuli ta beragaz alka'rtu ta lotzen dituenak dira. Ziñesmen, itxaropen eta, batez be, maitasunak ori egin daroe ta, augaitik, onoimen nagosienak o'ek dirala esan dogu: baña gure gogoak Jaunaganantz itzuli ta beragaz batu ta lotzeko, lu'eko ogasun igazko' oneitatik lenago azkatu ta aldendu bea' doguz. Zeregin au gure ekanduai dagokiezan onoimenak egiten dabe: augaitik, Jaunagaz geure gogoak batzea'ren, ogasun andiagoa itxiazoten dauskun onoimena, gure ekanduai dagokiezanen artean, nagosiena izango da. Orain ba: gizonak Jaunagaitik itxi leikezan ogasun o'ek iru endatakoak izan daitekez: batzuk, gizonarenak izan a'ren, bere ataz dagoz; beste batzuk bere gorputzari dagokioz eta iru-

gañenak, bere gogoaren ondasunak dira. Gizonarenak izan aŕen bere ataz dagozan aberastasunak, berengo malan: gorputzaren osasun eta aukerak bigañenean, eta gogoaren ondasunak gorengo malan dagoz. Gogoari dagokiozan ondasunen aŕtean be, gure naimenak tokirik uren eta garayena daukala esan geinke, naimenaren bidez beste ogasunok aukeratu ta erabilten doguzalako: augaitik, Jainkoaren olde ta naya egiteaŕen, geure naya ukatzeko adorea emoten dauskun menpetasuna, beste edozelako ogasunak iztera igitzen gaituan edozein .onoimen baño, andi, bikain eta edeŕagoa dala autoŕtu beaŕ dogu.

Lenengo Jainkoari, uŕengo luŕean bere ordeko diran geure nagosiai, biotzetiko menpetasun zintzoa zoŕ dautsegu. Gauŕegunean menpetasun ori gizaŕtean asko jausi da: gitxi batzuk maite dabe; baña asko ta askok iri ta baŕe egiten dautse. Gurasoak euren umeak, eta agintariak euren menpekoak, Jainkoagazko lotsa ta bilduŕean aziko ba'lebez... baña ardura

gitxi aritu daroe ta Jainkoari lotsea galdu ezkerro, gurasoai be laster eta erietako agintariai lasterago galtzen yakela ondo dakigu. ¡Ume menak, seme - alaba esanekoak nai zeunkezan guraso orek, Jaunagazko lotsa ta menpetasun zintzoa irakatsi egioezu; bestelan, Jaunaren agintzak aintzat ez dabez arituko, ta zeuri be laster iri ta bare egingo dautzue!

Jainkoari menpetasun oso-osoa zor dautsagu. Geure gauza guztiakin Jaun orenak gara; baina guztiz eta osoro Jaunarenak ba'gara, berak nai dituan agintzak guri ipinteko, eskubide osoa dauko. Eta Jaunak eskubide ori daukalako, guk geure buruak makuitu eta bere agintz oreik betetako egin bear estua daukagu.

Gure lenengo gurasuai, euren oben aurretik, agintza bat ipini eutsen: guri amar ipini daukuz. Bat nai amar nai ge-yago ipinteko be eskubide bardiña dauko: augaitik geure Jabe oso dan Jaun oren aurka jagi ta zor dautsagun menpetasuna ausi nai ezpa-dogu, guztiak eta bakotxa zintzoro bete bear doguz. Baina Jainkoari

ezeze, luñean bere ordeko diran geure nagosiai be, menpetasuna zoñ dautsegu. Gauza guztiak mala baten ez dagozala, ta malarik-mala, bekoak goikoen zirkiña-gaz dabilzala geure begiakñ dakusgu. Gauzak oñetara zuzendu zituan Jaunak, gizarñtean be malak ipiñi ebazan eta umeak gurasoai, menpekoak euren agintariai men-egin dayoela agindñ eban. *Edozein giza-seme* — diño deun Paulo Jaunaren bial-duak — *bere nagosien menpean egon be-di, Jaunagandik ez datoñen aginpiderik ez dago - ta. Gizarñteko aginpide oñeik, Jaunak ipiñiak dira: augaitik agintariai aurka-egiten dautsenak, Jainkoari aurka-egiten dautse, ta Jainkoari aurka-egiten dautsenak, euren buruari zoritxara dakartsoe.* (ROM. XIII, 1-2).

## II

Menpetasunak iru mala daukaz. Nagosiaren agindñua egin añen, gogoez-bestera egiten dauna, berengo malan dago; nagosiaren naya egiteañen, berea ukatu ta aren agindñua gogoz egiten dauna, bigañenean:

norbere nai ta eretxia baño agintariarenak obe ta zuzenagotzat daukazana ta adimen eta naimenez nagosiari men - egiten dautsana, menpetasunaren gorengo malan aurkitzen da. Bigarren malatik irugarenera dagoan alde, esango dautzut: gorengo malakoak bigarrenean dagoanak lez, agindua gogoz egiten dau; baña oñezaz gañera, au edo beste gauza zegaitik berari agintzen yakon be ez dau jakin gura izaten. Aginduriko gauza ori berez txarā ez dala jakin ezkerro, geyago jakin ez aŕen, ori naiko izaten dau nagosjaren agindua zoli, bizkoŕ eta gogoz egiteko: onelan, bere naikeri ta eretxiak alde batera itxirik, bere gogo osoagaz nagosiari men - egiten dautso ta ori baño geyago iñori be ezin eskatu leyola zeuk dakizu ondo.

Menpetasun oso aonen jabe gitxi izaten dira; baña guztiok oŕaxe eltzeko alegin egin beaŕ geunke. Onelan, osoro mena, guztiz esanekoa dan gizasemeak — diño Esakunetako idazti deunak — garaitza ta gurenda andiak ospetuko ditu. (PROV. VII, 24). Eta egiz, arerio guztiai burua



zapaltzeko, menpetasun zintzo onek beste indar daukan gauzarik, ezertxu be ez dago. Geure iru arerio nagosienak, arokeri, aragikeri ta geure buruen maitakeria, menpetasunaren txibiztunagaz lotu ta beingo baten eskegi ta urkatu geinkez. Eta arerio nagosi oreak urkatu ezkerro, beste enparauak ze kalte egin leikegue?

Andra Maria men-mena ta guztiz esanekoa izan zala inok esan barik be baidakizu. Bere etxean guraso maitien aginduak, Jerusalem'go eleizan ango abade ta irakaslenak, lotsa ta itzal andiz beti egin eta bete ebazan. Seme - Jainkoaren gizakundean, aingeruari zer erantzun eutsan baidakizu: *Ona emen—esan eban—Jaunaren mirabea; zuk diñozun ori, Jaunak nai daun lez, nigan egin bedi.* Erroma'ko Kaisar'aren agindua betetaren, negu-gorian Nazaret'etik Belen'eraño joan zan eta osoro garbia zan Ama apal oreak, berari ez egokion garbikundeko legea be zeatz eta zintzoro bete eban. Menpetasunak eroan eban bere Seme laztana kurutzera. (PHIL. II, 8): menpetasun oreak Ama samur

au be kurutzearen ondora, ta Aita Goikoaren naya egitearen, Ama atsekabetuak ontzat emon eban bere Seme kutunaren eriotzea. Jainkoaren naya ondo ta zeatzen Jesu-Kristo gure Jaunak egin eban; baña Jesu-Kristo'ren ufengo beste inok ez dau bete lurrean, Andra Mariak baizen zeatz eta ondo.

Gatzik ez daukan jakia atsegin ez yakun lez, gure egite onak be, menpetasunaren gatzik ezpa-daroe, Jainkoaren gogoko ez dira izaten. Menpetasuna da gure egite on guztien gatzia: augaitik egiterik andienak be, menpetasun barik, Jainkoarentzat naskagari dira, ta bestera, egite txikiak be, menpetasunaren gatzia ba-dauke, gozo, eztitsu ta gogo - gogoko izaten yakoz. «AITA GUREA» diñogun bakotxean: zure naya egin bedi zeruan lez lurrean be, esaten dogu. Zeruan guztiak zeatz eta osoro egiten dabe, ta lurrean be zeatz egin eta betetako, ardura geyago artu beari geunke, gure egin beari andiena orixe da-ta. Orain Jaunaren menpean zintzoro ba'gengoz; bere naya gauza guz-

tietan egingo ba'gendu, guztiz eta osoro Jaunarenak izango giñake; maitasun - lo-kañi bigun eta gozoen bidez, alkañekin lotuta gengokez eta Jaunak gero, bere maitalientzat zeruan daukan betiko zori-ona emongo leuskigu.

Menpetasunaren eredu urena izan ziñakuzan Ama laztan oñek, zeure seme-alaba eñukañiok zeure egape gozoan arñtu gaginguz: menpetasunaren irabazi andiak ondo ezagutu daikeguzan, gure adimen ilunok goiko argi edeñagaz argitu eiguzuz, eta Jainkoaren agintzak lez, luñean bere ordeko diran gure nagosienak be zintzoro egin eta bete daiguzan, Ama samuñ ori Jaunaren auñean geure bitañteko ta laguntzale izan zakikuz eta geure asmo onetan sendatu gaizuz.

LOREA: VIR OBEDIENS LOQUETUR VICTORIAM. (PROV. XXI, 28). Esanekoa dan gizonak, garaitza ospatuko dau.

ERABAGIA: OBEDITE PRÆPOSITIS VESTRIS ET SUBJACETE EIS. (HEBR. XIII, 17). Zeuen nagosien esanak egikezuez eta euren menpean zagokeze.



## Ogetaseigaren egunerako irakurkizuna

**Andra Maria, otzantfasunaren eredu mazal-  
mazala.**

### I

Norbait érez eta ariñegi asáratzen bada, gizon asáreti eta suminkoía dala esaten dogu: gauzak okeí urten nai irañak entzun áren, asáferkia bere biotzean irato ta bere buruaren jabe oso gelditzen dana, gizon baketsu ta otzana da. Batzuk euren menduz, beste batzuk baño sumibera, asáferkoí eta píriágoak izan oi dira; baña beaí ez danean ala beaí dan baño geyago berotu ta asáratzeko griña donge ori, guztiok daukagu. Gaiztakeri askoren éro ta zustráya da-ta, guztiz erail ezin ba' geinke be, al - dogun bestean makaldu ta eziteko alegin egin beaí dogu. Orain ba: ariñegi sumindu ta asáratzeko daukagun lera gaizto ori ezi ta neurira dakaíren onoi-menari, otzantasuna deritxoe.

Gizon otzana nekez asafatu doa ta asafatzen danean be, lafegi berotu barik, beti bere buruaren jabe izaten da; suminbera ta asafekoia, ostera, bertatik irakiten asten da, saritan zer egiten daun be ez daki ta inoz baño sariago bere buru ta zentzuna guztiz galdu dituala dirudi: augaitik, otzantasuna norberetzat eta inoentzat onurakoia eta maitagaria izaten da; asafkeri ta suminkoitasuna, ostera, norberetzat eta inoentzat kaltekoia eta naskagaria. Gizon suminbereak ekatxa dirudi; aurrean daukan guztia eratsi ta zuzitu nai leuke. Bere biotzean odolak, sutan dagoan topinoko urak lez, diraki: odolaren irakinagaz bere adimeneko argia ilunduten da, ta ezpanetatik bitsa ta begietatik gaia dariola, zentzundun gizonaren antza galdurik, basapizti amuratuarena aritu daroa. Augaitik diñosku Jaunak: *gizon apal eta otzana, aroa baño obe da. Asafekoia ez zaite izan, asafeak gizonari zentzuna kentzen dautso-ta.* (ECCLES. VII, 10).

Itz bigunik esaten ez daki: bere asafea erakusteko, itzik zofozt eta gogofenai,

mingoitz eta gaíratzenai be gitxiegi deritxoe: auírekoari min-emoten dautsala baidaki; baña orixe nai dau ta guzur' eta irañik andienak asmetan ditu, min-emoteko. Bein baño saíago, bere asaíearen eíua Jaunak ba'leuko lez, añen eta birau ikaragaíak jauíti daroaz, eta gizonkeri andia egiten daulako ustez, bere burua kakaztu ta bere ago ta ezpanak zikinkeriz loituten ditu. Emakumiak be, asaíatzen diranean, entzuteko gauzak esaten dabez. Euren buruai zoí dautsen lotsea galdu-ta, batabesteari irañak esaten asten diranean, baíenditik urtendako asaíe-biziak dirudie: euren miña azkatu ta burura datoíkiezan zikinkerí guztiak, agotik utzitu daroaz. Augaitik-edo, Esakunetako idaztian irakuíten dogu: *Emakumearen asaíea baño asaíe gaiztoagorik ez dago; emakume asaíeti ta suminkoíagaz baño basa-pizti ta erensugeakin lekaroan bizi be obe da.* (PROV. XXI, 19, ECCLI. XXV, 23).

Baña gizon suminkoíaren itzak baño be, bere egiteak saíitan txaragoak izaten dira. Eskubide guztiak bereak bai'litzazan,

bere auzian bere burua epaikari egiten dau: bere asafeari baño ez dautso entzuten eta, gauza jakiña, auzi ori bere alde eta aurrekoaren kaltez erabagiten dau beti ta, onelan, berari ondo letořkion zigořa, aurrekoari ezartzen dautso. Gizon asafetiak iskanbila ta matxinada asko dakařz: asafeari ukobilko ta ostikadak saři, zauri ta eriotzak be iñoz baño sařiago jařaitzen dautse, ta griña donge ori ezi ezagaitik, gizařteko gořoto ta alkař ikusi-eziñak luzaro irauten dabe. Odola pizka bat otzitzen yakanean, gizon suminkořak ezagutzen dau lařegikeriak esan eta egin eba-zala; baña bere burua zuritu ta garbitu nairik, atxaki bila ibiltzen da. «Odol berokoa naz-ta, nire mendua olakoxea da-ta», esaten dau; baña mendurik gaizto ta suminkořena be, norberak nai izan ezker, ezi ta aldatu lei ta odol beroko askok, osoro ezi ta aldatu dabe: augaitik, bere menduz suminbera ta asafekořa danak, akiakulu ta atxaki ořeik itxirik, bere mendu ori ezi ta otzana izateko alegin egin beař leuke. Baña batzuetan — esan leike

norbaitek — asaratu be egin bea' izaten gara. — Batzuetan, bai; baña beti neufiz, norbere buruaren jabetasuna iñoz galdu barik. Asaratu zaiteze — diño Dabit igar-leak, — baña, a'en, obenik ez egizue egin. (PSAL. IV, 5). Au ederto esana da; baña obenik egin barik, bea' danean eta bea' dan beste baka'rik asaratzeko, otzantasuna osoro bearezkoa dogu.

## II

Gure Jaunak maiterik diñosku: *Biotzez apal eta otzana nazan-augandik, apaltasun eta otzantasuna ikasi egizuez eta zeuen gogoentzat atsedean osoa aufkituko dozue.* (MATT. XI, 29). Eta egiz, biotza baketsu ta atsedean ederean eukiteko, otzantasuna baño gauza egokiagorik ez dago. Gizon suminko'a bere asareak, eka-txak itxaso lez, ara ta ona, gora ta bera darabil: gizon otzanak itxaso bare - barea dirudi. Gauzak oke' urten a'en, asarerik ez dau erakusten: beste bein ondo urtengo dautsela bai-daki, ta oke' urtendako gauza ori zuzentzeko, asarez ere baño norbere



buruaren jabe izan obe dala-ta, baketsu ta otzān jaġaitzen dau. Norbaitek iraġnen bat egiten dautsanean be, iraġnak diġozan ori, entzuten dituana baġo, eġukaġiago dala-ta, itz gozo - bigunakin erantzuten dautso. Erantzupen bigunak — diġo Esakunetako liburuak — asaġea ausitu ta itz gaġatzak geyago iziotu daroe: augaitik, gizon otzānak asaġatuari bigun eta gozoro erantzuten dautso ta aldi labuġean suminkoġaren asaġea bareturik, bere biotzaren jabe egiten da.

Ene semea — diġosku Jaġnak — egiten dozuzan gauza guzġietan, otzāntasuna erakutsi egizu ta beste gizonak, egitaderik aġigaġienak egingo ba'zenduz baġo be, geyago maitatuko zaitue. (Eccli. III, 19). Eta, ziġez, gizonen biotzak geuretzat irabazteko, nai eurak alkaġekin bakean ipinteko, nai euren bide gaiztotik aldendu ta Jaunagana eroateko, otzāntasunak bera-rizko jas eta indaġa daukoz. Txarġo entzun eta ondo erantzun, kaltea aġtu ta mesede egiten dakian gizon otzānari luzaro aġka egin leyon biotzik ez dago, gizonen.

biotzak itz samur eta egite onakin, euliak eztiagaz lez, artu ta arapatzen dira - ta. Kirioak (nerbioak) gure gorputzaren atalak alkarrekin batu ta lotzen dabezan lez, otzantasunak be gizonak alkaru, batu ta aizkidetu daroaz, eta biotzeko zauriai bigun ikutu ta miñik egin barik osatzeko be, otzantasuna lako osagalurik ez dago. Augaitik iñoan gure Jaunak: *Baketsu ta otzanak zorioneko, luñaren jabe egingo dira-ta.* (MATT. V, 4). Luñaren izenagaz, luñean bizi diran gizasemeak adierazo nai dauskuz eta otzantasunaren bidez, guztien jabe izango gareala diñausku. Onelan ba, beste norbait zugaz asaratzen danean, zu ez zaite beragaz asaratu, sua suagaz ezin itzali (amatau) leikela bai-dakizu-ta; beste norbaitek bere miña zořoztu ta erleak eztena lez sartu nai ba-dautzu, zuk ez egi-ozu jaraitu ořetan, eztena sartzen daun erleak bere burua erailten daula bai-dakizu-ta: besteak asarearen beztuna emon nai ba-dautzu, zuk berari otzantasunaren ezti gozoa emon egiozu, ta onela, zeure ta beste ořen jabe izango zara.


Gure Jauna, bildotsa baizen otzana izan zan eta otzantasuna bere biotzetik ikasi gengiala agindu euskun. Andra Maria be, usoa lez, gozo, eztitsu ta otzana izan zan. Ezpata zořotzak, bai, zauritu eutsan bere biotza: baña asare ta gořotoak ez eutsan iñoz mingoztu ta zauritu: bere Seme laz-tana kurutzean josi eben gizon biotz go-gořakin be ez zan asaratu: Semearen antzera Ama otzanak be, Aita - Goikoari eskatu eutsan gizon donge aei euren gaiztakeri baltza erukiz parkatu egioela.

Emakume garbi ta bikañena, guztien artean otzanena zarean orek, geure gaiztakerietatik azkatu ta zeure antzera garbi ta otzanak egin gaizuz. Sumimen eta asarkeria geure biotzetan irato ta otzan - bakesuak izateko bear dogun eskařa biotz-biotzez eskatzen dautzugu-ta, zuk, geure Ama bigun, samur eta erukitsu orek, esku-zabalez emongo dauskuzula uste betegaz itxaroten dogu.

LOREA: BEATI MITES, QUONIAM IPSI POSSIDEBUNT TERRAM. (MATT. V, 4). Zorionekoak otzanak, luřaren jabe egingo dira-ta:

ERABAGIA: FILI, IN MANSUETUDINE OPERA  
TUA PERFICE. (ECCLI. III, 19). Ene semea,  
zeure egikizunak otzantasunez egikezuz.





## Ogetazazpigaren eguneroko irakurkizuna

---

### Andra Maria, eroapenaren eredu gorenengoa

#### I

Atzo azaldu genduan otzantasuna ta gaur adierazoko dogun eroapen au alkañen aizta kutunak dirala eñez ezagutu daikezu. Eroapen gitxiko gizasemea edo zelako kalte, ezbeař edo okeñen bat datořkionean, lařegi estutu ta lařituten da: bere gogoa goibeldu ta ilundu, bere biotza atsekabetu ta mingoiztu egiten yakoz: batzuetan, gaitz eta okeñaren auñez - auř, ikaratu ta kikildu; baña beste batzuetan, arřegatu, berotu ta asařatu egiten da, ta orduan jaguř aren otzantasuna! Augaitik ba, otzanak izateko, arře ta eroapena beařezkoak doguzala argiro dakuzu.

Baña eroapen au, sendotasunaren lagun be bai-da. Biotzeko sendotasuna auñerago azaldu dogu ta zer dan gomutauko dozula deritxat. Orain ba: egoaři edo eroapena

sendotasunaren zatia dala ta onoimen txikiagoa, andiagoari lez, eroapena be sendotasunari iratsi ta ezañi geinkiola, Eleizako irakasle andi ta jakitun, Tomas deunak argiro irakasten dausku. Eta egiz, etoñi leikeguzan okeñ, ezbeañ eta zoritxañak, guztiak bañdiñak barik, batzuk bestiak baño andi ta astunagoak izan daitekezala edonok daki. Orain ba: geure bizia galtzeko añiskua ekañi leikeguen ezbeañ eta zoritxañ andiai arpegi emon eta kikildu barik añtu ta eroateko kemen eta adorea damoskun onoimenari, sendotasuna deritxogu: bizitzako beste okeñ eta zoritxañ txikiagoak lañegi estutu ta lañitu barik, añtu ta eroateko indaña emoten dauskun beste onoimen au, eroapenaren izenagaz adierazten dogu: onelan ba, eroapena sendotasunaren kide ta bertorako bide dala argiro dakuzu.

Negañezko erbeste onetan, kalte, ezbeañ eta zorigaitz askok ikutu ta min-emon leikegue ta zoritxañ oñeik geure gogoa lañegi lañitu, eratsi ta zapaldu ez daiguen berarizko onoimen bat beañ dogu ta onoi-

men ofi arte edo eroapena deritxogu. Geure ogasunak, gorputzeko osasuna, ospe edo entzute ona ta geure gogoko ondasunak galdu daikeguz eta geuri lez, gure senide ta aizkideai be, geure-geureak ba'lira lez biotza atsekabetu ta saminduten dauskuen ezbeaĭ eta zoritxaĭak etofĭ leikioez. Goiko-Jaunak gure ardura zoli-zolia daukala ziĭnesten dogunok, kalte ta zoritxaĭ guztiak arte andiagaz artu, jasan eta eroan beaĭ geunkez. Zoritxaĭen bat etofĭ yakola-ta, bere baĭnean geyegi es-tutu ta laĭĭtuten danak nai bere arpegi, itz eta egitadetan urduritasun eta artegatasun laĭegi darakusanak, oraindik eroapenaren jabe ez dala ziĭnetsi beike.

Geure ogasunetan kaltea ba'letofĭkigu, Job eroapentsuagaz esan beaĭ geunke: *Neure amaren sabeletik biĭoizik urten nintzan: luĭaren sabelera biĭoizik joango naz. Jaunaĭ emon eustan, Jaunaĭ kendu daust. Jaunari atsegin izan yakon lez, alantxe jazo da. Jaunaren izena onetsi ta goratu be-di.* (JOB. I, 21). Gorputzeko geizoetan jakitunak diĭoskun au gogoratu daikegu:

*Ene semea, zeure geizoan zeure buru ori ez egizu gitxitan euki: Jaunari otoi-egiozu ta berak osatuko zaitu. (ECCLI. XXXVIII, 9). Geure ospe ta entzute onaren kaltez, alke ta lotsariak ba'letofkiguz, Jaunak diñoskun au gomutau geinke: Ni nazala-ta, gizonak irain egiten ba-dautzue, jazaften ba-zaitue ta guzura darioela, gaiztakeririk txafenak zuen kaltez ba-diñoez, zorionekoak zarie: poztu ta alaitu zaitzeze, zuen saria zeruetan jori ta ugari izango da-ta. (MATT. V, 11). Geure biotza idoi eta legoi, geure gogoa ilun eta argal nai ziltzaldi (tentaziño) gogorean ba - dakusgu, Jaunak deun Paulo bere bialduari esan eutsona gomutau daigun: Nire eskañ eta laguntasuna naiko dozuz, nire al eta indaña zure argaltasun ofeitan iñoz baño obeto ta osoroago agertzen da-ta. (II, COR. XII, 9).*

Augaitik iñoan berak: *Neure argaltasun oneitan gogoz poztuko naz, Jaunaren al eta eskaña nigan bizi dedin: makaltzen nazanean ba, Jaunaren laguntasunagaz iñoz baño sendo ta indañtsuagoa naz. (IB. 9). Geure biotzeko atsekabe ta laritasunetan*



Jaunaren beste itz oneik, burura ekañi beaŕ geunkez: *Zueġ, ziñez, orain betilun eta lañi zagoze; baña bañiro ikusi ta ikeñtu-ko zaituet eta zuen biotz ori poztuko da ta pozt ori iñok be ezingo dautzue kendu.* (JOAN, XVI, 22). Geure senide ta aizkidien eriotz-aldietan, deun Paulo'ren itz oneik gomutau beaŕ doguz: *Ilakin zer izango dan, zuek anai oñeik, ez jakiterik ez dogu nai, itxaropenik ez dauken beste enparauak lez, atsekabetu ta lañitu ez zaitezen. Jesu-Kristo il eta beñbiztu zala ziñesten ba-dogu, ba, bere ziñeskintza ta maitasunean il diranak be, Jaunak beñbiztu ta bere zorionera eroango dituala ziñetsi beaŕ dogu.* (THESS. IV, 13). Eta geure bizitz guztian, edozelako okeñ eta zorigatxetan, deun Paulo'k diñauskun au beti gogoan euki beaŕ geunke: *Arte ta eroapena beañezkoa dozue, onelan, Jaunaren naya egiñik, bere agintzariak be eskuratu daizuezan.* (HEB. X - 36).

## II

Eroapenak lau mala daukaz. Bizitz one-

tako ezbeař eta zorigatxak, ařteगतु bari, jasan eta eroatea, ori da bere lenengo mařea: gogoz ařtu ta igarotea, bigařena; alaitasun eta pozez jasan eta eroatea, irugařena, ta zoritxař kalte ořeik geure gogoaren onerako bialtzen dauskuzan Jaunari, eskařak egin edo emotea, eroapenaren gorengo mařea da. *Neure neke, loř eta zoritxařetan ene biotz au atsegin eta gozotasunez bete yat; alaitasun eta pozak biotzean gañezka egin daust*, esaten eban deun Paul, Jaunaren bialduak (II, COR. VII, 4) eta bere antzera, bizitzako neke, min, loř, ezbeař, okeř, jasařpen eta zoritxařakin poztu diran gizon zuzenak, eta Jesu-Kristo'ren antz geyago eukiteařen, Jaunari jasařpen, neke, loř eta zoritxař geyago eskatu dautsenak, askotxu izan dira.

Eroapena bařo sařiago beař dogun onoi-menik ez dago. Negařezko eřbestean bizi gara-ta, nai jo batera nai bestera, nai gora igon nai bera jatzi, edonun zerbait jasan eta igaro beař izango dogu. Eta datořkiguzan kalte, ezbeař eta kurutze ořeik go-

go txarez artzen ba-doguz, arte ta eroapenez artuta baño, askozaz be saminkof eta astunagoak egingo yakuz. Aizeak okefetara putz-egin aren, itxas - gizonak euren untziko gauzak ez dabez beingoan itxasora jauřititen: ekaitz gaiztoak itxasuntzia bere bidetik aldendu ta galdu-gordean ba-darabil be, eurak gogof eutsiten dautse ta ekatxari jakki - egiten yakoz, bañiro euren bide zuzenean sartu arte. Guk be, geure kaltez ekatxa jagi ta zoritxaren aizeak bultz-egin aren, itxas - gizonen antzera, ekaitz ofi gogof eutsi beaf dautsagu, ta aize-oyalaren ordez geure Jaunaren kurutzea gora jasorik, zorioneko kaira eldu arte, sendoro auñera jafaitu beaf dogu.

Jesu-Kristo'ren ikaslak gara - ta, bere onatzai jafaitzea dagokigu: *baña Jesu-Kristo'k—diñausku Simon-Pedro'k—gure aldez neke ta loñ asko jasan eta igaro ebazan, zuoi jafaibidea itxirik, bere onatzai jafaitu dayoezuen.* (I, PETR. II, 21). Gure Jaunaren onatz ofei zeatz jafaitzea guretzat gaitz dala bai-dakigu; baña ezin geinken gauzea be ez da-ta, Jaunari

zeatz jařaitzeko zer egin beař dan entzun egizu. Eřudun ba - zara ta datořkizuzan kurutze, neke ta zorigatxak gogo txařez ba'leroazuz, ořetan lapuř txařaren antza eukiko zeunke: eřudun zareala-ta, zeure kurutze ori ařte ta eroapenez ba'leroazu, lapuř onaren antzeko egingo ziņake: baņa eřurik ez daukazula ba-deritxazu ta ori ta guzti, zeure kurutzea eroapen eta maitasunez ba-daroazu, ořetan Jesu - Kristo'ren antzeko zara ta zeure Jauna dirudizu. Lapuř onak txařari esaten eutsan: *Guk, ziņez, irabazi doguna ařtzen dogu: geure egite txařai dagokien zigořa daroagu; baņa onek gauza txařik ez dau egin.* (Luc. XXIII, 41). Lapuř onaren antzera, norbere kurutzea ařte andiagaz eroatea, ondo da; baņa Jesu-Kristo'ren antza euki obe dala edonok daki. Aonelan ba, zeure eřu barik, ezbeař, neke ta zorigatxak ba-datořkizuz eta kurutze ori eroapenez ba-daroazu, iņoz baņo geyago poztu zeinteketz, beste iņoz baņo zeure Jaunaren antz geyago daukazu-ta.

Andra Maria osoro eřugabe izan zala

bai-dakizu. Bere atsekabe, neke - min eta loñak asko ta andiak izan zirala jakiteko, zazpi ezpata zoñotzek bere biotza alderik-alde igaro eutsela gomutau egizu ta beste barik be, Ama nekatu onen kurutzea astunastuna izan zala igarñi zeinke. Ama samur onek, beste inok baño bere Semearen antz geyago eukan eta, augaitik, bere zorigailtz, neke ta kurutze oñeik, eroapenik andienagaz jasan eta eroan ebazala ezautu ta autoñtu beañ dogu. Onelan, Jaunaren urango, Andra Maria da guretzat eroapenaren eredu ta jañabiderik edeñ eta go-renengoa.

Ama laztan eta eroapentsu ori, geure bizitzako okeñ, ezbeañ eta zorigatxetan, lagun zakiguz. Zuk, Ama samur oñek, egoarñi ta eroapena ondo baño obeto irakatsi zeunskun: baña gu, zure seme - alabok, geure ezbeañ eta zorigatxetan lañegi estutu ta lañituten gareala bai-dakizu. Zeruko poza zarean Ama laztan ori, geure zoritxañpean ilun, jausi ta lañi gagozanean, añen, geure gogoak alaitu, poztu, jaso ta sendotzera etoñi zakiguz.

LOREA: IN PATIENTIA VESTRA POSSIDEBITIS ANIMAS VESTRAS. (LUC. XXI, 19). Eroapenaren bidez zeuen gogoen jabe izango zarieta betiko zoriona loftuko dozue.

ERABAGIA: ALTER ALTERIUS ONERA PORTATE ET SIC ADIMPLEBITIS LEGEM CHRISTI. (GAL. VI, 2). Bata-bestearen argaltasunak eroapenez jasan egizuez eta orelan Jaunaren legea beteko dozue.





## Ogetazortzigaren egunerako irakurkizuna

**Andra Maria, otoitz eta eraspeneren**  
(*deboziñoaren*) **eredu garaya.**

### I

Gauza asko ezin jadetsi ta ezin egin geinkez, Jaunak lagundu ezik; baña Jaunaren berarizko laguntza ori aldi - oro euki daigun, berari eskatu beaŕ dautsagu, eskatu ezik ez dausku emongo-ta: augaitik, guztiok Jaunari otoi-egin beaŕean gagoz. Gure beaŕizen au, Jaunak berak argiro darakusku, diñoskunean: *ziltzaldian* (tentaziñoan) *jausi ez zaitezzen ernai zägokeze ta otoi - egizue*. (MATT, XXVI, 41). *Zuen poz ori oso - betea izan dedin, eskatu egizue ta artuko dozue*. (JOAN, XVI, 24). Eta beste bein: *iñoz aspeŕtu ta gogaitu barik otoi - egitea beaŕezkoa da*. (LUC. XXVIII, 1).

Otoi-egitea Jaunaganantz gogoa jaso ta berari beaŕ doguzan eskaŕ eta mesedeak

eskatzea dala ondo dakizu. Gauza onak irakurten doguzanean — diño deun Austiñe'k — Jaunak geuri itz-egiten dauskula dirudi: otoi-egiten dogunean, ostera, geuk berari itz-egiten dautsagu. Otoi-egiten dogunean, ba, Jauna adi daukagula ziñesten dogu, ta lu'eko aizkideakin egiten dogun antzera, geure argaltasun eta beañizen guztiak agertzen dautsaguz, lotsa ta itzal andiz bai, baña itxaropen eta uste beteagaz.

Otoitza (oraziñoa) aozko ta gogozkoa izan daiteke. Itzakin egiten dogunari aozkoa deritxogu. Ziñez, aozko otoitz o'feit tan be gure gogoak adi egon beañ dau; baña itzak esateko geure min eta ezpanak erabili beañ izaten doguz, eta augaitik, otoitz o'ri aozkoa zuzen deritxogu. Gogozko otoitzetan itzik esan beañik ez dago: geure ziñeskintzako egi bat - edo - beste geure burura eka'ri ta berari adi - egoten gara: agoan jatekoa auzna'tzen dogun lez, egi ori gogoz-na'tzen dogu ta onelan, gure biotza be gauza onetarako berotu ta adoretu egiten da. Nai aozko nai gogozko otoitza egiteko, geure gogo-biotzak gertu



beař doguz. Jakitunaren bidez diñosku, ba, geure Jaunak: *Otoitz - aurretik, zeure gogo ori gertu egizu, ta Jainkoari eskua ařtu nai dautsan gizona lez, ez zaite izan.* (ECCLI. XVIII, 23). Edozelako otoitzak, ona izateko, lau baldintza oneik beař-beařak ditu: adipen, apaltasun, uste bete ta iraupena.

Eskatzen dogunari adi ezpa' gengoz, geure eskaria Jaunak entzun ez ařen, ar-dura gitxi dauskula adierazoko geunke, ta geure zabařkeri ori dala-ta, Jaunak jaramonik be ez leuskigu egingo. Jainkoa gogoa da—diño ikasle maiteak—eta bera jauresten dabenak, gogoz eta egiz guřtu ta jauretsi beař dabe. (JOAN, IV, 24). Apaltasuna beařezkoa dala jakiteko, parixetař eta zergariagaz gomutau zaiz: parixetař ařoa, sařtu zan baño txarařago eleizatik ur-ten zala ta bere burua apaletsi eban zergari gaizoak, bere eřu ta obenen parkamen osoa jadetsi ebala, Jaunak diñosku. (LUC. XVIII, 10 ET SEQ). *Bere burua apa-leston daunaren otoitza odayetan zeař igongo da: Jaunagana uřeratu ařte ez da geldi-*

*tuko, ta Goikoak abegi onez begiratu arte, ez dau andik alde-egingo. (ECCLI. XXXV, 21). Ziñesmen sendo ta uste bete barik, gure otoitzak indarrik ez dauke. Zuetako norbaitek jakituria beaf ba'dau, Jaunari eskatu begio—diño Santiago bialduak—baña ziñestean ezbai ta zalantza barik, eskatu bei. Loftuko ez ete-daun, bai ete-daun zalantzan dagoanak, aizeak batera - bestera darabilan itxasoko uin edo olatua dirudi. Ofelako gizonak, ba, Jaunagandik ezertxu artuko daula ez begi uste izan. (JAC. I, 5). Eta gure Jaunak esan euskun: zuen otoitzetan uste beteagaz eskatuko dozuen edozer, jadetsiko dozue. (MATT. XXI, 22). Azkenez, geure otoitzetan garaitz osoa eskura dakaizkuna, iraupena dala jakin egizu. Gure Jaunak ori argiro adierazo euskun, iñoanean: Norbait gau-erdian bere aizkidearen etxera iru ogiren bila joango ba'litz eta onek erantzun ařen: ez akit izan gogaikari; neu otseñakin oeratu nok eta ezin emon dagikeadaz: ori erantzun ařen, besteak ori ta guzti, ate-joten jaraituko ba'leu, aizkide dalako jagi ta emongo ezpa'leuskioz be, go-*

*gait-eragin ez dagion beintzat, oetik jagi ta bea' dituan ogiok emongo leuskiozala diñotzuet. Ba, nik be bardin diñotzuet zuoi: eskatu egizue ta emongo yatzue; bilatu egizue ta idoroko (aurkituko) dozue: atea jo egizue ta idegiko yatzue. (LUC. XI, 5 ET SEQ). Aonezaz gañera, Jainkoari eskatzen dautsagun guztia, Jesu-Kristo'ren izenean eskatu bea' dautsagu. Jaunak berak esan euskun ba: *ziñez diñotzuet: nire izenean Aita-Goikoari zerbait eskatu ba - dagiozue, emongo dautzue. (JOAN, XVI, 23).**

## II

Egiz, geure otoitzen bidez Jaunari eskatzen dautsaguna, beti ez dogu eskuratzzen; baña ¿zergaitik izaten ete-da?—Bein baño sañiago gauza txar'ak, edo beintzat geure gogoaren osasunerako egoki ez diranak eskatzen doguz, eta guri zer ondo ta zer txar'to dagokigun geuk baño obeto dakian Jaunak, ez dauskuz emoten: baña geure otoitza alpe'ekoa izan dala ez dogu uste izan bea', Jaun erukio'ak guk eskatu geuntsana baño obeto dagokigun beste

zerbait emongo dausku-ta. Beste batzuetan, gaiztakerian jaraitzeko asmo dongea itxi barik, bizitz onetarako ogasun eta aukerak bakarrik eskatzen dautsaguz, eta Jaunak orielako otoitzak nekez entzun daroaz. Azkenez, beste batzuetan gauza onak bai; baña txarito eskatzen doguz; geure otoitzetan bear litzaken besteko uste, gar eta iraupenik ez daukagu ta Jaunak ez-entzun egiten dausku. *Eskatzen dozue ta ez dozue artzen* — diño Santiago bialduak — *txarito eskatzen dozuelako*. (JAC. IV, 3).

Gure otoitzen gogo ta bizia Jaunagazko maitasun, biotzeko gar eta iraupena dirala jakin egizu: barreneko gar eta iraupen barik egiten dogun otoitzak gauza ila dirudi ta Jainko biziak eskari motel eta ilik ez dantzu. *Zuek nigan ba-zagoze ta nire itzak zuekin ba-dagoz* — diño Jaunak — *nai dozuen edozer eskatuko dozue ta egingo yatzue*. (JOAN, XV, 7).

Ama-zale dan umeak bere amari eraspen andia dautsala esaten dogu. Jainko-zale dan gizasemeak, Jaunari eraspenna

dautsala bardin esan geinke. Onelan, ba, eraspina (deboziñoa) ez da beste gauzarik, Jaunaren naya edonun eta edonoz egiteko, gogo gertu ta bizkoña baño. Eraspina ta biotzeko samurtasuna bein baño sariago alkarekin ibili oi dira; baña eraspen zindo ta sendoa eukiteko, biotz samurtasun eta gozotasun oñeik beañezkoak ez dirala orok dakigu. Zeure biotza iñozkorik leor eta igaren daukazula baderitxazu be, zure gogo ori Jaunaren naya zintzoro egiteko gertu ba - dago, zeure Jaunari benetako eraspina dautsazula ziniñetsi zeinke. Otoitza, ta batez be, gogozko otoitza, gure biotzen sutegi lez izaten da: otoitz oñek biotzeko gaña biztu daroa ta gar onek dakañ eraspina.

Jaunak egin dauskuzan eskañ eta mese-deak, bere ontasun eta eruki samura gomutau ta gogoz-nañtu ezkerro, gure Jaun ori osoro maitagañi agertzen yaku, ta Jaun -zaletu egiten gara. Beste aldetik geure buruari begiratu ta geure argaltasuna gomutau ezkerro, Jaunak eutsi ezik, galduak gareala ta bere laguntasuna beañ dogula

argiro dazaugu: onelan, iñoren babes eta laguntasuna bear' daun ume gaizoa bere amari erantsi oi yakan lez, gure gogo au be Jaunari erantsi ta itsatsi lez egiten yako. Eraspen zindoa nai ba-dozu, Jaunaren al, ontasun eta erukia eta zeure argaltasun eta ezereztasuna safi gomutau eta astiro gogoz-nartu egikezuz. Ori egin ezkerro, Dabit igarleagaz esan al-izango dozu: *Neure Jaunari erantsita bizi ta ene Jaun oregan neure itxaropena ipintea, niretzat gauza on eta osasungaria da.* (PSAL. LXXII, 28).

Andra Maria'ren eraspenna zelakoa izan zan zeatz ezin adierazo neinke irakurkizun au la'egi luzatu bear' izango neunke-ta. Gure Ama Eleizeak eraspennaren ontzi garbal eta bikaña deitzen dautso: *Vas insigne devotionis.* Jainko-maitasunak bere biotza berotu ta goritu eban, sutegian burdiña goritzen dan lez; bere biotza maitasun - garfetan eta bere gogo zoriontsua Jaunagaz josita euki ebazan bere bizitz guztian; augaitik Jaunaren naya egiteko beti gertu, bere deyari erantzuteko beti

ernai ta bizkoĭ egon zan eta Jaunari atsegin emotea baĭno beste gurari ta asmorik ez eban iĭnoz euki. Eten barik otoi-egiten eban: lo egoanean be, bere biotza itzaĭik egoten zala ta Jainkoagaz ames - egiten ebala diĭosku (CANT. V, 21); bere otoitzak biotzeko gaĭagaz berotzen ebazan eta luĭun gozoa lez Jaunaren auĭera igoten ziran eta Jaunari beti atseginizaten yakazan. Onelan ba, zuk be zeure otoitzak Jaunak entzutea nai ba-dozu, Andra Maria zeure erĕdutzat aĭturik, biotz-gaĭetan berotu ta eraspnaren luĭun gozoagaz usaindu egikezuz.


Jainkoa biotz - biotzez maitatu zendun Ama samuĭ ori, eĭuki zakiguz eta geure biotz epel oneik, aĭen, berotu ta Jaunaz letu eiguzuz. Biotzeko gaĭ eta Jaunagazko eraspn ori jadesteko, zeu Ama laztan ori, bitaĭteko zat iminten zaitugu; gure eskari au abegi onez aĭtu egizu ta zeure antzera, apaltasun, uste bete, gaĭ andiz ta iraupenagaz geure otoitzat egiteko beaĭ dogun laguntasuna Jaunagandik loĭtu eiguzu.

LOREA: PETITE ET ACCIPIETIS: QUÆRITE ET INVENIETIS: PULSATE ET APERIETUR VOBIS. (LUC. XI, 9). Eskatu egizue ta artuko dozue: bi-latu egizue ta idoroko dozue: atea jo-egizue ta idegiko yatzue.

ERABAGIA: OPORTET SEMPER ORARE ET NON DEFICERE. (LUC. XVIII, 1). Inoz gogaitu barik, beti otoi - egiteko asmoa artu egizu.







# Ogetabederatzigaren egunerako irakurkizuna

**Andra Maria, eruki samuraren eredu  
laztangaia.**

## I

Gizasemeok sañi askotan, geuk uste dogun baño be erukañiago izaten gara. Bizitz onetan zorionak uñi ta zoritxañak ugari izaten doguz. Zoritxañ oneik batzuetan gorputzean, bestietan geure gogoan ikutzen dauskue. Egiz, gorputzaren zoritxañak gogoarenak baño obeto ta argiroago dazauguz eta, augaitik, geyago mindu, lañitu ta atsekabetu garoez; baña gogoari dagokiozan zoritxañak, eurenez gorputzarenak baño, andi ta astunagoak dira - ta, oneik baizen ondo ezagutuko ba'genduz, askozaz be geyago lañitu ta atsekabetuko giñake. Gaiztakeri ta obenaren kalteak geure begiakin ez doguz ikusten eta sañitan jaramon gitxi egiten dautsegu; baña

oben astun eta eriozkiña baño zoritxař an-diagorik ez dagoala geure ziñesteak darakusku. Obenean eřez jausten gara ta geurez, Jaunaren laguntasun barik, obenetik ezin urten geinke: augaitik diñot saři askotan geuk uste dogun baño be eřukařia-go izaten gareala. Jainkoa amaibarik eřukiořa ezpa'litz, zoritxařpean negař ugari egin beařko geunke: baña, zorionez, eguzkiak bere argi ta beroa luřeko alde ta zokondo guztietara zabaltzen dituan lez, Jainkoak be bere ontasun eta eřuki biguna gizonen zoritxař guztietara zabaldu daroaz. Gu eřukařia-go ta bera eřukitsuago agertzen yaku; augaitik iñoen Dabit igařleak: *Jauna guztientzat eřukiořa da ta bere eřuki - egipenak beste egite guztien gañetik dagoz.* (PSAL. CXLIV, 9). Eta benetan, gure Jaun ona guztientzat eřukiořa da: baña ořaitik be, norbere lagun eta geideakin eřukitsua danari, eřuki geyago izaten dautso. *Zeuek bestientzat daukazuen neuřiagaz neuřtuak izango zare,* diñosku Jaunak (MATT. VII, 2): augaitik bere eřukia ugariago lořtu nai ba-

dozu, zeu be enparauakin eġukioġa izan zaite.

Eġukia — diġo deun Austiġe'k — sakeletik ez da ateraten, biotzetik baġo. Eta egiz, lenengo biotza eġukitzen da ta biotz eġukituak darabil gero auġekoari bere es-tutasunean laguntzen dautsan eskua. Bein baġo saġiago, auġekoaren zoritxaġa arindu nai izan aġen, edo zegaz ez daukagulako edo ori zelan egin ez dakigulako, ezin arindu izaten dogu, ta orduan, ilun eta atsege dakuskun geure geideagaz ilundu ta atsekabetuten ba-gara, besterik ezer egin ez aġen be, eġukioġak gareala ziġetsi geinke; baġa geure neke laġegi barik, auġekoari lagundu al izan ezkerro, bere es-tutasunetik aterateko geure eskuan dago-ana egin beaġ dogu; osterantzean gure eġuki ori, eġuki izun eta guzuġ utsa izan-go litzake-ta. Onelan ba, eġukioġak izateko, geure geidearen zorigatxak geure go-goa ilundu ta biotza atsekabetu beaġ daus-kue, ta bere zoritxaġ ori arindu al - izan ezkerro, oġetarako be alegin egin beaġ do-gu. Geure zoritxaġak arin atsekabetu ga-

roez: geure geidearenak, nekezago; baña geidearen zoritxañ oñeik geure zoritxañtzat arñtu ta etsi geinkez eta zintzoro maitte ba'geñdu, aren zoritxañak, ia geureak aña, minñdu ta atsekabetuko gindukiez; augaitik erukiaren ama, geideagazko maitasuna dala Eleizako irakasleak ondo diñoskue, eta erukia maitasunaren alaba izan ezkerro, onoimenik edereñetaikoa dala edonok dakus.

Jainkoak bere eskañ eta mesedeak iñori be ez dautsaz zoñ; baña eten barik, guztioi on-egiten diañdu ta geure gaiztakeriak be eruki utsez parkatzen dauskuz. Erukioñak gareanean, geuk be auekoai mesede egiten dautsegu: augaitik, erukiak geure Jaunaren antzeko egiten gaituala iñok be ezin ukatu daike. Orain ba: gure Jauna gugaz ain bigun eta erukitsu dan ezkerro, gu bestiakin biotz - gogoñak izatea ¿ondo ete-da? Guretzat ain erukitsua dan Jaun oñek, geu be erukioñak izan gaizala agintzen dausku. ¿Gauza zuzenagorik ete-dago? *Zuen Aita - Goikoa erukioña dan lez, zuek be alkañekin erukioñak izan zaiteze,*

diñosku Jaunak. (LUC. VI, 36). Eta Mateo deunaren ebangelioan irakurten dogu Jaun oġrek azkenengo egunean bere eskomalde-tik dagokezanai, onelan esango dautsela: *Neure Aitaren onetsi oġeik, erdue ta munduaren asikalditik zuentzat gertuta dagoan bizitz zoriontsuaren jabe egin zaitzeze. Gose nintzan, ba, ta jaten emon zeusten, eġari nintzan eta edaten, aġrotz nintzan eta ostatua emon zeusten, biloizik nengoan eta jantzi ninduzuen, geizorik nengoan eta ikeġtu ninduzuen, baitegi edo espetxean nengoan eta ni ikustera etoġi ziġnen. Orduan autuak erantzungo dautse: Geure Jaun ori ġnoz ikusi ete zindugun, ba, gosez eta jaten emon ete geuntzun? ġnoz eġariġ eta edaten emon ete-geuntzun? ġnoz aġrotz eta geure etxean aġtu ete-zindugun? ġnoz biloizik eta jantzi ete-zindugun? ġnoz geizorik edo espetxean eta zu ikustera joan ete-ġiġan? Eta Jaunak erantzuten esango dautse: Egiz diġnautzuet; nire anairik txikaġenari eġuki ori egin zeuntsen bakotxean, neu neroni egin zeusten. (MATT, XXV, 34 ET SEQ).*

Erukiořakin Jauna bera be erukiořa izango da: baña biotz-gogořak izan diranakin bera be zořotz eta zuzena izango dala, Santiago bere bialduaren bidez argiro adierazo dausku: *Besteakin erukiořa izan ez danak, eruki bako epaya itxaron beike.* JAC. II, 13). Onelan ba, azkenengo egun aretan Jauna zugaz bigun samur eta erukiořa izatea nai ba-dozu, Tobias zařak bere semiari esan eutsan au zeuretzat ar-tu egizu: *Al dozun giñoan erukiořa izan zaitte. Asko ba-daukazu, ugari ta naro emon egizu: gitxi ba-daukazu, be, daukazun gitxi ořetatik, gogo onez emon eikezu.* (TOB. IV, 8).

## II

Jaunagazko maitasunak geure Jaunagaz batu ta lotzen gaitu: gure gogoa Jaunagaz batu ezkeru, geu obetu egiten gara ta guretzat zorionik andiena orixe dalako, Jaunagazko maitasun ori onoimen guztien ar-tean nagosi ta bikañena dala esan dogu: baña erukiak be geure geideagaz baturik, bere utsak bete, bere

beařízenak arindu ta berari lagun egitera itzultzen gaitu: eřukiagaz geure geide (urko laguna) obetuten dogu: augaitik geideagazko onoinenen artean, garai ta urenena eřukia dala esan geinke.

Andra Mariaren eřuki bigun-samuřa ondo azaldu al-izateko, Bernardo deunaren adimen zoli ta biotz maitakořa beaří izango neunkez. Ama samuř ořen maitasun eta neke - miñen semeak gara, ta umientzat amaren eřukia baño bigun, samur, gozo ta eztitsuagorik ez dagoala ondo dakizu. Ama bakotxak bere maitasun, bere odol eta bere neke-miñakin bere umeai izate ta bizia emoten dautse: Andra Mariak be iru gauza ořeikin izate ta bizitz bařia, Jainkoaren semeai dagokien izate ta bizitz edeř bikaña, emon euskula esan daikegu. Gure Jaunaren Ama izan ezkerro, neke ta min izugařiak igaro beaří izango ebazala ondo ekian: baña bere begien aũean ekusazan loř, neke ta min ořeik baño bere gugazko maitasuna indařtsuago izan zan, eta aingerua baři onak emotera etoři yakanean, maitasunez

beterik erantzun eban: *Zuk diñozun ori, nigan egin bedi.* (LUC. I, 38). Augaitik, amak bere umea eřayetan eroaten daun lez Andra Mariak be maitasun-indařez bere biotzean eroan ginduzala, Bernardo deunak diñosku. Jainkoaren semeai dagokun bizitz bařira, kurutzearen oñean jayo giñan eta, Mariaren odol eta neke barik, jayotza ori ez zala egin ondo dakizu. Jesu-Kristo'k bere odolagaz beřerosi ginduzan: baña Jaunak gu beřerosteko isuri eban odol ori, Andra Maria'ren eřayetan ařtu eban, eta Ama laztantsu onen biotza atsekabe, neke ta miñez ase-betea egoala bere Seme ta gure Jaunak kurutzetik esan eutsan: *Andrea, zeure semea, oř daukazu* (JOAN XIX, 26); esaten lez, ni bai - noa, Ama maite; baña nire ordez, neure odolagaz beřerosi dodazan seme baři ořeik izten dautzudaz: zuk, Ama laztan ořek, ni maite izan nozun lez, ořeik be maitatu egikezuz eta Amaren ařdura zoli maitati ta samuř-samuřagaz jagon eta zaindu egikedazuz. Augaitik ba, Andra Maria'ren maitasun eta neke-miñen seme gareala ta



zeruetan Ama altsu ta bikaġa, samuġ eta eġukioġa daukagula ziġetsi beaġ dogu.

Ama maitegaġi au altsua baizen samuġ eta eġukioġa da: Jaunari eskatzen dautsan edozer, Jaunak poz-pozik emoten dautso ta, augaitik, Andra Mariak bere eskari ta otoitzen bidez, muga bako ala dauko, Eleizako gurasoak auġez irakatsi daskuen lez. Eta Ama samuġ onek, Job eroapentsuak baġo obeto esan daike: *eġukia nigaz jayo zan eta gatzetatik geyago neugaz azi da.* (JOB. XXXI, 18). Bernardo deunak Ama zerutaġ onen eġukia azaldu nairik, onelan diġo: ¡O Ama samuġ eta lantzantsu ori, zure eġuki andiaren zabalera, luzera, goratasun eta sakontasuna ġnok azaldu daikez? Bere zabaleran gizadi guttia aġtzen dau; luzeran, azken eguneraġo eltzen da; bere goratasuna, zeruraġo doa; bere sakontasunagaz gure zoritxaġik andienetara be jasten da. Augaitik-esaten eban Andra Mariaren seme zintzo oneknik neure Ama maite oġegan uste bete ta itxaropen osoa daukat: sorosi ta lagundu nengikela bai-dakit, Jainkoaren Ama

da-ta: lagundu nai daustala be bai-dakit, neure Ama érukioř eta samuřa da-ta. Edozein amak bere umeak jagon eta zaintzeko eskubide ta eginbeařa daukaz: Andra Maria geure zeruko Ama samuřa dala ikusi dogu: augaitik gu, bere seme-alaba érukařiok, jagon eta zaintzeko eskubide ta eginbeařa daukazala esan geinke ta bere babes eta magalpe gozoan arćurik, ardura zoliagaz jagoten gaituala ziņetsi beař dogu.

Geure Ama érukioř eta samuř ořek, zeure maitasun eta neke-miņen seme alabak gozuzala ta Jesu-Kisto geure Jaunak zeure ardurapean itxi ginduzala gomutau egizu: zeure seme-alaba zintzoak izateko beař doguzangoiko eskař eta laguntasunak jadetsi eiguzuz eta geure eriotz-aldian, zeure egape gozoan arćurik, iņozko ardurarik andienagaz zaindu gaizuz.

LOREA: BEATI MISERICORDES, QUONIAM IPSI MISERICORDIAM CONSEQUENTUR (MATT. V. 7). Érukiořak zoriontsuak, érukia eurak jadetsiko dabe-ta.

ERABAGIA: INDUITE VOS ERGO SICUT ELECTI DEI, VISCERA MISERICORDIÆ (COLOSS III, 12).  
Jainkoaren autuak zarenok, erukizko erayak jantzi egizuez.





## Ogetamargaren egunerako irakurkizuna

**Andra Maria, ardura zoli - bizkoraren eredu ezin ohea.**

### I

Zeruko Andra samur ori, geure betiko zorionari dagokiozan gauzetan batez be, guri laguntzeko gertu dagoala ikusi dogu: baña bere laguntasun ori, geuk zintzoro erantzun ezik, alpeñekoa izango litzakegula edonok daki. Egiz, gure Ama maite oñek, gure zorionaren ardura zolia dauko; baña bere ardureagaz gurea alkarñtu ezik, geu langile zoli ta arduratsuak izan ezik, Ama laztantsu oñek eskintzen dauskun eta beste inñori baño geyago yoakun zorion ori ezelan jadetsi ta eskuratu geinke? ¡Ezelan bez, geuk egin beañ dogun arazo ta egikizuna da-ta! Baña gu, geure gogoari dagokiozan gauzetan batez be, alpeñ-nagiak izaten gara, ta goitiko laguntasun ori euki añren, bertatik egin beañ geunkezan gauza

asko, nagikeri utsez, beti ufengorako iz-  
ten doguz eta zařago ta txařago izaten  
gara. Nagikeriak — diřo Jaunak — gaiz-  
takeri asko irakatsi ditu (Eccli. XXXIII,  
29) ta alpeřkeria ekandu donge guztien  
ama dala esakun zař batek diřosku.  
Lenengo gurasoen obenagaz gure izate  
au okeřtu ta gaiztotu zan, eta geure ba-  
řuan ekandu onen aziak uři ta ekandu  
txařenak ugari daroaguz. Luře an ereiten  
diran azi onak erneko ba'dira, luřa ondo  
landu ta astindu beař izaten dogu: azi  
txařak, oster a, luřa landu ez ařen, berez  
erne ta etořten dira. Gure biotzetan be  
orixe berori jazoten da. Ekandu onen azi-  
ak uři daukaguz eta erneko ba - dira, go-  
goz lan egin beař dogu: azi txařak, oster a,  
nagikerian bizi ezker o, berez erne ta jagi-  
ten dira ta azi onak be zapaldu ta irato  
egiten dabez. Zeruko bidean auřera joate-  
ko, ekandu txařak itxi ta ekandu onai ekin  
beař dautsegula edonok daki; baņa ekan-  
du txařen eřo ta zustrayak biotzetik ken-  
tzeko be, gogoz lan egin beař dala edonok  
dakus. *Nagiak ori nai leuke; baņa zin-*

*tzoro ez dau nai izaten* (PROV. XIII, 4) eta lugin alpeñaren soloa sasi ta bedar txarez estaldu oi dan lez, nagiairen biotza be ekandu txarez bete ta estalduten da. Gizon nagiak asmo on asko eukiten ditu: bere buruan ames asko darabiltz; baña asmo utsakin gelditzen da: gauza on gitxi egin daroaz eta egiten dituan gitxi oñeik be, gogo barik eta uts askogaz egiten ditu: augaitik gizon nagiak, oñi ta lora asko daukazan eta arnaririk (garaurik) ez dakañen zugatza dirudi: baña Jaunak esan eban: *ale edo arnari onik ez dakañen edozein zugatz ebagi ta sutara jauñtia izango da.* (MATT. III, 10).

Epeltasuna, berez, nagikeria baño gixitxuago da; baña ia nagikeriak beste kalte egiten daukuz eta Jaunak iguin eta goñoto andia dautso. Geu ainbeste maite gaituan Jainko maitagañagaz, ez otzak ez beroak izatea; Jaun andi oñi dagokiozan gauzetan gogo barik, motel eta nañaz lez ibiltia; bera irainduteko bildur gitxi ta berari atsegin emoteko ardura gitxiago eukitea, epeltasunaren ezaugañi ziuñak dira.

Biotzeko epeltasun ori gure Jaunarentzat gauza gorotogafia benetan da. Epelak gaiztakeri andirik ez dau egiten; baña gauza on andirik bez, eta Jaunak diño: *otsein baldan eta ezetakoez ori, atazko ilunpera jauñti egizue; an negar eta agin-kiñizka-dea ugari izango da.* (MATT. XXV, 30).

Gure Jaunak bost neskatil eroai zer erantzun eutsen bai-edo-dakizu: eztegu-etxera atea joten joan yakazan; baña beluegi joan ziralako, eztegu-jayetan ez eba-zan artu. Neskatil aek beste bost zurak lez, garbitasuna gorde eben; baña euren kurtzeluetan oriorik ez euken, eta kurtze-luak, biztu-ta bertatik, itzali yakezan, eta orioa eroatera joan ziran bitartean, eztegu-etxeko atea itxi zala irakuñten dogu. Esan nai dau, bost neskatil ero onei ardurarik-ezagaz, euren biotzetan maitasun-gaia itzali yakela: augaitik, Jaunari dei-egin eutsenean: «Jaun orrek, aren, atea idegi eiguzu», Jaunak zoñotz erantzun eutsen: *Zoaze orñtik; ez zaituet ezagutzen. Ernai egon zaitzeze, ba, diñosku Jaunak, zein egun eta zein ordutan etorñiko nagan, ez dakizue-ta.* (MATT XXV, 1 ET SEQ)

## I I

Andra Maria bere egiñenetan erne, bizkoñ, zoli, maratz eta arduratsua izan zan. Guk be, nagikeri ta epeltasuna astindu ta geure gogoari dagokiozan arazo ta zeregiñetan batez be, ernai, bizkoñ eta arduratsuak izaten ikasi daigun. Geure eguneroko lan, egikizun eta zeregiñak, zeatz, zoli ta asmo zuzenagaz egin eta beteko ba'genduz, zerurako irabazpen andiak egingo geunkez; baña epel eta motel ibiltzen gara ta geure otoitz eta egitade onetan be, uts askotxu egiten doguz. Jeremias igarñleak diñosku: *zoritxañekoa Jaunagazko zeregiña motel eta ardura bari egiten dauna* (JEREM XLVIII, 10) eta Jaunak diño bere gauzetan epel eta motel dabiltzanak, iguin emoten dautsela ta bere agotik jauñtiten asiko dala (APOC III, 16). Au onelan izanik, geure eguneroko lan eta zeregin oñeik zeatz, ardura andiz eta gogo zuzenez egitea, asko baño geyago yoaku ta ori Andra Maria'ren bizitzan guztiz ondo ikasi daikegu.



Andra Mariak, bere etxeko zeregiñak egitèko, neskamerik (otseñik) ez eukala dirudi ta etxeko andreari dagokiozan zeregin guztiak bere eskuakin egiten ebazala ziñetsi geinke; baña zenbat lan egiten eban baño, lan oñeik zelan egiten ebazan jakitea onuratsuago izango yaku-ta, auxe pizka bat azaldutea ondo izango dala deritxat.

Guk sañitan geure gogoko yakuzan lanak egin eta gogoko ez yakuzanak iñorentzat izten doguz: Andra Mariak, ez. Ama garbi ta zintzo onek, bere gogoko ziranak eta ez ziranak, Jainkoaren gogoko zirala uste izan ezkerro, bizkoñtasun eta ardura bañdiñagaz egiten ebazan. Eta bere lan guztiak asmo zuzenagaz eta Jaunari atsegin emoteañen, beti egiten ebazalako, eguneroko zeregiñik txikañenetan be, irabazi andiak eskuratu eroazan. Eskuak lanean erabiltzala be, bere gogoa, maitasunaren bidez, Jaunari adi egoten zan. Lana asi orduko, Jaunari eskiñi; ondo egiteko, laguntasuna eskatu; lanean iñañduala, bere biotza gora jaso, ta amaituta-


koan, eskañak egitea, Andra Mariari iñoz aitzu ez yakazan gauzak dira. Jesu-Kistogure Jaunak gauza guztiak ondo egin ebazala ebangelioan irakurten dogu (MARC. VII, 37) eta Andra Mariak be, bere zeregin guztiak ondo egin ebazala egiz esan geinke. Gure Ama laztan onek, lanean otoi ta sañi askotan, otoitz-aldian be lan egiten eban; bere egikizun guztietan Jaunaren atsegiña ta bere gogoaren auñerapide ta zoriona bilatu ebazan: bere lan eta egiñen guztiak uts barik egiteko; ardura zoli ta bizkoña euki eban eta augaitik, ots eta durundi andiko zeregiñik iñoz egin ez añen, bere eguneko lan txiki ta ezkutuakin deuntasun eta oñnitasunaren gorengo mañara igon zan. Gu sañi askotan okeñ egoten gara: beste zeregin andia goen batzuk ba'geunkoz, geure gogoak obeto oñnidu ta zerurako irabazi andia goak egingo geunkezala begitandu ta iruditzen yaku: baña uste okeñ ori geyenetan geure nagikeriak sañtzen dauskun ziriazaten da; oñnitasunera eltzeko biderik labur eta eñezena, zerurako irabazi andiak

egiteko lantegirik onena, gure eguneroko zeregin oreak dira-ta. Zoli ta bizko, uts barik eta asmo zuzenagaz egingo ba'genduz, Jaunari atsegin emongo geunskio ta Jaunak, orde, eska, sari ta zorion andiak emongo leuskiguz.

Zeure egiñen guztiak zoli, maratz eta ardura andiz egin zenduzan emakume agur-gari orek, geure Ama samur eta maitako zareala gomutau egizu. Zure ontasun eta erukia zeure ala baizen andiak dirala ta zeure biotz samur eta maitako ori zeure seme-alaba guztientzat beti zabalik daukazula bai-dakigu. Eruki zakiguz, ba, Ama on-onori ta zeure antzera geure eguneroko lan eta zeregintxuak asmo zuzenagaz eta ardura andiz egiteko bea doguzan eska eta laguntasuna oparo jadetsi eiguzuz.

LOREA: DUM TEMPUS HABEMUS, OPEREMUR BONUM. (GAL VI, 10). Aldia daukagun bitartean gauza onak egin daiguzan.

ERABAGIA: BONUM... FACIENTES, NON DEFICIAMUS: TEMPORE ENIM SUO METEMUS NON DEFICIENTES. On-egiten ez gaizan asperu: iraun badagigu, ba, aldia datoñenean, ereinkakoa batuko dogu.



# Ogeita amaikagaren egunerako irakurkizuna

**Andra Maria, iraupenaren eredurik bikañena**

## I

Loretako ilaren azkenengo egunera eldu gara ta egun onetan iraupena azaldutea ondo izango dala deritxat. Onoimen bakana da: baña betiko zoriona jadesteko osoro bearezkoa, beste onoimenak, au barik, bide erdian gelditzen dira-ta. Geure betiko zoriona, beste ezer baño geyago yoakula ta, zorion ori eskuratzeko asmoz bein baño sañiago gogoz lanean asten gara; baña gaiztasun pizka bat aurkitzen doguneko, gogait egiten dogu ta geure lan ori bertan-bera itxirik, epeltasun eta nagikerian jausten gara. Zeruko bidea artu ta pizka baten jañaitu añen, bide erdian nagitu ta atzerantz itzuliko ba'giña; lenengo bultzakada oregaz ¿zer auñeratuko geunke? ¡Ezertxu bez! Goldeari eskua ezañi, lanean asi ta atzerantz begira jañten

dana, zerurako gai ez dala Jaunak argiro diñosku. (Luc. IX, 62).

Au onelan izanik, gure zorion ori lořtu nai ba-dogu, nagikeria astindu ta bein arřtu dogun bide zuzenari, kemen eta adorez jařaitu beař dautsagu, Jaunak diñoskun au ez daigun iñoz be aiztu: *Azkeneraño iraun dagiana* — diño Jaunak — *orixe gaizkatu ta zeruratuko da.* (MATT. X, 22). Augaitik Bernardo deunak esaten eban: Beste onoiemenak griña gaiztoakin buřukan ekiten dautse: baña garaitza osoa iraupenak bakařik lořtu daike: onoiemen guztiak zeruruntz garoez; baña bertoraño iraupenak bakařik eroan gengikez. Ondo asi diranak, asko izan dira: ondo amaitu dabentak, gitxi. Ondo astea, gauza eřeza da: ondo amaitzea, ori da gatxa; baña betiko zoriona jadesteko, ondo astea naiko ez da-ta, ondo amaitzeko ardura arřtu ta alegin egin beař dogu. Au edo beste gauza on dagianari, Jaunak azken - iraupena agindu ba'leutso, azkeneraño onean iraungo ete giñan ala ez, gaur dakigun baño ziuřago jakin al-izango gendun; ba-

ñā guk egite on asko egin ařen be, Jaunak azken-iraupen ori ez dausku agindū: augaitik, langileak bere lanagaz, ugazabak agindū dautsan alogera irabazten daun lez, guk azken-iraupen ori ořelan ezin irabazi geinke. Ořaitik be, geure aldetik dagoana egin ezkerro, Jaun eřukitsuak geure betiko zoriona irabazteko ain beařezkoa dogun iraupen ori ez dausku ukatuko. Egiz, Jaunak ez dausku zoř, ez dausku agindū-ta; baña Jaunak guri zoř izan ez ařen, geure ardura zoli, otoitz, eskari ta bizitz zuzenagaz eskař andi ori lořtu geinke.

Onean iraun nai ba - dogu, ernai egon eta arduraz bizi beař dogula Jaunak diñosku ta Jaunak diñoskun ori geure arerioen asmo gaiztoak eta geure argaltasunak argiro darakuskue. Jaunak bere ikaslai bein baño sařiago esaten eutsen: *Ernai egon zaitezze, ba, zuen Jauna noz etořiko yatzuen ez dakizue-ta. Augaitik, beti gertu egon zaitezze, gizonaren Semea, gitxien uste dozuenean etořiko da-ta.* (MATT. XXIV, 42-44). Eta beste bein: *Zuoi diño-*

*tzuēdan au, beste guztiai be bai - di-  
 ñotset: ernai ta itzař egon zaiteze.*  
 (MARC. XIII, 37), *zuen Jaun eta uga-  
 zaba datořkenean, lo aurkitu ez zaye-  
 zan* (IB. 36). *Zorionekoak, Jauna da-  
 tořkenean, itzař eta ernai idoroko di-  
 tuan bere ořseñak.* (LUC. XII, 37). Gure  
 arerio gaizkiñak lorik ez dau egiten: Jaun-  
 ak gure iraupena sariztuko daua bai - da-  
 ki-ta, augaitik, beste ezeri baño iñarřzi,  
 bekaizkeri ta gořoto andiagoa dautso ta  
 egin-alak egiten ditu, onean irauteko as-  
 mu ori guri burutik kentzeko. *Anayak —  
 diñosku Simon-Pedro'k — jan-edanean be-  
 giratuak izan eta beti ernai egon zaiteze,*  
*zuen arerio txeřena, leoi amuřatua lez, nor*  
*iruntzikō zuen inguru dabil-ta.* (I PETR. V, 8).  
 Geure izatez argal eta aldakořak gara-ta,  
 origaitik be onean irauteko ardura andia-  
 goa euki beař geunke. Deun Paulo bialdu-  
 ak be orixe adierazten dausku, diñosku-  
 nean: *Zutik dagola uste daunak, jausi ez*  
*daiten ardura ařtu begi.* (I COR. X, 12). Eta  
 Jaunak oraindik argiroago: *gogoa, ziñez,*  
*gertu dago; baña aragia argala da - ta,*

*ziltzaldian (tentaziñoan) jausi ez zaitzen, ernai zagokeze ta otoi egikezue. (MATT. XXVI, 41).*

Ernai egon ezeze, zeruko bidean auñera joateko ardura aritu ta alegin be egin beař dogu. Bernardo deunak diñosku, ba, zeruko bidean auñera ez joatea, atzerantz egitea dala ta iraupen barik, ez buřukan dabilenak gurenda edo garaitzarik, ez garaitu daunak, garaitzaren onurarik irabazi daikela. Eta deun Paul bialduak diñosku: ¿Ez al-dakizue lasterketan dabiltzan guztiak, arin eta bizkoř ibilten dirala; baña elburura lenen eltzen danak bakařik saria irabazten daula? Ba zuek be, sari ori irabazteko bestean, bizkoř ibili zaitzeze. (I. COR. IX, 24). Egiz, onoimen guztiak bizkoř ibilten bai - dakie; baña elburura iraupena bakařik eldu doa ta, augaitik, saria be, berak bakařik irabazi ta jadetsi daike. Aonelan ba, bide zuzenari auñera jařaitu ba-dayogu, ta Jaunari geure otoi-tzetan azken-iraupen ori, eten barik eta uste beteagaz, eskatzen ba - dautsagu, Jaun erukiořak, geure betiko zorionagaz



batuko gaituan eskar eta mesede andi ori, egingo dausku.

## II

Andra Maria guretzat iraupenaren eredu bizi ta bikañena da. Ama samur onek bere bizibide guztietan jañabiderik ederrenak emon euskuzan. Bere bizitzan gazte ta zañak, eskonge, eskondu ta alañgunak, guztiok gauza eder asko ikasi geinkez. Jaunak, bere Ama guztioen eredu ta jañabide izatea nai ebalako, bizitzako mala guztietatik eroan eban eta Ama gurñari onek, bizibide guztietan, bere osotasunaren ardura bizkor-zolia ta ornitasunaren gar andia erakutsi euskuzan. Bere egitadetan utsunerik ez eban inok ikusi; bere gogo-biotzeko garbitasuna ez zan inoz orbandu; nagikeri ta epeltasunik ez eban inoz euki; bere gogoaren edertasuna jayotzatik eriotzaraño, eten barik azi ta geitu zan eta eriotz-aldian bere ornitasun ori izan leikenik oso ta andiena izan zala Eleizako irakasleak auez diñoskue. Jau-nagazko maitasuna izan zan bizitz guztian

bere eguneroko jakia ta maitasun onek ekañi eutsan eriotzea be. Mariaren seme-alaba izan nai dozuenok, zeuen Jainkoa maite izan egizue, beti maite ta gero baño gero maiteago. Gazteak zarenok, egikizun au ez, añen, gerorako itxi, gero beluegi izan daiteke-ta: gaztaroan maitetu egizue, Jaunak berak geyen maite daun adiñā orixe da-ta. Zañtzarora eldu zarenok, bero ta gañtsuago maitatu egizue, bizitz onetan onezkero luzaroan ezin izango dozue-ta. Guztiok geure Amaren antzera, eriotzarañō geure Jaun ona zintzoro maitatu daigun, eriotz-ostean maitasunezko bizitz zoriontsua emon dagiskun. Jaunak berak diñosku ba: *eriotzarañō zintzo izan zakidaz eta bizitzako burestuna emongo dautzut.* (APOC II, 10).

Andra Maria geizoz ez zan il, maitasunaren indañez baño. Ondo elduta, umoumo dagoan arnari edo alegarua zugatzadaretik berez jausten dan lez, Andra Maria'ren biotzean Jaunagazko maitasuna eldu-eldu egin zanean, bere gogo zoriontsua gorputzetik berez azkatu ta eriotzako

lañitasun barik, maite eban Jaunagana joan zan. Onelan, bizitz on eta zuzena egiten irakatsi ta gero, gure Ama samur̄ oñek, ondo ilten be irakatsi euskun. Gutariko bakotxarentzat be azkenengo egun ori laster̄ elduko da. ¡Zoriontsuak gu, Andra Maria lez ondo gertuta ba-gagoz! Egongo gara, bera lez bizitzan eriotzarako gertuten ba-gara ta aldi lañi aretarako geure Ama samur̄ oñen laguntasuna jadensten ba-dogu. Eta jadetsiko dogu Ama laztantsu oñi geure biotzeko maitasun eta eskar̄ ona erakusten zintzo ta iraunkoñak izaten ba-gara. Jainkoaren ur̄engo, Ama samur̄ ori maitatu beañ dogu ta geure bizitz guztian erasp̄en zindo-zintzoa izan beañ dautsagu, bere laguntza maitakoñaren beañizen andia daukagu-ta.

Loretako il̄ au gaur amaitzen da: baña Andra Mariagazko zaletasun eta erasp̄en ori ez bedi, añen, loretako il̄agaz amaitu. Geure biziak diraugin bitar̄tean, erasp̄en ori be geure biotzeko bañeneraño sañtu-ta, beti geugaz eroan beañ dogu. Gure gorputza, arnasa añtu barik ezin bizi daiteken

lez, Andra Mariagazko maitasun, zaletasun eta eraspen barik, gure gogoa Jainkoarentzat ezin bizi daitekela ta eraspen ori zerurako autetsita dagozanen ezaugarria dala Eleizako irakasleak diñoskue. Maitatu daigun, ba, geure Ama biozbera, samur eta erukitsu ori. Bizitz onetan bera maitatzeko daukagun aldia laburra da-ta, egunero egin bea geunken egikizun begiko au, urengorako ez daigun itxi. Ain arin igesi yakun loretako il onek, geure bizitzearen laburtasuna darakusku. Eta egiz, gure oraingo bizitz au egaiz doan txoria baizen arin, gerizea baizen laster igesten da: ames laburra ta gauza utsa da: baña onen ondoren betiko bizitz luze ta amaigabea ditxarogu. Betiko bizitz oretara joateko, gure biderakusle, itxaso - iza eta osasun - kaya, Andra Maria da - ta, ijañaitu dayogun Ama samur ori!

Iraupenaren eredurik bikañena izan zayakuzan Ama maite ta laztan ori, gau agur egin baño len, azkeneraño onean irauteko eska eta laguntasuna biotz-biotzez eskatzen dautzuguz. Ama samur orek

zeure magalpean ar̄tu gagizuz eta zeugazko maitasunean bizi ta zeure besarte gozoan ilteko eskaŕ eta zoriona loŕtu eiguzuz. Bizi ba-gara, Ama laztana, datoŕen urtean be, zeu Andra gur̄gaŕi ta geure bitartekeo maitagaŕi ori goretsi ta zeure laguntasuna eskatzera, etoŕiko gayatzuz: bien bitartean ilten ba-gara, zuk, Ama amultsu, gozo, erukioŕ eta laztantsu oŕek, zorionez beterik bizi zarean zeru eder oŕetara, aŕen, eroan gaizuz.

LOREA: ESTO FIDELIS USQUE AD MORTEM ET DABO TIBI CORONAM VITÆ. (APOC. II, 10). Eriotzaraño zintzoa izan zakidaz eta bizitzako burestuna emongo dautzut.

ERABAGIA: FRATRES, MAGIS SATAGITE UT PER BONA OPERA CERTAM VESTRAM... ELECTIONEM FACIATIS. (II. PETR. I, 10). Ene anayak, zuen egite onen bidez, zerurako autuak izan zaitezzen, ardura ar̄tu ta lan-egizue.





## ANDRA MARIA'RI ADIGURI TA OPARIAK

*Dañayen adiguri (opari) oneitatik, zozketan urten dagizuna zeuretzat aritu egizu ta Andra Mariaren gorapen eta andizurenez, berarizko ardureagaz egikezu.*

I. Beste oro galdu aŕen, neure gogo au gaizkatu (zeruratu) ba - dagit, ogasun, aukera, atsegin eta zorion guztiak eskuratu izango dodaz: ordu-erdi baten ori gomutau ta astiro gouznaŕtu (gogoz - naŕtu) egizu.

II. Zeure autoŕkuntzak dongaro egin ete-dozuzan kezka ba'zenbiltz, il aonetan naste barik eta garbai zintzoz, guztia autoŕtu ta zeure baŕen ori baketu egizu.

III. Obenik (pekaturik) ariñena be zorigaitz andia da-ta, zeuk ondo dazauzuzan oben - aŕis-kuetatik alde-egiteko burubidea aritu egizu.

IV. Obenerako aŕi labana yatzun lagunik ba'zeunko, Andra Maria'ren aizkitasuna irabazteaŕen, lagun gaizto oŕi bein eta betiko agufegiozu.

V. Zeure etxean abesti (kanta) nai idaztilizun - gaiztorik ba'zeunko, zeure Ama laztanak eskatzen dautzu-ta, apuŕtu ta sutara jauŕti egizu.

VI. Zeure gaiztakeri andienaren ordañez, barau ala barauzaro (aragi-izte) bat egizu.

VII. Egindako ainbeste oben txikien ordezt, kirol edo jolasaldien bat itxi egizu.

VIII. Eriotzarako gerkunde lez egun osoa albait isilēn eta bakařen igaro egizu.

IX. Ziñesmen, itxaropen eta maitasunezko egipenak saritxutan egiteko oitura osasungaria zeugandu egizu.

X. Goizaro zeure lan eta nekeak Goiko-Jaunari eskiñiteko ekandu onaren jabe egin zaite.

XI. Jainkoa adi daukazula bizi ziñetsi egizu eta zeure zeregin eta lan guztiak Jaun ori atsegin emotearēn egikezuz.

XII. Gau-oro zeure bařen ori aztertu egizu ta idoro daizuzan zeure utsegite andi nai txikarēn parkamena, garbai zintzoz, Jaunari eskatu barik, bein be ez zaite oeratu.

XIII. Jaunari zeure eskař ona erakusteko, albait sarēn eta gerkunderik onenagaz zeure bularēan artu egizu.

XIV. Mesa entzuteko ta zeure maitasunarēn altaran daukazun Jaun ona, albait sarēn ikeritzeko oitura osasungaria zeuretu egikezu.

XV. Orain arte zeure geideai emon dautsezuzan ikasbide txarēn ordezt, agiriko ikasbide on bat-edo-beste emon egiezu.

XVI. Zeuk egindako irarēn parkamena Jaunari biotzez eskatzen dautsazula, zeuri irarēnik an-

diena egin dautzunari parkatu egiozu ta bere aldez kurutzetako-bidea egikezu.

XVII. Auñekoaren kaltez esamesetan ez zaitte ibili; zeure akatz eta utsak gomutau egizuz, ta auñekoari, akatzen batzuk daukazala - ta, aginkarik ez egiozu egin.

XVIII. Auñekoa mindu ta atsekabetu daiken itz zoñotzik ez egikezu iñoz esan.

XIX. Norbait bializen estuan dagoala ta iñori ezer eskatzen lotsa - edo dala ba'zenki, isilik eta Andra Maria'ren izenean, bere estutasunetik ufteten lagundu egiozu.

XX. Andra Maria'gazko zeure eraspén eta zaletasun ori azi ta geitu leiketzuen egipenak arduraz eta zeatz egikezuz.

XXI. Goiz, eguerdi ta añatz zeure Ama lantán ori aingeruaren agufa egiteko oitura on eta deuna, zeugandu egizu.

XXII. Ordu osoa entzun dagizun bakotxean, Ama samur ofegaz gomutau zaitte ta *Aguñ Maria* bat zuzendu egiozu.

XXIII. Agurñza (eñosarioa) egunero esateko ekandu onari eutsi egiozu ta zeure etxekoen añtean ekandu ofek iraun dagian alegin egikezu.

XXIV. Zeure Ama maitearen antz - geyago eukiteko, il aonetan letoñkizuzan alke ta lotsariak añte ta eroapén andiz añtu ta jasan egikezuz.

XXV. Zeure aintza ta gorapenez iñoz be ez eikezu ezer esan, eta norbaitek goratu ba-zagiz, zeure burua apaletsirik, gorapén ori Jaunari eskiñi egiozu.



XXVI. Zeure guraso ta nagosien esanak, betozko ilun barik, zeatz eta bizkoř egikezuz.

XXVII. Gizonen ederafen ez eikezu ezertxu egin; baña Jaunaren ederafen eta bere naya zугan osoro bete dedin, zeure burua safi ukatu ta zeure naikeriak inausi egizuz.


XXVIII. Zeure Amaren garbitasunari antz-emoteko, aragiaren iritsa ezi, begiak arduraz zaindu ta janzkera lizun eta ariskudun jolasak itxi egizuz.

XXIX. Zerbait oker urten yatzula-ta, zeure bařeneko odola irakiten asi ba-dakizu, artegata-sun ori zeure bařenean irato egizu ta otzan ager zaite.

XXX. Zeuk bilatu barik letořkizuzan ildura eretiak, il aonetan batez be, abegi onez artu eikezuz.

XXXI. Jaunak, bere eriotz-aldian, edan eban ospin eta beztunaren gomutaz, geyen atsegin yatzun janari nai edarien bat bein eta geyagotan itxi egizu.







# Loreil - Abestiak


## LILI EDERA

*Valdes-Goikoetxea'tar A.*

ERIAK *Geldi ta pozkiro.*



A - ra - ne - ta - ko li-




li e - de - ra Zare-an A-ma laz - ta-na, Se-



me a-labok al-kařen le-yan lo- ra- kin ga-tořz




zu- ga- na.

ABESLARIAK *Gozaro*

Lo-ra o-be-ak ba-geunkoz A-ma  
*rit.*



po-zik e - mon-go geuns - ki-zuz dau-




ka-gu-zanok dakaítzuguz ta a-be-gi o-nez




aí-tui zuz.

## LORARIK ONENA

*Valdes-Goikoetxea'tar J.*

Eriak *Igikunez*

A - tse-gin po-zez A-ma on-




o- na Seme a-la-ba txi-ki - ok Lora-txu



bana go-goz ez-ki - ñi Gu - ra dautzugu guz-ti



ok Lo-ra-txu bana go-goz guz-ti - ok gu-




ra dautzugu guz-ti - ok.

## Abeslariak

*Astiro p.*


Bi-otz mai - tasun sa - muña




do - gu Geu-re lo - ra - rik o - ne - na.



U-sain go - zo - dun lo - ra bi - kaiñ - au Zu-



retzat a - ma kutu - na U - saingo zo - dun lo - ra bi -



kaiñ au Zu-retzat A ma ku - tu - na A - tse - gin.

## ESKARIA

*Valdes-Goikoetxea'tar J.*

Eriak *Andikiro* *mf*

An-dra guñ-ga-ri e-zin o-

*p*

be - a e-ru-ki - or ta sa - mu-

*mf*

ra Txe-ra o - na-gaz añ - tu e-

gi - zu Se - me - a la - ben a - gu-

ra Txe-ra o - na-gaz añ - tu e -

*rit* *molto*


gi - zu Se-me a- la- ben a- gu-

ra.


## Abeslariak

*Allegro*


Geu-re bi - o - tzen laztan kutun

*rit.*

oi Bi - zi - tzan la - gun za - ki-

*tempo*

guz. E - ri - otz os-tez, Zeu i - kus-te-

*rit.*


ra A - ma e - ro - an ga - gi-

*tempo*

zuz E - ri - otz os - tez Zeu i - kus-te

*rit.**molto*

ra A - ma e - ro - an ga-gi-


*mf.*

zuz An - dra - guñ-

# POZ - EKARLEA

*Donostia J. And. Aba (O. M. Cap.)*


*Allegro*




Go-go la - ri - ta bi-otz i-lu-  
Goize - ko i - zañ ar-gi e-kañ-




naz A - ma, i - ku - si ba-gai - zuz,  
le Geure a - tse - gin o - ne - na



Po-za da - kañ - zun i - zañ e - deñ  
E - ñu - ki zai - te e - ra - kus-ku-




oi Or - tze - an a - ger za - ki-  
zu Ze - ru - ko bi - de zu - ze-



guz.  
na.



## ANDERA URENA

*Donostiar J. And. Aba (O. M. Cap.)**Allegro*


An - de-ra u - re-na, A-ma on




o - na, a - gur e - gi - ten dau - tzu-



gu Mai - ta - sun ga - rez be - ti bi-



o - tzez, laz - tan i - zan-go zai - tu-



-gu.

Atsegin garbi

Eruki ezti

Zara zu, Ama laztana,

Lora liraña

Pitxi apaña

Apal, zintzo ta otzana.

Bikañena

Garbiena

Samur eta biguna,

Maitagarri

Zoragarri

Geure Amatxu kutuna.

AMERICAN

Faint, illegible text, possibly bleed-through from the reverse side of the page.

TO THE  
OF THE  
AND  
OF THE  
OF THE

# BILABIDEA

Auregunerako irakurkizuna . . . . .	3
Asikaldi ta azkenerako otoyak . . . . .	10
I. Gizonaren elburua . . . . .	13
II. Beste gauzak ¿zetarako ete-dira? . . . . .	19
III. Geure gogoaren betiko osasuna . . . . .	25
IV. Osasun ori lořtuko dabenak ¿asko ala gitxi? . . . . .	31
V. Deituak asko, autuak gitxi ¿zegaitik ete - dira? . . . . .	37
VI. Gogoaren osasuna gerorako iztea aris- ku andiko jokia da . . . . .	43
VII. Dongaro bizi izan dana, gitxitan ondo ilten da. . . . .	51
VIII. Ondo il nai dauna, bizitzan eriotzarako gertu bedi. . . . .	58
IX. Biztaldi labur onen ostean, betikotasuna.	67
X. Andra Maria, zerurako bide . . . . .	76
XI. Andra Maria, ziñesmenaren eredu nagosia	83
XII. Andra Maria, gure itxaropenaren eredu maitagaria . . . . .	90
XIII. Andra Maria, Jainko - maitasunaren ere- durik edeřena. . . . .	98
XIV. Andra Maria, geure geideagazko mai- tasunaren eredurik osoena. . . . .	106
XV. Andra Maria, geure arerioai zor dau- tsegun maitasunaren eredu ezin ohea	113
XVI. Andra Maria, zurřtasunaren eredu bikaña.	121
XVII. Andra Maria, zuzentasunaren eredu edeřa	130
XVIII. Andra Maria, sendotasunaren eredu ga- řena . . . . .	138

XIX.	Andra Maria, neuritasunaren eredu garbala . . . . .	147
XX.	Andra Maria, apaltasunaren eredu oso- osoa . . . . .	157
XXI.	Andra Maria, begirune ta eratasunaren eredu garbia . . . . .	165
XXII.	Andra Maria, garbitasunaren eredu or- bange ta pitxi apaña . . . . .	174
XXIII.	Andra Maria, ildura ta laztasunen eredu on - ona . . . . .	182
XXIV.	Andra Maria, buru - ukapenaren eredu zindoa . . . . .	191
XXV.	Andra Maria, menpetasun eta esangin- tzaren eredu uren - urena . . . . .	201
XXVI.	Andra Maria, otzantasunaren eredu ma- zal - mazala . . . . .	210
XXVII.	Andra Maria, eroapenaren eredu gore- nengoa . . . . .	219
XXVIII.	Andra Maria, otoitz eta eraspnaren eredu garaya . . . . .	229
XXIX.	Andra Maria, efuki samufaren eredu laztangafia . . . . .	239
XXX.	Andra Maria, ardura zoli-bizkoaren ere- du ezin ohea . . . . .	250
XXXI.	Andra Maria iraupenaren eredurik bi- kañena . . . . .	258
	Andra Maria'ri adiguri ta opariak . . . . .	268
	Loreil - Abestiak . . . . .	273





*Victoriæ 5 Mart. 1919.*

*Nihil obstat.*

*Dr. Petrus de Menchaca.*

*Censor.*

*IMPRIMATUR,*

*Victoriæ 6 Martii 1919.*

† *Leopoldus, Epus. Victorien.*



*[Faint, illegible text, possibly bleed-through from the reverse side of the page.]*



